


Pello Esnal

Itzuliko naiz



Itzuliko naiz

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Pello Esnal

Itzuliko naiz

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-23-2

Legezko Gordailu: S.S. 629/95

Eskutitza

Antonio Zavala
San Ignazio Ikastetxea
Donostia

Zarautz, 1995eko otsailaren 28an

Antonio adiskide hori:

Bizpahirutan eskaini didazu *Auspoa*, neure bertsoak argitara ditzadan. Erantzun bera eman izan dizut beti: hobe zela geroko uztea. Izan ere, su eta gar nuen bertso-labea, etengabeko bertsogintzan. Nahiago nuen itxaron, labea zertxobait hoztu arte. Argiago ikusiko nuen orduan zer bertso bildu eta nola sailkatu. Eta zuk, ohi duzun bezala, errespetatu egin izan didazu beti erabakia, nahiz eta agian ez zetozen nirekin bat.

Orain bai. Orain hotzago dut labea. Eta burutuagoa ikusi dut neure lana, lehen ez bezala. Bertsoak bildu eta txukundu ditut, eta honekin bat bidaltzen dizut bilduma. Zeuk ikusi zer egin eta nola argitaratu. Orain zeuri dagokizu erabakia.

Bilduma honetatik kanpo utzi ditut, jakina, zenbait bertso. Batzuk neure aukeraz eta beste batzuk halabeharrez. Hona hemen zergatik.

Aparte utzi ditut, lehenik eta behin, hasiera-hasierako bertsoak, bertso-izenik ere merezi ez dutenak. Jakingarriak izango dira, agian, bertsogintzan nola ikasi nuen ikusteko, baina ez dute gainerakoan balio handirik. Aparte utzi ditut, era berean, etxeko zenbait gertaeraren inguruko bertsoak,

etxeakoak etxean gorde behar direlakoan. Eta beste horrenbeste egin dut enkarguz jarritako hainbatekin. Hobeto daude gordean, noski.

Ez dut jaso, bestalde, bat-bateko bertsoak, nahiz eta kutunenak ditudan. Izan ere, horrexegatik hasi nintzen bertsoak idazten: ofizioa ikasi eta noizbait bat-bateko bertsoak ere kantatzeko gai izan nendin. Eta, egia esan, kantatu izan dut bertso txukunik, hori bestek esatea hobe bada ere. Baditut Lazkaon kantatuak, 1979an, Lazkao Txiki zena, Igarzabal eta Mendizabal bertso-lagun nituela. Baita Erreterian, 1980an, *Xenpelar sarian* boteak ere, *Plazako bertsolari* sailean azaltzen dudanez. Eta Aian jaulkitakoak ere bai, 1988an, bertako eta inguruko herrietako bertsolarien txapelketan. Dauden zintetan jarraitu beharko dute, paperetako zuria ikusi gabe. Beste batzuk ere baditut, lagunartean kantatuak, Nikolas Zendoairenean: han kantatu, gogoan hartu eta etxean nola edo hala papereratuak. Azkenik, banituen beste batzuk, baina birus informatiko batek eraman zizkidan betiko, *Birus berriari* bertso-sailean kontatzen dudan bezala. Hauek galdu izanak ematen dit pena. Besteak ez daude gaizki dauden-daudenean.

Birus informatiko beraren erruz galdu nituen beste batzuk ere. Ordenagailuan nituen jasoak, nire ustez seguru samar. Baina teknikak ere bere mugak izan, batez ere esku-zabarron menpean, eta auskalo orain non diren. Baziren bizpahiru polit askoak, baina hala beharko du, halabeharrez.

Aukeratutako bertsoak sei multzotan sailkatu dizkizut, ikus dezakezunez. Horrelako lanen emaitzak gutxitan izaten dira gogobetekoak, baina tira. Ez dut uste hain gaizki daudenik ere. Dena dela, zertan hobetu ikusiz gero, esan besterik ez duzu. Atal bakoitzaren aurretik doakizu, bestalde, bertako bertso-sailen nondik-norakoa.

Eta ohartxo bat, azkenik. Banan-banan berriku-
si ditut bertso guztiak, zuri bidali aurretik. Eta zeu-
den-zeudenean utzi dizkizut, aldaketa txiki-txiki
batzuk salbu. Aintzakotzat hartu nahi izan baititut
Euskaltzaindiaren azken erabaki eta gomendioak
ere, garaian garaikoak izan nituen bezalaxe. Izan
ere, desafio bat dago nire bertsogintzaren oinarrian:
euskara batuan ere egin daitekeela bertsoan.
Horrela esanda, huskeria dirudi. Batez ere Xabier
Amurizaren ekarria kontuan hartuta. Baina ez zait
horren hutsala iruditzen. Bigarren alderdi bat ere
bai baitzuen desafioak. Apustua ez zen amaitzen,
izan ere, euskara batua bertsolaritzan sartzearekin.
Bertsogintza ere sartu beharra zegoen euskara
batuan; eta bertsogintzarekin batera, ahozko eus-
kararen ekarria eta taupada bizia. Eta horretan ari
naiz oraindik ere, orain ingurugiroaren laguntza
handixeagoz. Eta gero eta argiago ikusten dut, gai-
nera: irabazteko gehiago duela euskara idatziak
ahozko euskararen emariaz, alderantziz baino.
Baina zertan ari natzaizu, Antonio, zuregandik ika-
siak berritzen?

Besterik ez. Barkatu luzeegi iharduna. Zeuk
ikusi zer egin. Aldez aurretik mila esker eta adiorik
ez. Bihotzez,

Pello Esnal

Lehen urratsak

Ez. Honako atal honetakoak ez dira nire lehen bertsoak. Baina bai bertso izena merezi duten lehenengoak, edo zutik egoteko moduko lehenengoak. Hauen aurrekoek, izan ere, bertsoan oinez ikasteko balio izan zidaten, baina gehienek ez dute argitaratzea merezi; eta argitaratzea merezi duten aleek, berriz, etxekoentzat bakarrik dira argitaragarri.

Zazpi bertso-sail dira guztira (azkenekoa amaitu gabea) eta bertso solte bat, 1976tik 1978ra bitartean jarriak. Zeruko Argia aldizkarian plazaratu ziren aurreneko seiak. Lehenengo bertso-saila laugarren irten zen Bilintx sarian, 1976an, Bilintxen heriotzaren mendeurrenean; bosgarren bertso-sailak, berriz, 1978ko Xenpelar saria, inoiz jaso ez badut ere. Dena den, hark eman zidan pozik handiena.

Bertsoek, lehenengoek batik-bat, badute Xalbadorren estiloaren eraginik. Pixkana-pixkana ezkutatuz joango da eragin hori; ez, ordea, urepeldarrarekiko mirespena. Bederatzi puntuko lehen bertsoak ere ageri dira dagoeneko, nahiz eta sail osoak geroago etorriko diren.

Maitasunaren bidean

Doinua: *Aurtxo txikia negarrez dago.*

1

Amodioa duzu izena, baita ere maitasuna.
Hamar bertsotan adieraztera noa zure nortasuna.
Hain da aberatsa eta bitxia zugaran gordetzen duzuna,
kantuzko lana hasi aurretik beldurrez lotzen nauzuna.

2

Bakardadean ibili gabe noraezaren erdian,
amodioak ipintzen gaitu bide zabal pozgarrian
eta eragiten besteengana harremanezko gurdian.
Bere antzeko gidari onik ba ote dugu ludian?

3

Amodioak murgiltzen gaitu ametsezko itsasotan,
abiarazten etengabeko dantza zoroen pausotan.
Zer pozkario atseginaren uhinen mila besotan!
Nola daiteke zentzudun iraun hain zurrunbilo gozotan?

4

Amodioak urrez jazten du maiteminduen bizitza,
eguntxintaren argi berriak nola goizaren ihintza.
Harremanaren baitan sortzen da berpiztzailea den hitza.
Berak bakarrik senda lezake bakardadearen gaitza.

5

Uholdearen urek ibaia bere bidetik bezala,
amodioak bere indarrez gainez atera nazala,
nigan dagoen estuasuna betiko zabal dezala,
ea erabat urruntzen dudan bakardadezko itzala.

6

Iturri oneko ur gozoa ere bihur daiteke gazia.
Zorioneko sorgina, hainbat malko isurarazia!
Zer dela eta argi zuria, ilunetan nahasia?
Bizitzak bere baitan darama heriotzaren hazia.

7

Amodioak badu alditan armiarma baten antza:
bere itzalean hasi du hainbatek askatasunaren dantza,
sarez lotua aurkitu gero, hura itolarri latza!,
azken finean galtzeko osorik libre izateko esperantza.

8

Harremanetan ihardunik ere, hainbat da bakardadean,
norberarena beti zeozer gelditzen baita gordean.
Zalantzak ditu galderak sortzen, utziz zintzilik airean.
Segurantzarik ezin da lortu maitasunaren bidean.

9

Arriskurik ez duen biderik inork ba al du ikusi?
Edo gauarik gabeko egunik non dagoen erakutsi?
Zorioneko amodioa, zure itzal eta guzi,
eraiki zaitez nire bizitzan gidari eta nagusi.

10

Bertso mugatuz nola osoki mintzatu hain gai bikainez?
Beldurrez nintzen desegokiak ez ote ziren tamainez.
Gertatu ere horrela dira eta egin dute gainez.
Langileari dagokiona jasoko ahal dut ordainez!

Zumarragan, 1976ko udan
Laugarren, Bilintx sarian, 1976an

Ama bati

Doinua: *Lagundurikan danol.*

1

Lau aldiz ama zara hogeita bost urtez
eta autobusez zoaz Tolosara bidez.
Egun bateko haurra amodio galdez
besotan daramazu ezinean maitez.
Errudun sentitu naiz aspaldiko partez.

2

Egun bateko haurra zure magalean
ikusi dudanean maitasun galdean
eta nihaur sentitu gozo epelean
nahi dudan guztia lortu ahalean,
zirrara ernatu da ene sabelean.

3

Bost urtetan lau ume eman maitasunak,
injustiziak eta ezjakintasunak,
izerdi-nekez hazi behar dituzunak.
Ezinak bihotzean sorturiko ilunak
estali ditu zure begi argidunak.

4

Zure begietako itsaso urdinak
ez ditu ezagutzen pozezko uhinak.
Aldiz, ezpainetako irribarre ezinak
adierazten dizkigu beharraren minak
zure barnean erein dituen saminak.

5

Orduak pasa eta zutaz oroitzean,
zure amatasuna eta eza lotzean,
halako herstura zait sortzen bihotzean.
Eta inora begira diot otoitzean
nork utzi zaituen hain egoera hotzean.

6

Gaur dirua soberan denean edonon,
taxiarik zuretzat ez ote zen inon?
Hainbaten ahotatik: "bake eta zorion";
baina zurekin inor gaur ez da izan on.
Errukirik ba omen da, ordea ez dakit non.

7

Gauzek zeuden bezala oraino diraute:
aberatsek pareta nahikoa badute,
familia pobreak dira semez bete.
Maitatzeak badakar horrenbeste kate,
behartsuak ezin du nahi adina maite.

8

Hona hemen bertsoan jasoia ama bati:
batzuek hainbeste eta besteek hain guti.
Behartsua behartsu izango da beti,
nahiz eta bestela entzun gaur hainbati,
esnatu beharrean gu baikaude loti.

Andoainen, 1976ko Gabonetan

Agur, Xabier

Doinua: *Aurtxo txikia negarrez dago.*

1

Heriotzaren itzal arrotzak estali zintuenean,
berri gaizto bat heldu zitzaigun erarik ankerrenean.
Lur maite hontan iluna ia nagusitzen zaigunean,
izarrak hemen behar ditugu, ez zeru ederrenean.

2

Zure begietako itsasoan ene begiak jartzean,
halako bake sakona nuen nik sentitzen bihotzean.
Baina heriotzaren epelez itsasoa lehortzean,
esperantzarik gabe geratu nintzen gauaren hotzean.

3

Bakardadezko gauaren hotza bakarrik jasan ezina,
zer dela eta gaur ene baitan duzu habia egina?
Xabier, izan zara guztion poza eta atsegina.
Gauak ez luke hainbat indarrik, orain gurekin bazina.

4

Zu joanez gero, Xabier, nauzu minez pentsatzen jarria,
zure heriotzak hondoraino dit kezka latza ekarria:
nork ote duen beteko utzi duzun hutsune larria,
hain zen gozoa zure irria, hain zinen maitagarria!

5

Azken arnasa emana duzu, Xabier, zure bizitzan
izan zenuen lagun on batek eskainiriko gerizan:
loak mendian hartu zintuen haurra amarengan gisan.
Egia esan, beste erara ezin zitekeen izan.

6

Nork ote daki, mendia, zenbat biziren berri dakizun,
zure baitaren beroan denez sortzen hainbat etorkizun.
Esperantzaren lekuko zara, tristezia alaitasun,
gauak goizari egiten dion deiadarraren oihartzun.

7

Mendi altzoan entzuna dudan egunsentiko ezkilak
uxatu ditu gauak babestu dituen sorgin isilak.
Utikan basapiztia ankerrak, urrun ezpata kiskilak,
atzo bakean etzan zirenak ez bitez betiko hilak.

8

Itxaropenak ipintzen gaitu gauez goizari begira,
ilun beltzaren erraietatik ihes datorren argira.
Xabier, zure irria eta begietako dirdira
ezerezean galtzeko ez baina betiko eginak dira.

9

Ene haurtzaroko milaka amets nahiz lurrera erori
eta hainbat ur usaingo zodun ontzia hautsiz isuri,
ene gogoan geratzen zara, eguzkia bezain zuri,
bide-ertzean nekez etzaten naizen bakoitzean sari.

10

Nola begiak malko basatiz, ahoa kantuz zait bete,
apurtu nahian herio beltzak sorturiko hainbat kate.
Esperantzaren argi-izpiak, gailenduko ahal zarete!
Agur, Xabier bihotzekoa, elkargana bildu arte!

Zumarragan, 1977ko otsailean

Mendian hil zen, 1977ko otsailaren 12an, anai
Xabier Baltasar Otaegi lasalletarra. Hari agur esa-
nez jarri nituen bertso hauek, "neguak kendu
ziguna udaberriak itzuliko digun esperantzaz".

Nafarroa

Bi doinu ezberdinez kantatzeko:
Balentin Berriotxoarena
eta *Ikusten duzu goizean.*

Udaberria

Betiko isilduz joan berria zen
neguaren oihartzuna,
udaberriko argi-izpiek
garaitu zuten iluna.
Zorioneko Nafarroa herri
jaiki zitzaigun eguna,
gu euskaldunoi eguzkia eta
beroa ekarri ziguna!

Goizean goiz naiz itzarri,
lur-batasuna uztarri,
osotasuna egarri.
Nahiz etsaiak berritan ito
urratu hainbat udaberri,
euskara izanik lokarri,
eskua emanez elkarri,
izango gara Euskal Herri.

Egunsentiko amets beroa
eta akatsik gabea,
etorkizuna argitzen duen
hainbat izarren jabea,
lehenbiziko Euskal Herria
harrotu zuen labea,
haren ondoren zetorrenaren
oinarri eta habeak.

Uda

Ardo gozoa ez baita sortzen
usteltzeko upeletan,
eguzkia ere ezkutatzeko
haitzulotako itzaletan,
Nafarroaren besoak ziren
luzatu bere ahaletan,
Euskal Herria besarkatzeko
nahiaren hegaletan.

Ametsaren izar zuri,
zu zaitudala gidari,
ene Erregek zaindari,
ekin natzaio ditudan muga
zaharrak zabaltzeari,
naizena sendotzeari,
garena finkatzeari,
geroaren aitzindari.

Euskal Herriak zeru gainean
badu keinuka izarra,
beti aurpegi dirdiratsuz
nahiz eta izan zaharra,
erakutsiaz etenik gabe
batasunaren iparra,
oihukatzen du kateak eta
mugak apurtu beharra.

Udazkena

Nafarroaren besoak ziren
urrutiraino iritsi,
gero, ordea, lege basatiz
beso-motza zuten utzi.
Berdin gertatu zaigu gaurdaino,
hala gertatuko etzi?,
arrain handiak beti ohi du
lagun txikia irentsi.

Auzokoak dira batu,
kideak dituzte elkartu,
arrotzak bereganatu,
euskal herrioi geu izateko
eskubidea ukatu,
gaituzte mugaz hondatu,
bi aldetara banatu,
ezpataz sakabanatu.

Udaberriko goiz eder batez
neskatxa izaten hasia,
bere baitan zeramala gero
ama bihurtzeko hazia.
Hainbat alditan amestutako
etorkizun berezia,
esku gaiztoek beste hainbatetan
zapuztu eta nahasia.

Negua

Nola neguak udazkenaren
arnasa estu ta larria,
ito beharrez eraso zuten
Nafarroako herria.
Dohakabea sabel heldua
antzutzera etorria,
udaberriko ametsa uxatu
zuen gauaren gorria.

Gure izate gaixoa,
hainbat aldiz eraso,
piztia askoren basoa!
Zatoz gugana, zorioneko
bake onaren usoa,
urrun gauaren besoa,
dasta dezagun gozoa
eta askatasun osoa.

Negu luzean egina dugu
mila negar eta otoitz:
zenbat urtetan neke-minetan,
gure udaberria noiz?
Libre itzarriko gara baturik
egun berriz goizaren goiz,
haize iheskorra inork ez baitu
preso harrapatu inoiz.

Urbian, 1977ko udan

Soldadu ekarri naute

Inoiz nireak izango ez diren bertsoak

Doinua: Galerianoaren kanta.

1

Soldadu ekarri naute herri arrotzera,
eguzkia ezaguna ez den laiotzera.
Amets itolarrien atzapar antzera
gauaren iluna zait jausi bihotzera.

2

Urrun ditut lagunak, urrun dut maitea,
urrun guraso eta etxeko atea.
Motza da lotzen nauen burnizko katea.
Hau zulo honetatik ezin joatea!

3

Non da gidatu nauen urrezko izarra?
Non, loa zaindu didan itsaso zaharra?
Zer dela eta dut nik hau jasan beharra?
Gauetz begietara datorkit negarra.

4

Zerk ekarri ote nau herritik honaino,
pairatzera hainbeste ilunpe eta laino?
Egia ote daiteke hau, nire maiteño,
gizonago naizela lotan esna baino?

5

Nola mozkorrak zenbait herritako plazan,
noraezean gabiltza ur galduen antzan,
turuta arrotzak jotzen duen zera dantzan,
inoiz geure airera hasteko esperantzan.

6

Jakin ote dezaket hautsez nora noan,
arma eskutan eta zakua lepoan,
kanta ulertezinak zenbaiten ahoan,
neure herria eta neureak gogoan?

7

Bat-bi aspergarrian, aginduz agindu,
gure arnasak ia berea egin du.
Baina izarren pean behar ahalegindu,
gauak ez baitu erabat argia birrindu.

8

Isilduko ahal dira turuta arrotzak,
egunsenti epelez urrun joan gau hotzak,
egutera bihurtu hemengo laiotzak!
Bart ametsetan baietz esan dit bihotzak.

Andoainen, 1978ko neguan
Xenpelar sariaren irabazle, 1978an

Maitasunez

Doinua: *Aurtxo txikia negarrez dago.*

1

Nire bizitzan gau ilun batez bakardadea egin zen,
nire txalupa uraren mende, ekaitzak zuen agintzen.
Barealdia egin zenean, zugana abiatu nintzen.
Geroztik gauero zait zerua izar ederrez apaintzen.

2

Itsaso zehar egin nuen nik neure gaztetan bidaia,
hura ez zen haur nintzela irriz ikusitako ibaia;
han ezagutu nuen ekaitza eta entzun hil-kanpaia...
Zu zara nire txalupa hautsia babestu zenuen kaia.

3

Txalupa hautsian ibili nintzen noraezaren pausotan,
izarrik gabe, bide galdurik, bakardadezko lausotan.
Orain, ordea, pausa dezaket nekea zure besotan,
hainbat alditan amestutako maitasunaren gozotan.

4

Zenbat gau ote ditut igaro itsaso harroaren plazan,
ekaitz gaiztoen kolpeen mende, uhin galduaren antzan,
lagunik gabe, tristurapean, bakartiarena dantzan,
kai goxo baten atsedenera inoiz heltzeko esperantzan?

5

Zure begietako itsasoan ez da ageri ekaitzik,
ez eta ere kolpe gaiztorik, bakearen ona baizik.
Zure ondoan geratuko naiz betiko, maiteño, pozik,
gehiago ezagutu ez dezadan argirik gabeko goizik.

6

Zure alboan berraurkitu dut haur nintzeneko ibaia,
zeruko izarren ispilu eta kanta-iturri alai.

Hau bihotzaren gozotasuna, hau itzal gabeko jai!
Denbora luzez iraun dezala ezagutzeke amaia.

7

Hau duzu nire aitormen hutsa, entzun al duzu gaurdaino?,
nik maiteago zaitudala zu arraintxoak ura baino.

Nahiz eta jasan izan behar mila ilunpe eta laino,
izate osoz zeurea nauzu gaurtik heriotzeraino.

Andoainen, 1978ko udaberrian

Ene emazteari

Doinua: Betroiarena.

Ene emazteari
nahi nioke kanta,
andre parebagea
benetan da-ta.
Dirudi itsasoko
zilarrezko ur-tanta
edo zero gaineko
urrezko txinparta...
Neskatxa galanta,
hizlari ausarta,
langile aparta,
ia-ia santa...
Neuretzat hartu nuen
neska xarmanta.

Mallorcan, 1978ko abuztuan, ezkon-bidaian

Orreaga

Doinua: Betroiarena.

Nori ez zaio heldu
eztarriz belarri
Iruñean gertatu
denaren berri?
Euskaldunak armatuz
lepo eta gerri
Orreagan zaizkigu
etsaien zain jarri.
Kendua egarri,
odola oinarri,
euskara lokarri,
begira elkarri,
oihuka hasi dira:
“Gora Euskal Herri”.

2 “Entzun gure oihua,
adi, zeru-lurrak,
gure desafioa
mendi-gailurrak:
Badatoz Iruñetik
hiltzaile maltzurak,
etsai basati eta
soldadu lapurrak.
Atozte, zakurrak,
gaizkile makurrak,
zorroztu muturrak,
ez gara beldurrak,
leunduko zaizkizue
bizkarrezurrak!”

3 Isil zaitez, txoria,
isil zeure kanta,
gudu-hotsa hasteko
zorian da-ta.
Harrokeriaz dator
hornitua bata,
besteak itzalean
zorroztu ezpata.
Zirt-zart eta zarta,
hori zalaparta!
Euskaldun ausarta,
borrokari aparta...
Frankoek hartu dute
jipoi galanta!

4 Hori mendi-golkoan
entzun den eztanda!
Nork irabazi duen
denon bistan da.
Etsaiak hor geratu
dira hautsak janda,
beren gorputz-hezurak
lurrari emanda...
Oraingoan txanda
haiena izan da;
mila trago edanda
hor daude etzanda...
Ez zaie erraz ahaztuko
gaurko parranda.

Itsasondon, 1978ko abuztuan

Aian jarriak

Aian bizi ginela jarritako bertsoak dira bigarren ataleko hauek, nahiz eta baden sail bat Zarauzko hondartzan jarria eta ez diren hauek Aian jarritako bertso bakarrak. Horixe dute ezaugarri zortzi bertso-sailek; hori eta estiloz aurrekoak ez bezalakoak izatea. Itzal handia zuen orduan Xabier Amurizaren txapelak. Eta neure bidearen bila nenbilen artean. Baina, Amurizaz gain, bazen beste zenbait bertsolari handi ere.

Manuel Lasarteri

Doinu gozoz kantatzeko.

- 1 Agur Aia herritik,
Lasarte laguna,
presta ezazu bihotza,
badator eguna,
zure omenaldirako
hautatu duguna,
irribarrez jantzia
helduko zaiguna.

- 2 Bihotzaren aginduz
lagunen hizkeran,
esker ona azalduz
zor dizugun eran,
alaitasuna eta
gozoa aukeran,
omenduko zaitugu
San Jose bezperan.

- 3 Hain harrigarria den
bertsolariari
maitasunak eraiki
dio bakoitzari
herriagatik egin
duenaren sari
euskaldun bihotzetan
hainbat oroitarri.

4 Aiarren bihotzetan
zuk ere, Lasarte,
oroitarri bat duzu
bizi garen arte,
hain zara miresgarri,
hain zaitugu maite,
maitemindu gazteak
laguna hainbeste.

5 Hainbat urtez izana
gure bizilagun,
herrikide jatorra,
bihotzeko lagun,
nor bertsolarietan
zu bezain ezagun?
Horra omentzeko zenbat
arrazoi ditugun.

6 Eguna iristean,
hura gure poza,
hemengo alaitasuna
eta txalo-hotsa!
Zure ondoan baino
non gehiago goza?
Eztiz beteko ote
dizugu bihotza!

7 Nahiz esan beharrak
oraindik ez ahitu,
hara erraztasun ezak
pregoia amaitu.
Mingainaren mugarik
bihotzak ez baitu,
berak dakien eran
omenduko zaitu.

Aian, 1979ko martxoaren 6an

Aian, 1979ko martxoaren 18an egin zitzaion ome-
naldia Manuel Lasarteri. Ordurako jarri nituen
bertsoak eta *Zeruko Argian* plazaratu.

Nuklearrez hila

Inorenak nahi ez nituzkeen bertsoak

Doinu tristeaz kantatzeko.

1 Egun haizetsua zen
gure herritik gertu
zentrale nuklear bat
zenean lehertu.
Guztia kiskali zen,
ni errauts bihurtu.
Inork ez zuen nire
zuloa aitzurtu.

2 Erreak ziren denak,
maite eta guraso,
bertsolari hautsia
nork lurretik jaso?
Orain neure herritik
urruti naiz oso.
Haizeak ekarriko
ninduen akaso.

3 Baina nire bertsoek
bizirik diraute,
une batez kantura
eramango naute.
Doinu tristeaz nahi nuke
ingurua bete,
harik eta norbaitek
txanda hartu arte.

- 4 Etengabe jo zuen
hamaika eztarik:
“herriak ez du nahi
indar nuklearrik”.
Baina oihu guztiak
joan ziren alferrik.
Gaur malkoek ez dute
begien beharrik.
- 5 Inork eragin gabe,
denak bat-batean,
din-dan garrasiz omen
tristuraz betean.
Isiltasunik ez da
gure lur maitean.
Hil-ezkilen negarra
nork lotu katean?
- 6 Nahiz ameslariak
bestela sinetsi,
arrain txikiak ezin
handia irentsi.
Berdin gertatuko ote
bihar eta etzi?
Hil-ezkilak oraindik
ez du behintzat etsi.
- 7 Hona hil-hots hautsia,
menditan barrena
oihartzun nekagaitzak
airez dakarrena.
Amaigabeko hileta
gure herriarena,
bertsolariarekin
minez datorrena.

8 Ahaztu naiz ilargiz
eta izarren urrez,
ahaztu eguzkiaren
irribar samurrez.
Hemendik joanak ote
betiko agurrez,
heriotza agirian
uzteko beldurrez?

9 Bertsolaria ere
badoa tristerik.
Ezer ez da geratzen
bertsoa besterik.
Hemen ba ote dago
berriro hasterik,
heriotzaren baitan
bizia pizterik?

Aian, 1979ko irailaren 20an

Gartzelako lagunari

Doinua: *Aita izena.*

Jakingo banu, kantua lagun,
nola zuganaino iritsi
eta belarri ertzera esan
hiruzpalau gauza bitxi!
Nahiz asmorik pozgarrienak
ilunpe hotzak irentsi,
ez dezazula esperantzaren
iturri garbia itxi:
askatasuna lortuko duzu,
bihar ez bada ere etzi.

2 Etxe aurreko erreka
stoa,
ur eta kantaz beterik,
zenbat malkoren iheslekua,
umetan eta gazterik!
Nahiz ezpataz zulatu gabe
ez utzi hezur-hesterik,
ez beltzez jantzi zeure bihotza,
ez jar betiko tristerik:
gertatzen ari zaizuna ez da
amets gaiztoa besterik.

3 Zein estuasun larria izarrak
bere distira galtzean
eta lorea jaio berritan
gaitzak jota usteltzean!
Nahiz ametsak harri bihurtu
gauaren ilun beltzean,
esperantzarik ez zintzilika
etsipenaren iltzean:
gauzak bestela izango dira
egun berria heltzean.

4 Astebetean ezin lezake
zeruak gal bere urdina
ezta itsaso zabalak ere
irriz zetorren uhina.
Nahiz sarritan bihotzeraino
sartu otsoak hagina,
pentsa ez dela lurperatuko
hainbat urtetan egina:
labea ez da itzali eta
ogituko da irina.

5 Eguzki ona ezin daiteke
bihur ez lapur, ez ganster,
lehen bezala ferekatzaile
dabila bazterrik bazter.
Nahiz argia iluna egin
behin eta mila bider,
zabal bihotza eta ez ahantz
kanpoko hainbat gauza eder:
denok amesten ari garena
egia izango da laster.

6 Zeru gainean beso-zabalik
dago gauez ilargia,
hodei gaiztoek ezin diote
estali aurpegi garbia.
Nahiz gaur zauden zulo hortatik
ihesi pasa argia,
ez ditzazula zeure pausoak
bide hitsetik abia:
goiz batez hemen egingo digu
askatasunak habia.

7 Ibaiak gozo eta ederrez
jazten du bere ibarra
eta itsasoak hondar ertzean
uzten zilarrezko aparra.
Nahiz gainean eduki noiznahi
arranoen atzaparra,
ez zulo hortan utz hain zeurea
izan duzun irribarra:
burdinik gabe jaikiko dira
hegoa eta iparra.

8 Ikusgarria baso-mendiko
zuhaitz tenteen balantza,
hostoak ere ez du ahantzi
askatasunaren dantza.
Nahiz lorea baino gehiago
sentitu bere arantza,
ez dezazula galtzera utzi,
arren, zeure esperantza:
gau mingarria hartzen ari da
egunsentiaren antza.

Gartzelan sartu berria zuten
Mari Jose Amundaraini jarriak.
Aian, 1980.03.07

Joxe Ramon Ansa

Doinua: *Lagundurikak danot.*

1 Iazko maiatzak sei,
bai egun samina,
argitu baino lehen
gauak desegina!
Urtea pasa dela
sinestu ezina,
hain da berria oraindik
orduko sumina...
Bertsoz hustuko banu
bihotzeko mina!

2 Jai-giroan genuen
larunbata agurtu,
artean ez zitzaigun
jolasgura agortu.
Baina igande-goizean,
bere etxetik gertu,
Joxe Ramon gaztea
hila zen agertu.
Odoletan zituzten
santakruzak lehertu.

3 Basapiztiek, utziz
ohizko habiak,
gau beltzera zuzendu
zituzten begiak.
Zenbat negar zekarren
hilketa larriak!
Hiltzailearen berri
badaki ilargiak,
baita ere loak hartu
ez duen herriak.

4 Eguerdian entzun zen
hil-kanpaien hotsa,
gure negarra eta
etsaiaren poza.
Hura heriotzaren
ezpata zorrotza,
ustekabea bezain
gaizto eta arrotza!
Oraindik odoletan
daukat nik bihotza.

5 Astelehena izan zen
hileta-eguna,
andoaindarroi nekez
ahaztuko zaiguna.
Nahigabean agurtu
genuen laguna,
beti geure gogoan
izango duguna:
adio, Joxe Ramon,
gazte euskalduna!

6 Han zenuen herria
kalez kale minez,
zure hiltzailearen
salaketa eginez,
begiak triste eta
odola irakinez,
hark merezi bezala
erantzun ezinez...
Bihotzak sufrimenduz
egin zigun gainez.

7 “Euren enbidoari
ezin jo hordago.
Ez ote gara gero
eta morroiago?”
Negar-ontzitik edan
nuen mila trago,
tristura ezin zitzaidan
sartu barruago.
Oraindik neure onera
etortzeko nago.

8 Zu gabe geratzean,
bai une gazia!,
esperantzaren bila
ninduzun hasia.
Heriotza ba ote
zerbaiten hazia?
Galdera joan zitzaidan
malkotan nahasia.
Inork ez du itoko
zure garrasia.

9 Gauak hartuko ahal du
egunaren antza
eta kanpaiak joko
askatasun-dantza!
Andoaindarrok behintzat
badugu esperantza
noizbait jaiez jantziko
zaigula enparantza...
Han izango zaitugu,
Joxe Ramon Ansa.

Aian, 1980ko apirilean

Igandea zen: 1979ko maiatzaren 6a. Santakruz
jaiak ziren Andoainen. Eguerdian jo zituzten hil-
-kanpaiak. Ahoz aho zebilen berria: Joxe Ramon
Ansa gaztea zela hila; berehala zabaldu zen sus-
moa ere, gero baieztatua: *Batallón vasco-español*-
ekoek hil zutela.

Egun hartakoa dut honako bertso hau, Andoainen
bertan jarria:

Berriro odoletan
da euskal baratza,
herio-dardaretan
Andoaingo plaza.
Gorrotoz hil zaituzte,
Joxe Ramon Ansa.
Negarrez hasia naiz
eta ezin lasa.
Hil-ezkilari nola
kendu bere lantza?

Urte bete geroago jarri nuen bertso-sail osoa.

Ongi etorriak, Everestetik zatozten mendizaleak

Doinuak: *Aurtxo txikiak negarrez dago eta Alta izena.*

1
Garaipen-doinuz kantatzekoak dira gaurko bertso-aleak.
Oraingoz beste baterako utz ditzagun negargaleak.
Hona zuen zain beso-zabalik herriak eta kaleak.
Ongi etorriak, Everestetik zatozten mendizaleak.

2
Berria heldu zitzaigunean haize azkarraren besotan,
alaitasuna nagusitu zen hainbat herri eta auzotan.
Egun hartako barruko poza lehertu zitzaidan bertsoan,
geroztik neure gogoan ondo gorde ditudan hitzotan:

3
Euskal Herria txaloz lehertu da,
hauxe sekulako festa!
Sentitzen dugun poz-dardara hau
kenduko digunik ez da.
Nork isilduko zoramenean
jotzen ari den orkestra?
Atzo negarrez zegoena ere
oraintxe irribarrez da,
gaurko egunez igo baikara
euskaldunok Everestara.

4

Hau mendiaren ederra eta
garaipenaren gozoa!
Amildegian geratu dituk
ekaitza eta lausoa.
Nahiko kostata izanda ere,
eman diagu pausoa:
gailurretan den gailurrenean,
gure ikurrina jaso.
Zuen kordadan igo duk, Martin,
gaur Euskal Herri osoa.

5

Hainbat eta hainbat menditan zehar
utzita bihotz-hestek,
zer zoriona ematen duen
Everestera iristek!
Euskal Herria jaiez jantzi da,
pozkidaz begi tristeak.
Elkar ditzagun geure indarrak,
zaharrak eta gazteak,
garaipen hori lortu da eta
lortuko dira besteak.

6

Guztia ezin adierazi hemengo bertso kamutsez,
herria nola bete zenuten esperantza eta pozez.
Egun hartako giroak iraun dezala denbora luzez.
Egin duzuen guztiagatik eskerrik asko bihotzez.

7

Tontorreraino doan bidea ez izan arren hain laua,
hautsi zenuten beti galtzaile jartzen gaituen araua.
Egunsentiak urratuko du hainbat urtetako gaua.
Beti gogoan izango dugu maiatzaren hamalaua.

Aian, 1980ko maiatzean

Xenpelar sariaren galdez

Doinua: *Pasaiako herritik dator notizia*, Mikel Laboak kantatzen duen eran, hots berezi eta guzti.

- 1 Bertso-arlotik dator
gaurko notizia.
Oraindik maite al du
inork justizia?
Eskutatik kendua
edo ihesia
Xenpelar izeneko
sari berezia.
- 2 Baldin norbaitek balu
sari horren berri,
adieraz dezala
argi eta garbi.
Ezer ez entzuteak,
ez urdin, ez gorri,
aspaldi susmo txarrak
zizkidan ekarri.
- 3 Orain dela bi urte
saria erabaki,
baina ez zuten eman,
bidezko izaki.
Iaz, berriz, jarri ez,
dirua aitzaki.
Non zaude, ez hileta
eta ez adabaki?

- 4 Hara zer gertatu zen
dirurik ezean:
aizkora sartu zuten
arbola hezean.
Gaur baztertuta dago
bide estu ertzean,
nor gupituko den zain
handik pasatzean.
- 5 Non ote dira orain
haren gurasoak?
Non, errukirik izan
ez zuten besoak?
Beti behartsuentzat
dira erasoak!
Hainbeste hurrupatzen
al zuen gaixoak?
- 6 Orain bi urtekoa,
eginak hor daude,
merke irten zitzaien,
erabat debalde.
Neu izendatu arren
sariaren jabe,
hemen nago oraindik
eskuratu gabe.
- 7 Auskalo zenbateko
saria izango zen,
zenbat milaka duro
nigana zetozen!
Baina nonbait galduak,
agian Burgosen.
Ez dakit nondik hasi
panderoa jotzen.

- 8 Norbaitek behintzat ondo
jo digu adarra:
ez sari eta ez diru,
tratalari azkarra.
Lehen kontzientzietan
ba omen zen harra.
Gaur hura ere hila,
hau martxa kaskarra!
- 9 Dirua eta saria,
harra eta bihotza,
alde guztietatik
galduaren hotsa.
Laster hustuko dute
kulturaren poltsa.
Zintzarri beharrean
askotxoren lotsa!
- 10 Non ote da dirua,
non ote da harra?
Non, Xenpelar saria
berpizteko indarra?
Non, emandako hitza
betetzeko garra?
Bada zenbait golkotan
zerbaiten beharra!
- 11 Ulertzeko ez da behar
hainbeste adimen:
mundu honetako zorrak
ordaintzeko omen.
Ordain itzazue, ba,
zain gaituzue hemen,
guk ordaintzen ditugun
bezalaxe. Amen.

Alan, 1980ko urrian

Mattin, izar berria

edo

Inoiz itzaliko ez den irria

Doinua: Galerianoaren kanta.

- 1 Hura berri samina,
latz eta isila
etorri zitaiguna
ezkilaz ezkila:
Mattin Ahetzekoa
genuela hila
edo agian joana
Xalbadorren bila.

- 2 Geratu ginenean
ai, Mattin, zu gabe,
gaua egin zitzaidan
bihotzaren jabe.
Kezkati hasi nintzen
galde eta galde
irriak betiko egin
ote zigun alde.

- 3 Itsasoari joan
nintzaion galdezka.
Hitz gozoz kendu zidan
bihotzeko kezka:
“Umorea estaliko
duen lurrik ez da,
nonbait jarriko zuen
Mattin horrek festa”.

- 4 Pozez galde egin nion
mendiari orduan:
“Ikusi al duzu Mattin
zeure inguruan?”.
Honela esan zidan
erantzun moduan:
“Festa-hotsa sumatu
nuen bart zeruan”.
- 5 Zeru aldera begira
nintzen gauez jarri
eta ilargia nuen
keinuka igarri.
“Hemen denok dakigu
Mattin horren berri:
izar artean dabil
bertso eta irri”.
- 6 Pozgarri izan zitzaidan
hura jakitea
eta bilatzeari
gogoz ekitea.
Zeru erdian zaude
zu, Mattin maitea,
izar txikia baina
dirdiraz betea.
- 7 Geroztik egunero
iluna heltzean,
zure bila jartzen naiz
gauaren beltzean.
Zerura begiratzen
dudan bakoitzean,
taupaka hasten da irria
nire bihotzean.

8 Ezin gaitzke, beraz,
heriotzaz mintza:
bizirik dugu Mattin,
irriaren giltza;
izarrak berarekin
algaraz dabilta.
Hara gora begira,
triste bazabiltza.

Zarautzen, 1981eko abuztuan

NEGUA

Urtarrila

EL SALVADOR

Doinua: *Mando baten gainean.*

Hona aspaldiko partez
bertsotan jarria,
bihotza pozez eta
kantuz eztarria.
Nahi ordurako ez da
iritsi berria,
gau beltzean izarra
bezain pozgarria:
El Salvadorren ere
garaile herria.

2 Itsasoz bestaldetik
heldu da, alajaina,
herria poztu duen
albiste bikaina:
armiarma-saretan
bizi ziren baina
zomorroari eman
diote ordaina.
Askatasun-bidean
joko ahal dute gaina!

(Eskuz idatzi nituen bertsoak lehenbizi. Gero, makinaz pasa nituenean, honako ohar hau erantsi nien ondoren: "Bertsoak lehenago jaio ziren oraindik ere heldu ez zaigun berria baino".)

JOXE ARREGI,
TORTURAZ HILA

Doinu mingarriz kantatzeko.

1 Hona berriz bihotza
saminez jantzia.
Hau tristuraren beltza,
ezin erantzia!
Beste gazte bat digu
gauak irentsia.
Gainezka dut berriro
nahigabe-ontzia.
Malkotan itotzen zait
gaurko irrintzia.

2 Argia ikusi zuen
bere Zizurkilen,
gauaren beltza, berriz,
piztien Madrilen.
Ondo zekien nondik
norantza zebilen.
Herriak ez du ahaztu
gaitza non dabilen.
Hire arnasa, Joxe,
ez duk inotz hilen!

ANDOAINEN BESTE GAZTE BAT HILA

Doinu triste z kantatzeko.

Zer egin ote duzu
ai, ene Andoain,
heriotza berri bat
jasateko orain?
Buruntza odolez dago,
negarrez Belkoain,
ikara-dardaretan
makina bat ezpain.
Nork jarri ote dizu
otso beltza artzain?

2 Bihotzeko Andoain,
bertso hau adizu:
hil-kanpaien burdinez
ezpata egizu.
Etsaia indartsua da,
baina ez zaitez izu.
Geroaren berri nik
adina dakizu:
noizbait askatasunak
argi egingo dizu.

UDABERRIA

Apirila

ERREALA TXAPELDUN

Doinua: *Aita izena.*

Ez gara beti izango haizeak
astintzen duen horbela,
ezta gurea ere sekula
bukatuko ez den gaubela.
Egunen batez, hotza joan eta
heltzen denean epela,
pozaren pozez jantzi ondoren
herri askatuen txapela,
dzangada luzez hustuko dugu
zorionaren upela.

Maiatza

IRLANDARA BEGIRA

Doinua: *Aita izena.*

Euskal Herritik duzu kantari
bertsolaria, Irlanda,
bihotzondoan lehertu zaigu
zure gazteen eztanda.
Esperantzaren argi ezkutua
aurkitzen guretzat lan da,
baina ez etsi, helduko baita
herri zanpatuon txanda,
ezin daiteke betikoa izan
handi-mandien parranda.

TRISTE

Doinu tristez.

Heriotzaren bide ilunetik
sartu ninduten gazterik,
irri gozoa lapurtu eta
utzi betiko tristerik.
Gorputz barruan ez zait geratzen
mindu gabeko hesterik.
Nire bihotzak ezin dezake
egin negarra besterik.

2 Galerazia dugu euskaldunok
gizon bezala ibiltzea,
gure eskubide bakarrak dira
ikusi eta isiltzea.
Bihotz barruan sartu digute
zoritxarraren iltzea.
Gauzak horrela direnez gero,
ez al da hobe hiltzea?

UDA

Uztaila

MATTIN HIL ZAIGU

Doinua: Galerianoaren kantarena.

Mattin, joan zinenean
bizi bezain isil,
minez utzi gintuzun,
mutu eta zurbil.
Baina zure irria
ezin daiteke hil:
gure bihotz barnean
gaur taupaka dabil.

Abuztua

JAIOTEGUNEZ

Jaiotegunez bota gintuzen
heriotzaren gurdira,
geroztik gure egun gehienak
mingarriak izan dira.
Nahiz aldian behinka ikusi
izar garbien dirdira,
gainean dugun itzal tristea
ezin bota urrutira.

2 Eguneroko bizimoduak
dizkigu pozak xurgatu,
begiak argiz hustu ondoren
hesteak atximurkatu.
Bertsotan egin beharko aurka,
nahiz eztarria urratu.
Kantuz ez bada, nola arraio
ditugun penak urkatu?

Iraila

IMANOL BERRIATUA HIL ISRAELen

Doinua: *Alta izena.*

Mendi garaian haitz gorriari
ura bizirik dario,
maldan behera itsasoraino
doa, zer erremedio.
Heriotzaren aurrean hitzek
ez dute ezer balio.
Esperantzaren beso bortitzek
erasoko ahal dio.
Hoa, Imanol adiskidea,
mila esker eta adio.

UDAZKENA

Urria

JAUREGI ETA "GOGOR" HIL

Doinua: *Dozena bat bertso berri.*

1 Beste bi gazte gudari
dizkigu lurrak estali.
Euskal Herriko hilkanpai-hotsa
ari eta ari.
Nahiz metrailaz kiskali
ta ilunpera bidali,
etsaiak ezin ditzake gure
izarrak itzali.

2 Heriotzaz heriotza,
ihesi joan zaigu poza;
irria ere gure ezpainetan
gertatzen da arrotza.
Hau ezpataren zorrotza!
Zorionaz ezin goza.
Aspaldidanik erdibitua
daukagu bihotza.

SENTIMENDUA

- 1 Sentimendua dut bihotzean,
buruan jakinduria,
zainetan odol beroa eta
nonnahi umore gorria.
Horien bidez osatzen dut nik
neure bertsozko euria,
begiak irriz apainduz eta
xukatuz malko-isuria.

- 2 Zenbat alditan didan barruak
bertsoz hastea agindu,
horien bidez ditzadan gure
pena-tristurak arindu.
Kantuz egiten ez duen batek
bihotz-erraietan min du,
irria ihes joango zaio
eta bereak egin du.

Abendua

GAUAREN ILUNETIK

Gauaren ilunetik
goizaren argira
oraindik egun asko
geratzen baitira,
bertsoz jarraitu behar
mundura begira.
Ai, hitzok norbaitentzat
izarrak balira!

1984

Bi urte luze iraun zuen isiltasunak: 1981eko abendutik 1984ko otsailera arte. Debaldeko festa bertso-saioa eratu zuen orduan Euskadi Irratiak, eta saio horretan bertso jarrientzako sariketa ipini astez aste. Ordukoak dira, hain zuzen, hirugarren atal honetako bertso-sail gehienak: Torizu eskua eta Euskal Herria 1984 ez beste guztiak. Baina hauek ere 1984an ipiniak dira, sariketa batzuetarako; eta, beste bederatziek bezala, emandakoa zuten gaia.

Baina beste hirugarren bereizgarri bat ere badute hirugarren sail honetako bertso guztiek: ondorengo urteetako bertsoen oinarri direla. Oinarri eta hazi, hazi eta hasikin. Hain hasikin ere! Bai baita, 1984an jarria izanagatik, laugarren atalerako utzi dugun bertso-sailik ere.

Doinua: *Denbora, leku, zeru ta lurrak.*

1 “Badator mila bederatzirehun
eta larogeita laua”,
aurrez esaten hasi zitzaigun
luzatzen ari zen gaua.
Urte zaharrak ez digu hautsi
bere aurrekoen araua.
Berriarekin bukatuko da
azken aldiko baraua.

2 Azken urteak ez dira izan
gozoak eta eztiak.
Arrasto beltzak utzita joan
zaizkigu ia guztiak.
Ametsez amets ikusi ditut
zenbaiten begi bustiak:
egun hoberik ekarriko du
urte berriko eguzkiak.

3 Udazkenetan gure zuhaitzek
beren hostoak galtzean,
bihotz gaztea oihuka hasten da
gauaren ilun beltzean:
malko gehiago ez da kabitzen
Euskal Herriko eltzean;
gauzak bestela izango dira
urte berria heltzean.

- 4 Noizbait heldu zen gure mendeko
larogeita laugarrena.
Ziztu bizian aurrera goaz
bere asteetan barrena.
Gertatu dena ikusi eta
kezkatan daukat barrena:
berri hau ere ez ote dugun
besteak bezain herrena.
- 5 Itxaropenak gazte bihurtzen
zaizkigu urteberritan,
bake-asmoak, berriz, bizkortzen
munduko zenbait herritan.
Baina segidan ditugu denak
gerra aurreko erritan.
Gure usteak ustel samarrak
gertatzen dira sarritan.
- 6 Negarrez doaz aste guztiak,
nola bata hala bestea.
Ia erabat zapuztu zaigu
hasierako ustea.
Ez da erraza gertatzen gero
hemen goiari eustea,
gu gaudeneko tunel luzean
irteera ikustea.
- 7 Hau ere laster joango zaigu
aurreko denak bezala,
zimurragoa utzi ondoren
gure kopetako azala.
Gauza bakarra eskatzen dizut,
urte gazte zerbitzala:
zure amaierak sansilbestretan
zutik harrapa gaitzala.

8 Gure egunak luzatu nahirik
ari gara otoitzean.
A zer dardara urtezahar-gaua
etortzen den bakoitzean!
Halako batez, nire bizitzak
azken arratsa jotzean,
euskal taupada entzun nahi nuke
herriaren bihotzean.

Aian, 1984ko otsailaren 3an

Euskal Telebista

Doinua: Galerianoaren kantarena.

1 Gure etxean bazen
leiho bat laiotza.
Handik sartzen zitzaigun
erdal haize hotza.
Behin ezagutu nuen
beroaren poza.
Geroztik alaiago
daukagu bihotza.

2 Gogoan dut iazko
urteberri eguna,
leihoa egutera
bihurtu ziguna.
Txoria ere han zen,
kantari kutuna,
geroztik egunero
etortzen zaiguna.

3 Eguzkia heltzean
txori eta guzti,
zenbat begi ote zen
malko gozoz busti?
Sarritan hurbiltzen naiz
leihora amesti.
Pozik paseak ditut
hainbat ordu ezti.

4 Hona ere heldu zen
eguzki gozoa.
Berea ez da izan
bide erosoia.
Noizbait epelduko du
gure etxe osoa.
Zerbaiten beharrean
zegoen gaixoa.

5 Gure etxean bada
beste zenbait leiho
eguzkirik gabea,
baina, zer arraioi!,
sail horri ere goiza
etorriko zaio.
Gau zitala badoa
iluna garraio.

6 Goiza helduko zaigu
halako batean.
Eguzki iheskorra
nork lotu katean?
Itzalak gauarekin
urrun joatean,
hotzik ez da izango
etxeko atean.

7 Agur eta goraintzi,
leiho pozgarria,
eguzki zaharraren
egoitza berria.
Zu zaitugu poz- eta
amets-iturria,
etxeak behar zuen
gozo-oinarria.

Aian, 1984ko otsailaren 11n

Txallengeraren atzetik

Doinua: *Anaiak gara lapurditarrak.*

1 Txallengerrari esker bete dut
aspaldiko amets zaharra:
espaziora etorria naiz,
utziz gure mundutzarra.
Baina gutxien uste denean
hel daiteke zoritxarra:
sateliteak galdu ditugu,
ihes joan da indarra,
beso bat ere hondatu eta
gelditzen zaigu bakarra.
Kanpora irten beharra
zen nire eginbeharra.
Ontzitik salto egin dut eta
hemen noa zirri-zarra...
Orain ez dakit nola isildu
bihotzaren deiadarra.

2 Mundua aise utzi genuen,
baina hemen harez gero
zoritxarraren itzala dugu
lagun izan egunero.
Gertatu dena gertatu eta
ezin gauza onik espero,
ustekabea etor daiteke
berriz orain edo gero.
Noan bezala joan beharra
ez da atsegina gero!
Ilun ipar eta hego,
ez lokarri eta ez hego.
Nahiago nuke bidaia hau ere
bere amaieran balego.
Nor etorriko ote zait bila,
ontzia galdu ezkerro?

3 Teknikarekin ere inolaz
ezin badaiteke fio,
zertara dator hainbat erronka
eta zenbait desafio?
Nagoen trantze honetan hitzek
ez dute asko balio;
bihotz barneko leize beltzari
estuasuna dario.
“Ontzi maitea, gogoan izan,
ez dizut esan adio;
ibili zaitez serio;
arren, ez urrundu” dio.
“Kanpo honetan bete ondoren
behar adina misio,
zure altzoak jaso nazala;
ez dut besterik desio”.

4 Oraindik ere ez dugu nonbait
geure ingurua hezi.
Gainditu gabe ditugu zenbait
traba, muga eta hesi.
“Ontzi maitea, bihotz barnetik
egiten dizut garrasi:
morroi txiki hau hemen utzita
ez zaitez joan ihesi.
Berriro zure leihatilatik
nahi dut mundua ikusi;
bere itzal eta guzi
ez dago horren itsusi.
Haren altzoan sortu nintzen ta
haren baitan nahi dut bizi,
neure etxekoen poza dudala
gidari eta nagusi”.

Aian, 1984ko otsailaren 18an

Ihauterietan

Doinua: *Aitzak, t. mutil matñontzi.*

1 Ihauterietan gaude,
jai-giroan hainbat talde;
nire burua ez dago, ordea,
maskaraden alde.
Bihotz gazteak, bestalde,
“zergatik ez”, dio galde.
Biak erritan ditut gau t’egun
goiz eta arratsalde.

2 Burua eta bihotza,
hauxe bikote arrotza!
Nola isildu gorren arteko
eztabaida-hotsa?
Bata sakon eta hotza,
bestea mingain-zorrotza.
Bi kaiku hauen borrokaldia
ezin izan motza.

Burua: Ihauteri-jaien mende
ikusten dut zenbait jende;
ezin ote da festarik egin
maskaratu gabe?
Ohiturak jaun eta jabe
izan dira mendez mende;
horiek ere noizbait aldatu
beharrean gaude.

Bihotza: Nahikoa dugu, ez segi,
hitz egin duzu gehiegi;
ihauteriak disfrazik gabe
ez dira ihauteri.
Lotsati zara ageri,
memoriaz oso eri;
maskaratzeko duzun beldurra
ez ezkuta niri.

Bur: Ihauterietan zehar
errespetoa hiltzear,
zorakeriak bidea zabal,
lotsak, berriz, mehar;
gero hamaika ezbehar
etorritakoan negar.
Gizalegeak ez luke inoiz
jairik izan behar.

Bih: Zer lege eta zer arau!,
horrek gutxi kezkatzen nau;
lehen ere triste pasa ditugu
nork daki zenbat gau.
Jaiak datoz eta riau,
gero egingo dugu barau;
nolabait poztu beharra dago
bizitza ilun hau.

Bur: Gozo bila hainbat izaki
dabilela nork ez daki?;
kontuz, ordea, odol beroak
su gabe diraki.
Grina gaiztoei jarraiki,
ihauteriak aitzaki,
basapiztiak izango dute
makina bat jaki.

Bih: Zure arrazoi-jokoak,
gutxi gorabeherakoak;
nola kontsola minez beteta
ditugun golkoak?
Xuka ditzagun malkoak,
alaitu kale-txokoak...
Orain diberti gaitezen eta
gero gerokoak.

9 Bien arteko solasa
ez da izan gero jolasa:
bihotza pronto jazteko eta
zeharo kapaza;
buruak nahiago pasa
ez maskara, ez disfraz...
Erabakia zuzen hartzea
ez dago erraza.

Aian, 1984ko otsailaren 24an

Itsasoko negarra

Doinua: Hamalau heriotzena.

Zure golkotik dator,
itsaso zaharra,
bertso hauek jartzera
naraman negarra.
Herri osoan entzun
dugu deiadarra:
berriz ere gertatu
dela ezbeharra.
Noiz arte doinu tristez
aritu beharra?

2 Doinu tristez ez bada,
nolatan aritu?
Marinelak metrailaz
dituzte zauritu.
Gerra-hotsa genuen
dardaraz aditu:
“onean ezin bada,
txarrean gelditu”.
Handiak horrelako
arrazoiak ditu.

- 3 Bi ontzi dira zure
uretan barrena
obeditu ez dutenak
frantsesen ordena.
Hasieran metraila,
obusak hurrena;
sei marinel zauritu,
bat utzi herrena...
Ez da lasai egongo
zenbaiten barrena.
- 4 Minez utzi dituzte
marinel gazteak,
ontzi bat zulatuta,
ikaraz hesteak.
“Burgoa Mendi”k eman
ditu albisteak,
“Valle de Achondo”ko
garrasi tristeak...
Lanak emango ditu
konpontzen hasteak.
- 5 Arrantzale gazteak
estu eta larri.
Notizia oraindik
dabil herriz herri.
Juizioa ere
diete ezarri...
Ez dizut galdetu nahi
errudunen berri,
baizik nor geratu den
betiko elbarri.

6 Hanka galdua duzun
gazte portugesa,
zu bakarrik zaitugu
honetan jueza.
Lan bila ibilia
zara erromesa,
zer aurkituko eta
betiko ondoeza...
Epairik nahi duenak
negarra entzun beza.

7 Negarraren mintzoa
bai epai zorrotza,
urrun ez bada behintzat
gizonaren lotsa.
Kresalak ekarri dit
zure zotin-hotsa,
haren konpasean dut
taupaka bihotza,
kendu ezinik neure
bertsoen mingotsa.

8 Zaurituta geratu
zaren marinela,
egia al da bakarrik
utzi zintuztela?
Uste nuen gizonok
gehiago ginela,
laguna kontsolatzen
bagenekiela.
Berriz ere usteak
erdia ustela.

9 Besoak zabal ditu
gure Kantauriak,
marinel portugesak
malkotan begiak.
Helduko da ekaitza,
helduko euriak,
noizbait moztuko ote
gau luzeegiak?
Badira inoiz ixten
ez diren zauriak.

10 Zure golkora doa,
itsaso kutuna,
nire bertso minduen
jario astuna.
Zeinek goza lezake
marinel urruna,
Ondarroan negarrez
dagoen laguna?
Zeuk kontsolatu behar
geuk ezin duguna.

Aian, 1984ko martxoaren 22an

Bertso berriak, parranda-gau batez jarriak

Doinua: Bizkaiko txerriarena.

1 Bapo afaldu eta
dinbili-danbala,
kotxera iritsi naiz
nola edo hala.
Ertzainak gelditu nau
etxera noala:
alkohol-froga egin
beharko dudala...
Gauaren ilun beltzak
anpara nazala.

2 Entzutekoak ziren
lagunaren txantxak,
kontuz apartatzeko
angulen arantzak.
“Motel, beldurrik gabe
jan eta edan zak,
ez hau izutu behar
geroko balantzak”.
Horrelakorik ez du
aditzen Ertzantzak.

3 “Zertara etorri haiz
hain gogo txarreko?,
ez ote duk ba puru
txiki hau erreko?”.
Argi urdin horrekin
kolore berdeko,
ez naute harrapatu
planta ederreko.
Norbaitek merezi du
zenbait bizkarreko.

4 Afariko laguna
urruti da baina
nahiago nuke hemen
balu bizkargaina.
Nolako bekatua,
halako ordaina,
begiekin esaten
ari zait ertzaina,
ederki ozpinduko
zaidala txanpaina.

5 Batak “putz egin” eta
“haize eman” besteak,
euskara ikasian
bi ertzain gazteak.
Multaren beldur ditut
dardaraz esteak.
Arrazoi du berriro
nire emazteak:
onik ez dakarrela
parrandan hasteak.

6 Beste erremediorik
ez baldin badago,
globoa puztutzeko
prest jarria nago.
Hemen dut multa gero
eta gertuago.
Garizuma osoko
parrandak akabo:
“penitentzia egin
beharrean nago”.

7 Aldian behin gertatu
dela miraria,
jakinaren gainean
da bertsolaria.
Egizu nire alde,
Noe zaindaria,
nork ordaindu behar du
bestela saria?
Gaurkoa ez dadila
azken afaria.

Aian, 1984ko apirilaren 4an

Torizu eskua

Gazteriaren irtenbidea

Doinua: Hamalau heriotzena.

1 Etxera nentorrela,
nekatuegiak
ikusit ditut galdez
zenbaiten begiak.
Zer irtenbide duen
gure gazteriak,
nolako etorkizuna
gizarte eriak...
Zer erantzun lezake
gaur bertsolariak?

2 Gau erdian jarri naiz
leihotik begira,
eguzkia jaiotzen
deneko mendira.
Galdera bihotzean
jira eta bira,
zeruaren gainean
izarren distira...
Egun gozoagoak
etorriko dira.

3 Geroak sortzen digu
askori zalantza,
bihotzeraino sartzen
sarritan arantza.
Noizbait loratuko da
gure esperantza
eta martxan hasiko
askatasun-dantza...
Gaua hartzen ari da
egunaren antza.

4 Hona hemen dardaraz
nire erantzuna,
gauaren isilean
izarrei entzuna.
Geroak jaso beza
honen oihartzuna:
gazteak berezkoa
du etorkizuna...
Ez ahal da gailenduko
gaiztoen lizuna!

5 Gazteria batetik,
bestetik herri hau,
akuilu bikoitz horrek
kezkatan jartzen nau.
Historiak apurtu
ditu hainbat arau,
bi eta bi ez dira
gertatu beti lau...
Goizik gabe geratu
izan da zenbait gau.

6 Sarri izaten dugu
duda agintari,
nork ez du etsipena
barnean nabari?
Baina gaurko honetan,
izarrak gidari,
lekua utzi diot
itxaropenari...
Gauaren babesean
ari naiz kantari.

7 Geroaren beldurrez
zaitugun gaztea,
guztioi dagokigu
goiari eustea.
Ez zaigu bidezkoa
negarrez hastea,
orain egin beharra
biharko uztea...
Erabat ustela da
alferren ustea.

8 Orainaldian duzu
geroaren giltza,
mirarien atzetik
alferrik zabilta.
Hazi txikian dago
gordea zuhaitza,
neguaren golkoan
udaren emaitza...
Hutsetik zerbait sortzen
hain da gauza gaitza.

9 Lehenaldia dugu
gehienetan maisu.
Zeure etorkizuna
garaiz presta ezazu.
Atea esku-hutsik
jotzen badiozu,
gero aurrerantzean
jai izango duzu...
Axolagabe izana
damutuko zaizu.

10 Honekin bukatzen dut,
gazte adiskidea.
Lagun zaitut kezkatan,
lanean kidea.
Ibiliz egin ohi da
gaur arte bidea.
Ihardunean daukazu
zeure irtenbidea...
Eskurik behar bada,
torizu nirea.

Aian, 1984ko apirilean
Aipamen berezia, IV. Etxagiña bertsopaper-lehiaketan

Bertso berriak, kendu zidaten goardasolari jarriak

Doinua: Xabier Letek *Gizon arruntaren koplak*
kantatzen erabiltzen duen trikiti-doinua.

1 Mi-la-la-la-si-do-do,
la-la-si-la-sol-la,
behin batez galdu nuen
neure goardasola;
txokoan gelditu zen
ura zeriola...
Norbaitek kendu zidan;
esango dut nola.

2 Guztia gertatu zen
afari batean,
denak adiskideak
ginen elkartean;
inuxente samarra
bainintzen artean,
Judasen bat izango
genuen tartean.

3 Euria ari zuen
eta ez hain ezti,
afaltzera joan nintzen
aterki ta guzti,
hobe nuela neure
burua ez busti...
Despedida atera
zitzaidan garesti.

4 Atarian uzteko
aterki bipila,
ez zen txikia hango
goardasola-pila;
gero joan nintzenean
neurearen bila,
zer aurkituko eta
ordezko zirpila.

5 Txokoan utzi nuen
ziri eta kirten,
haren berri gehiagok
ere bazekiten;
berriarekin sartu,
zaharrarekin irten,
Zumarragan sortu da
zenbait lapur kirten.

6 Zaharra utzi zidaten
berriaren truke,
artean espetxean
zegoen El Lute;
egun hartan lapurra
salatu balute,
bere izena hemen
aurkituko luke.

Aian, 1984ko maiatzaren 4an

Bertso berriak, txerrien defentsan jarriak

Doinua: Bizkaiko txerriarena.

Bertsoak idazteko
txerrien defentsan
Euskadi Irratitik
omen dute esan.
Bertsolari ernea
ezin lotan etzan,
batzuk jarri beharko
doinu gazi-gezan,
ordaina odolkitan
beregana dezan.

2 Gaurko honetan larri
da bertsolaria,
zuritzen ere hasi
zaio aurpegia.
Ez daki nola estali
gauza nabaria,
nola gezur bihurtu
betiko egia...
Txerriak berezkoa
du txerrikeria.

3 Txerria hortxe dabil
zikina garraio,
txerria baitzen mundu
honetara jaio.
Hori du berezkoa,
eta zer arraio!,
bakoitzari berea
eman behar zaio:
gora hainbat eta hainbat
kurrinkari iaio.

4 Gora txerria eta
aupa txerrikiak,
urdai, urdaiazpiko
eta odolkiak!
Zer dela-ta zimurtu
gure bekokiak,
hain dira animalia
gozo-egokiak...
Ederki daki nire
eliz parrokiak.

5 Ez nintzen bertan baina
entzuna dut sarri
apaiz batek zuela
eredutzat jarri.
Jakin nahiko bazenu
guzti horren berri,
galdetu Andoaingo
zenbait eliztarri.
Txerria dena baita
aprobetxagarri.

6 Hona bi hankakoa
laukoaren alde
propaganda egiten
dale eta dale.
Zergatik ihardun dudan
alferrik ez galde,
eragin didatenak
irratian daude.
Behartuta aritu naiz,
gainera debalde.

7 Hementxe bukatzen dut
larri eta zikin
kiratsa ere darion
bertso-sail honekin.
Norbait ez baldin bada
konforme nirekin,
papera hartu eta
badaki zer egin.
Ea zorte hobea
duen txerriekin.

Aian, 1984ko ekainaren 20an

Debaldeko festa

Doinua: Xabier Letek *Gizon arruntaren koplak*
kantatzen erabiltzen duen trikiti-doinua.

- 1 Euskadi Irratiak
hainbat bertsozale
dantzan ipini ditu
jo ta ke debalde.
Ni ere hasi nintzen,
gero ezin alde.
Zergatik den horrela
beste bati galde.

- 2 Bertsotan jartzen dute
hor bertsolaria,
liburu-miaketan
bertsozaleria.
Eskerrak gero lanak
baduen saria:
lagunarte-giroan
bertso-afaria.

- 3 Galderak eta gaiak,
hori da koktela,
gainera ezin hustu
bertsoen upela.
Sinestu gero ondo
eratu dutela...
Horko jendea ez da
batere motela.

- 4 Batetik Pello eta
bestetik Joxerra,
Martin ere ez dute
langile alferra.
Irratian ari da
ganadu ederra,
ondo daki astintzen
bere mingain-xerra.
- 5 Mingaina astindu ta
lana jarri bapo,
gero puntuaketan
zenbait epaimahaiko.
Martxan ipini eta
ezin egin planto...
Iraute hutsarekin
egin dute franko.
- 6 Ekarri dute zenbait
istilu ta kezka,
seilutan ere kendu
makina bat pezta.
Horrelakoa dugu
Debaldeko festa.
Kontuak aterata,
hain merkea ez da.
- 7 Eskerrak bukatu den
neke-iturria,
dantzan jarri gintuen
festa bihurria.
Zaharra joan eta
badator berria...
Agur bihotzez eta
ongi etorria!

Aian, 1984ko ekainaren 30ean

Euskal Herria 1984

Doinua: *Denbora, leku, zeru ta lurra.*

1 Negar isila bertso egin zait
esperantzaren labean,
noiz eta mila bederatzirehun
ta larogeita lauean.
Oraindik ere bada izarrik
Euskal Herriko gauean...
Kantak lekurik izan dezake
aurtengo atsekabeen.

2 Bertsorik ezin kanta daiteke
esperantzarik ezean,
negarrak ez du doinurik eta
etsipenaren leizean.
Berriro ere sartu digute
aizkora enbor hezean,
baina ametsak bizirik dirau
geroaren babesean.

3 Urte osoa igaro dugu
oinaze latzez beterik,
Euskal Herrian zail da aurkitzen
mindu gabeko hesterik.
Ez ote dugu geure zauria
behingoz betiko ixterik?
Bertsolariak ezin dezake
bertsoak kanta besterik.

- 4 Egunez egun, jai eta aste,
dihoan urtean zehar,
izan da hainbat istripu larri,
heriotza ta ezbehar.
Zorigaiztoak bidea zabal,
zorionak, berriz, mehar...
Ardo gozoa mintzen hasteko
ez da oker handirik behar.
- 5 Hamaika azti jarri zitzaigun
gauden urtera begira.
Ai, egindako amenazuak
denak gertatu balira!
“Datozen egun beldurgarriak
gogorak izango dira:
hurrek irria galduko dute,
izarrek beren distira”.
- 6 “Herriak ez du asko iraungo,
badatorchio azkena,
eginahalak eginda ere,
atzeratuko ez dena.
Bihotzeraino sartu diote
heriotzaren eztena...
Negu beltzaren ataria da
bizi duen udazkena”.
- 7 Herri txikia dugu geurea,
bi herri handiren jaki.
Hamaika puska kendu digute
berdintasuna aitzaki.
Arrain gizena beti goseak,
argala, berriz, kezkatu...
Basoan zeinek agintzen duen
haurrak ere ondo daki.

- 8 Nork ez du bere bihotz barnean
entzun hil-etzkenen hotsa,
gure herriaren historiari
darion negar mingotsa?
Hau saminarene samina eta
hau ezpatarene zorrotza...
Ezin ote da inoiz bukatu
herri txikion murrontza?
- 9 Urtea joan, urtea etorri,
eta betiko arantza:
bihotz barnea zulatzen digun
nahi ta ezinarene lantza.
Halako batez hasiko dugu
herri askatuen dantza...
Gau beltza ere hartzen ari da
egunsentiarene antza.
- 10 Bertsoak hemen sinatzen ditut,
zenbait izarren azpian,
larogeita laugarren urteko
abenduarere zazpian.
Sagar gozorik ez dugu bildu
aurten geure sagastian...
Fruitu hoberik izango ahal da
datorrenarene saskian!

Zarautzen, 1984ko abenduarere 7an

**Txukunago ibiltzen da
kostako trena**

Oinarrizko lana egin nuen 1984an. Orduan jarritako bertsoetan dago, neurri handi batean, ondorengoena hazia. Ordukoak dira, hirugarren ataleko bertsoez gain, laugarren honetako lehenengo bi sailak ere, eta bosgarren ataleko bakarren bat. Bertso haietatik joan ziren sortuz ondorengoak; eta bilduz ere bai ustekabeen, doinu baten ardatzean, Txukunago ibiltzen da kostako trena liburuko bertso-sailak bezala.

Izenburu horrekin plazaratu nuen lehen bertso-liburua. Bruño argitaletxean izan zen, bereziki gaztetxoei zuzendutako Ziaboga bilduman. Bederatzi bertso-sail ziren guztira, denak "Betroiarena" doinuaz kantatzeko eginak.

Izenburu hura bera du, hain zuzen, liburu honetako laugarren atal honek ere. Eta beste zazpi bertso-sail ere biltzen ditu, hango bederatzi haiekin batera. Denak dira ezaugarri berekoak: bederatzi puntukoak, nire bizitzako gertaeraren batean oinarrituak, eta estiloz alai, umoretsu, zorrotz eta barregarriak.

Nire kotxea bertsoak idatzi nituen horietatik lehenengo: 1984ko Xenpelar sarirako, hain zuzen. Hirugarren saria jaso zuten bertsoek, eta nik neure anaia gazteenaren oharpena: "horrelako bertsoekin ez duzu inoiz lehenengo saririk irabaziko". Neure buruarekiko desafiotzat hartu nituen anaiaren hitz

haiek: kosta ahala kosta, ahalegin guztiak egingo nituen, bai, bertsokera hura lantzen eta sariak eskuratzen. Orduko giroaren ispilu ziren anaiaren hitzak. Bigarren mailako jotzen ziren umorezko bertsoak, bertso serioen aldean. Zenbat eta gehiago makurtu idatziaren estilora, gainera, hainbat eta gehiago estimatzen ziren bertsoak...

Baina onartua nuen desafioa, eta egina ahozko-tasunaren aldeko apustua. Eta kontuan hartu nuen lagun baten kritika ere: “ez dakizue bertsotan kon-tatzen; bertsoak pilatu besterik ez duzue egiten”. Desafio, apustu eta kritika horri erantzunez jarraitu nuen, “Betroiarena” doinuaren harian, bederatzi puntuko bertsoak lantzen, neure bizitzako pasadizo-ak kontatuz batik-bat.

Hala sortu ziren, banan-banan, atal honetako hamasei bertso-sailak. Hala eskuratu nituen, beste-ak beste, sei lehen sari: lau Basarri sari Zarautzen, Manuel Lekuona sari bat Oiartzunen, eta Zapi-rain anaiak izeneko beste saria Errenterian... Ez dakit, hala ere, ahozko-tasunaren aldeko apustua irabazi ote dugun. Baina hor daude bertsoak, hordago baten lekuko eta egindako bidearen erakusgarri.

Nire kotxea

Doinua: Betroiarena.

1 Gure etxean bada
kotxe berezia,
orain dela sei urte
neuk erosia.
Ikusgarriak dira
bere ahulezia,
zitalkeria eta
jenio bizia.
“Morroi itsusia,
non duk malizia?,
bertsotan hasia
daukak nagusia.
Erabaki beharra
zegok auzia”.

2 “Hirekin izan diat
hamaika oztopo,
hartu ere bai zenbait
belarrondoko.
Zergatik egin ote
genian guk topo,
geroztik ibiltzeko
beti moko? moko?”
Hau hartzeko pronto,
emateko tonto,
lanari gorroto,
aldapetan poto...
Baina ez dit gehiago
adarrrik joko.

3 Joan zaio gaztetako
fanfarroikeria,
hain barrukoa zuen
harrokeria.
Heldu zitzaionetik
daukan miseria,
belarri-makur dabil
gure azeria.
Atzo huskeria,
bihar bateria,
noiznahi aberia...
Hau da loteria!
Ajez beteta daukat
kotxe eria.

4 Berritan bizkor eta
gero ttapa-ttapa,
igo du zenbait malda
eta aldapa.
Orain dena herdoilduta
barren eta txapa,
indar gehienak ere
airean eskapa.
Gaztetan bai txanpa,
gu zeinek harrapa?,
gaur, berriz, axanpa,
aje ta karranpa.
Arrazoi du kartelak:
Ven en tren papá.

5 Barruan ba omen ditu
zazpiren bat zaldi,
antza denez pipiak
joak sei t'erdia.
Hasieran ematen
nuen Fitipaldi,
gaur Domingo Kanpaña
makaldiz makaldi.
Hamaika izerdia
aterata geldi,
gero nola segi
ematen aurpegi?
Jubilatuta behar
zuen aspaldi.

6 Gasolina-ontzitik
makina bat trago
neure kotxe txarrari
emana nago.
Lehen tenientea zen,
orain, berriz, kabo,
laster soldadu hutsa,
azkenik akabo;
ajeen esklabo
egina baitago,
lur jota zeharo,
gero ta okerrago...
Erretiroa hartzeko
hobea dago.

7 Erruz kostatzen zaio
bidean joatea,
ez du oso urruti
errematea.
Arrastaka darabil
tubo eskapea,
olio dariola
beti errapea;
nonnahi derrapea,
uzkerra ta kea,
dardarka atea,
berdin bolantea.
Laster etxetik bota
eta bakea!

8 Zaharra etxetik bota,
berria erosi...,
baina ez dut miloirik
inon ikusi.
Gaurko bizimodua
hain dago itsusi,
zor handitan sartzea
bai al du merezi?
Dirua ihesi,
soldata ezin hazi.
“Aizu, Joxpinixi,
aje eta guzi,
lehengoa konpontzea
hobe dut kasi”.

9 Zaindu beharrean naiz
etxeko morroia,
erdipurdi dabilen
Seat marroia.
Hasteko kontuz kendu
azpiko herdoia,
gero txukun pintatu
barren eta goia.
Baina armazoia,
betiko kartoia.
Xenpelar baskoia,
non duzu bastoia?
Suspertzerik ba al dago
gure betroia?

10 “Edozeini edozer
barkatzeko aina
izan duk beti nire
bihotz bikaina.
Oraingoz salbo dituk
azpi eta gaina,
berritua kanpoa,
barrua apaina.
Jakin ezak baina
Domingo Kanpaña
dela, alajaina!,
hire kapitaina.
Itxuraz ibil adi
kotxe liraina”.

Aian, 1984ko udaberrian
Hirugarren, 1984ko Xenpelar sarian

Mundura jaio nintzen gorputz baten jabe

Doinua: Betroiarena.

Mundura jaio nintzen
gorputz baten jabe,
geroztik hemen nago
horren mirabe.
Pasaraziak dizkit
hamaika nahigabe,
ordainez jaso du
hamabi jarabe.
Hainbat miserere
gazi-gozoa ere
entzun badu ere,
ez dabil hain trebe...
Pozik utziko nuke
bertsorik gabe.

2 Urte larri haietan
jaioagatik, ai!,
beti izan zuen nahiko
esne eta ahi.
Hura zen bizitzea
bapo aste ta jai,
jolasa adiskide,
garbitasuna etsai,
usain txarra noiznahi,
jarioa nonnahi,
hanka artea blai,
pardela ere bai,
estuasuunik gabe,
tralaralalai!

3 Pardela utzi orduko
eskolaz eskola,
izan nuen non zaildu
neure eskola.
Aise ikasi nituen
Gernikako arbola,
cuatro por cinco veinte
eta *Cara al sol-a*;
baita ere nola
arima kontrola,
gorputza kaiola
gertatzen zaiola,
ta ez edukitzeko
preso inola.

4 Neure arima gaixoa
salbatu ustetan,
apaiz batekin hasi
nintzen hizketan.
Parterik ez hartzeko
gizonen festetan,
onik ez dagoela
munduko nahasketan.
Zergatik kezkatan,
ibili hainbestetan,
batzutan neskatan,
lan bila bestetan?
Gorputza fraile nuen
sartu gaztetan.

5 Nola bizitu nintzen
fraile komentuan
ez dago esaterik
bertso-kantuan.
Hamairu urte izan
ziren lur santuan,
gregorianoaren
konpas nekatuan,
gorputza espantuan,
sotana-zakuan,
arima lantuan,
biak bekatuan,
larri samar seigarren
mandamentuan.

6 Komentutik irtenda
haiek iskanbilak!
Soldaduskara joan
behar mutilak.
Han hala esan zidan
teniente zakilak:
alferrik zituztela
kaiku inutilak.
Adio, fusilak,
aireko misilak,
negar-malko isilak
ta txusko-opilak...
Alde onak baditu
gorputz zirpilak.

7 Soldaduskatik libre
eta bihotz-bero,
ezin denbora luzez
iraun soltero.
Ezkonberritan neska,
mutikoa gero,
ta oraindik sasoiko
norbait prest balego:
aukera onik edo
egokituz gero,
listo jo ta fuego
hasteko egunero...
Hain gorputz inutila
ez daukat gero!

8 Hamaika inbidia
emana hainbati,
ondo gobernatua
egon da beti.
Kirofanotik ere,
gaztea izaki,
lau aldiz pasea da
ez beldur, ez zapi:
osasuna aitzaki,
zirti-zarta ebaki;
zenbat adabaki
dituen nork daki?
Odolkitan sartzeko
pronto dut aurki.

9 Hemen gazteena ere
zahartzen da agudo,
gorputz txar honek ez dit
asko iraungo.
Kirola utzi eta
ez footing, ez judo,
hauxe da baldartzea
segundoz segundo!
Ni ez naiz egundo
izango *miss mundo*,
ezta ere inungo
Juan Carlos segundo...
Nire izenik ez da
urrun entzungo.

10 Izena ta gorputza,
a zer-nolako bi!
Bat makal daukat eta
bestea groggy.
Hemen bagoaz denok,
mehe eta lodi,
indultorik ez zaio
etortzen inori.
Oraindik erori
ez den zenbait txori
laster da hilizori,
badakigu hori...
Izango ahal da behar
hainbat hilobi!

Zarautzen, 1984ko udazkenean

Plazako bertsolari

Doinua: Beroiarena.

Bertsolari ninduten
mundura ekarri,
geroztik hemen nabil
bertso-egarri.
Plazak ere tentatu
izan bainau sarri,
behin harako bidean
nintzen ri-rau jarri.
Joatean larri,
estura lokarri,
bertan lotsagarri,
denen barregarri,
ziplo amildu nintzen
buru-belarri.

2 Guztia gertatu zen
abendu partean,
txapelketa bat jarri
zuten batean.
Gazte-saila bildu zen
antzokiko atean,
denak pronto hasteko
bertsoz bat-batean.
Ni ere tartean
nintzen elkartean,
mingaina katean,
dardara betean...
Non eta Xenpelarren
herri maitean.

3 Izena eman genuen
dozenatik gora,
batera aritzeko
gehiegitxo da.
Bitan banatu zuten
bertsolari-proba,
txarrik ez zen pasako
bigarren saiora.
Onak Olinpora,
besteak kanpora;
lepotik lepora
zebilen aizkora.
Ez nintzen lasai joan
patibulora.

4 Xenpelar sariketa
ez zela parranda,
bertsolariok geunden
ondo antzemanda.
Aurrekoek zekiten
gehiena emanda,
goi samar jarri zuten
besteontzat langa.
Azkenean, danba!,
neuri ere txanda
heldu zitzaidan da,
hauxe propaganda!,
han nengoen azkazal
guztiak janda.

5 Txanda etorri eta
ezin erretira,
mikrofonoa ere
nuen begira.
Burua hasi zitzaidan
jira eta bira,
memoria urritzen
hamarretik bira.
“Ai, Santa Elbira,
errimak non dira?,
bultza edo tira,
banoa mendira”.
Ia-ia sartu nintzen
aulki azpira.

6 Mikrofono aldean
hain nintzen berria,
estropozo egin nuen
lau bider ia.
Jendea butaketan
zegoen jarria,
bapo etzanda baina
tente belarria.
Hura zen larria
espantagarria,
mingaina elbarria,
lehorra eztarria...
"Sanmartinetan hiltzen
dela txerria!"

7 Gaia eman zidaten,
neurria ere bai,
berehalaxe nintzen
izerditan blai.
Doinu batekin hasi,
gero ezin jarrai,
beste batera pasa,
harekin ere jai.
Trarala, traralai,
estu baina alai,
hasitakoa, ai!,
bukatu egin nahi.
Puntuak ezin utzi
erdi ezkongai.

8 Agintzen iaioa zen
hango kapataza:
gaia jartzean mix-mix,
puntutan xaxa.
Bakarka nahiz binaka,
itoa arnasa,
luzitzen ez zegoen
batere erraza:
ahotsa eskasa,
neurria lasa,
sarri jo ta pasa;
hura al zen plaza?
Hobeto aritzen naiz
ni neure kasa.

9 Hantxe aritu nintzen
ez buru, ez hanka,
bertso kantari edo
agian zaunka.
Lehenengo puntuan
eztula ta axanpa,
azkenekoan, berriz,
egundoko txanpa;
bitartean tranpa,
betelan galanta,
bertsolari-planta
etxean lagata...
Ez naiz hartaz ahaztuko
sekula santa.

10 Nola bukatu nuen
andreaki galde:
begiak zuri-zuri,
arnasik gabe.
Epaimahaia egin zen
gero hitzaren jabe,
txukun-txukun bereizi
zituen bi talde:
sei onenei bale,
niri, berriz, kale,
ez nintzela Otxalde
ezta ere Larralde,
hobe nuela handik
airean alde.

11 Xenpelar sari handia
nuen amets gozo,
Juxtorena besterik
ez nuen jaso.
Sei onenak hartuko
zituzten akaso,
galoiez hornitzeko
egokiak oso;
haiek animoso,
txapel beltzari so,
gu soldado raso,
ez kopa, ez baso...
Txakur txepel eskasak
mila arkakuso.

12 Probatzekoa bada
plaza delakoa,
ondo probatu nuen,
alajainkoa!
Ez dut ezkutatu nahi
begi bistakoa:
berez izan behar du
Billabonakoa.
Egun hartakoa
hura zartakoa,
hango gorakoa
eta beherakoa!
Behingoarekin egin
nuen nahikoa.

13 Batekin banuela
nahikoa bataio
eta geroztik hari
lotu natzaio.
Zer aritu beharra
eta zer arraio!
Zertarako ibili
ezina garraio?
Plaza-gizon iaio
ez bainintzen jaio,
hobe zenbait saio
utzi eta aio...
Ordaintzen duenari
lotsa zor zaio.

Zarautzen, 1985eko neguan
Lehenengo, I. Basarri sarian, 1985ean

Korrikalari

Doinua: Betroiarena.

1 Barre egin nahi duenak
adi beza adi:
neu ere izana naiz
korrikalari.
Gorputzez baldar samar
eta zangoz nagi,
ez nauzu garindarra,
Pello edo Juan Mari.
Baina, zer ixtori!,
ez al dago ongi
zenbat zilbor lodi
dantzan jartze hori?
Kontatuko dizuet
bertso kantari.

2 Maratoiaren moda
etorri zen eta
denok bihurtu ginen
erdi atleta.
Nik ere harrapatu
bainuen kasketa,
han hasi nintzen footing
egiten herrenka.
Ez bada errenta
motorra erreta
dagoen *Lambretta*
baten konponketa,
sasoiko nengoen ni
ajez beteta!

3 Footing-ean jo ta ke,
buru ta belarri,
egin nuen hamaika
joan-etorri.
Hasiara batean
estu eta larri,
azkenerako nintzen
oilar samar jarri:
“Zer Iruntxiberri
eta zer Paquirri,
onena herorri;
eutsi sasoi horri!
Zergatik ez herriko
jaietan korri?”

4 Halakoren batean
heldu zen eguna,
parranda handi baten
biharamuna.
Diana entzun eta,
hura garizuma!,
nahi orduko ez nuen
topatu komuna.
Buruan lurruna,
hanketan beruna,
soinean iluna
txandal marraduna...
Kalera irten nintzen
gizon txukuna!

5 Ez linimento Sloan
eta ez jarabe,
han nintzen irteeran
gosaldu gabe.
Tiroa entzun eta,
“altza porru, dale!”,
hura zen korritzea
tximistaren pare.
Hasieran aire,
harro kalez kale,
brehala bare,
erruki eskale.
Azkarrago ibiltzen da
zenbait txitxare.

6 Korrikari ekin nion
martxa airosoan,
hala segitzekotan
bide osoan.
Kontuak hasi ziren
bigarren pausoan,
flakiak harrapatu
ninduen lazoan.
Begiak lausoan,
indarrak auzoan,
barea erasoan
zilbor erosoan...,
dortsala bera ere
enbarazoan.

7 Errukarri nindoan
herrian barrena,
garraiatu ezinik
tripa-barrena.
Entzun ere entzun nuen:
“hau astakirtena,
hildakoa zirudik
zulotik irtena”.
Hain zen nabarmena
zangoen herrena,
hanka bat aurrena,
gero bigarrena...
Txukunago ibiltzen da
kostako trena.

8 Izerditan botata
hiruzpalau litro,
pentsatzen jarri nintzen
ni neurekiko:
“Aurretik dituk denak,
neska ta mutiko;
atzetik gehienez bi,
Mertxe eta Juanito.
Laster haiz, txikito,
eztul ta gonbito.
Zertarako ito?
Uztak eta kito.
Nola izan hindekek
hain txoropito?”

9 Kilometro dexente
dira hogeita bost,
etxe parera heltzeko
egin behar bost.
Han amak esan zidan
“nekatuta zatoz”,
emazteak “animo!”,
txalo eta zahatoz.
Baina ni indar motz,
planto erronka joz:
“Zer aupa eta hots,
zer otxo kuartos!
Nahiko korrika egin
diagu gaurkoz”.

10 Egia aitortzea
gauza derrigorra:
ez naiz aireplanua,
ez naiz Concord-a.
Behin aterako eta
sententzi gogorra:
txukunago ibiltzen
omen da mozkorra.
Baina ez izorra,
mekasuen la txorra!,
nahi duenak horra
non duen rekord-a.
Ontzeko ez du behar
oso bizkorra.

Zarautzen, 1986ko udan
Bigarren, II. Basarri sarian, 1986an

Neuk asmatutako neskazahar bati

Doinua: Betrolarena.

I Mundu honetan bada
hamaika gizatxar,
handienetako bat
dago neskazahar.
Atso galanta dugu
ipurdi ta iztar,
bularrak dilin-dalan,
nolako bi pitxar!
Ez zeruko izar,
ez basoko lizar,
ia dena bizkar,
bibote ta bizar...
Finagoa izaten da
zenbait sardinzahar.

2 Bibote eta bizar,
ilaje ta txima,
ezkutu samarrean
dauka arima.
Horren aitak amari,
ama purisima!,
non egin ote zion
gau hartan kilima?
Angela Molina
eskatzeko firma
jarri zuten bina,
baina hau lastima!...
Ez zitzaien, ba, jaio
sor Zelestina!

3 Zelestinatik badu,
mojatik ere bai
eta sarjentu egin
daiteke noiznahi.
Izan ere izan ditu
hamaika senargai,
baina inork ez zuen
maistratzat hartu nahi.
Hasieran ja-jai,
trarala-traralai,
ta azkenean, ai!,
hor dago ezkongai,
mutilzaharren bat edo
noiz gupitu zai.

4 Mutilzaharren bat edo
joango zaiola,
esperantzarik ez du
galdu inola.
Dotore orrazten da,
esango dut nola:
flekilo, permanente
eta karakola.
Atsoen eskola
Semana ta Hola,
irakasle Lola
edo miss Angola...
Moñona askoa dabil
gure pottola.

5 Moñona askoa dabil
gona eta praka
ume koskorretako
mari-matraka.
Beretzat nahiko luke
neskatxaren planta,
baina batean sobre
ta bestean falta.
Ipurdi galanta
lasa daukala-ta,
horren zalaparta,
istilu ta zaunka...
Berriz jaioko balitz,
miss Salamanca.

6 Balitz eta balego,
bageunde, bagina...
Askotxoren ametsa
beti gordina.
Bateko gimnasia,
besteko footinga,
berandu samar dabil
gure poxpolina.
Ez da atsegina
asmo huts egina
edo aseezina
gertatzen den grina.
Nola aingeru bihurtu
atso sorgina?

7 Zer on esan daiteke
horrelako andrez?
Okerragorik ezin
aurkitu errez.
Zakarretik asko du,
gozotik ezer ez,
dena erabiltzen du
iso eta arrez.
Aspertu da haurrez
eta zakur arrez,
nazkatu patarrez,
urre ta zilarrez...
Izenez behar luke
doña Vinagres.

8 Doña Vinagres hori
ondo doakio,
izanari izena
baitagokio.
Batzutan irribarrez,
bestetan serio,
bazter guztiak minduz
hor dabil propio.
Baditu sozio
mila demonio,
ez da horratio
inorekin fio...
Bizarrak ere tente
jartzen zaizkio.

9 Bizarrak tente eta
begirada zorrotz,
gozotasun guztiak
zaizkio arrotz.
Barruko hustasuna
estaltzen du ardoz,
azaleko zimurrak
pomadaren lanbroz.
Zer-nolako garboz
pintatzen den margoz!
Zein itxura harroz
jazten leotardo!
Iztar-motza, ordea,
beti iztar-motz.

10 Gure iztar-motz horrek
mugarritz mugarri
azkeneraino gaitu,
zapla!, ekarri.
Agur, adiskideok,
ume eta larri,
agur, doña Vinagres
Malaletxeberri.
Hamar bertso berri
paperean jarri
dizkizuet argi,
txukun eta garbi...
Guztiok ondo izan
ta agur t'erdi.

Zarautzen, 1987ko udaberrian

Zarauzko hondartzan jarriak

Doinua: Beroiarena.

Kostara etortzen naiz
udan egunero,
txaparro, betaurreko
eta sonbrero.
Hemen denetik dago:
kriskitin, pandero,
danbor, atabal, txistu
eta etxefero.
Hainbeste jenero
ikusita gero,
zeinek ez espero
hamar bertso ero?
Lehenengoa airean
joan da gero!

2 Denetik dago hemen,
Zarauzko hondartzan,
eta bertsolaria
bertso-esperantzan.
Haur bat algaraz eta
anaia arrantzan,
gazteak, berriz, sasoi
onaren gorantzan:
han ziak bat martxan
Krurojako lantxan,
beste honek dantzan
ematen dik Tarzan,
eta erre den horrek
langosta plantxan.

3 “*Buenos días, Maruja*”.
“Egun on, Bittori.”
“*Bonjour, mademoiselle*”.
“*Bon dia, Jordi*”.
Hemen denetik dago,
zimel eta gori,
begiratu bestela
ezker ta eskubi:
horko atso hori
oso dago lodi,
lepo ta ipurdi
balea dirudi;
bere senarrak, berriz,
mister Piruli.

4 Hau dena izter eta
hori dena zilbor,
irri egin beharra
dago derrigor.
Hango bi halek, berriz,
nolako bi zekor,
ilez ondo beteta
lepo eta konkor.
Darwin maisua hor
ibili zen jator;
ni ere, pentsakor,
harekin bat nator:
gizasemea behintzat
tximutik dator.

5 Gizona utzi eta
emakumezkora,
galdezka noa: jaunak,
non da mejora?
Ez ezazue bota
alferrik denbora,
alde handirik ez dago
astotik astora.
Begira albora,
betiko txokora;
horra ahoz gora
etzan den *señora*.
Zoologikoren bat
zain egongo da.

6 Iturengo ttunturru
ospetsuen gisa,
bularrak dilin-dalan
dator Felisa.
Batek pertza dirudi,
besteak baliza,
baldar dantzatuko du
horrek trikitixa.
Hondartzako missa
izateko prisa
al dun, Mona Lisa?
Har zan lasai brisa!
Ehun kilo izango haiz
bizirik pisa.

7 Kostan azaldu zaigu
mila monokini,
toplessa ere modan
baita ipini.
Askoren gorputzari,
entzuna nago ni,
eguzkiaren ona
zaiola komeni.
Hor daude Anttoni,
Miren eta Trini,
sol-do-do-do-re-mi,
azal eta mami.
Ez agintzen balego
mossen Jomeini.

8 Hemen ere izan da
hainbat ayatola,
ur bedeinkatu, alba
eta estola.
Baina urrituz doa
horien eskola,
zergatik ezkutatu
zenbait amapola?
Don Luis Egurrola,
nork pentsa behinola
deabruak gola
sartuko ziola?
Izango ahal du gertu
zeinek kontsola!

9 Zer moduz, eguzkia?
Hor goian zer berri?
Hemen itzalak luze
herririk herri.
Bestaldeko bidean
jarri zara jarri,
gugandik urrun diren
oilarren pozgarri.
Eutsi, Marigorri,
sasoi eder horri;
zoaz eta korri,
bihar goiz etorri
denok bedeinkatzera
urbi et orbi.

10 Hemen bukatzen dira
kostako berriak,
abuztuz jaulkitako
bertso berriak.
Hamarrak dituzue
hondartzan jarriak,
bapo paseak ditut
ordu pozgarriak.
Entzule argiak,
barka pikardiak,
udako erbiak
baitira erdiak.
Erruak ditu bero
izugarriak.

Zarautzen, 1987ko udan
Lehenengo, IV. Zapirain anatak sarian, 1992an

Marrakechetik Casablancara

Doinua: Betroiarena.

1 Hainbat euskaldun hil den
Afrika partean
ia-ia gelditu
ginen lurpean.
Guztia gertatu zen
joan zen urtean
Marrakech-ko hiritik
Casablanca artean.
Abioi batean
nindoan bakean
eta bat-batean
sartu lainopean...
Ez dago sinesterik
pasa artean.

2 Marrakech utzi eta,
tralaralara!,
bagoazela hegan
Casablancara.
Gora igo orduko
akabo patxada,
garrasi bihurtu da
zenbaiten algara.
Zeruko aldaba
inoiz joko bada,
bertatik bertara
hau dugu parada:
erruki zakizkigu,
Santa Barbara.

3 Estuasun honetan
ez naiz ni bakarra,
ez baitihoa hutsik
katxarrotzarra.
Eskuinean daramat
emazte azkarra,
ezkerraldean, berriz,
Migel bizkaitarra.
Hiruron negarra,
antzeko samarra:
"hau da zoritxarra,
gure mundu txarra
Euskal Herritik urrun
utzi beharra!"

4 Barrunbea dilindan,
hegoak dardarka,
hau istilua eta
hau zalaparta!
Salto, brinko ta jauzi,
tirriki-tarraka,
ezinean dihoa
hegazkin ausarta.
“Non da azafata,
morena galanta?
Hori ere falta,
ihes joan da-ta.
Ezin ote daiteke
lurrera salta?”

5 Hau da deskalabroa,
hau da desastrea!
Batxez batxe dihoa
gure trastea.
Lehen gutxi bagenuen
hona hemen bestea:
ez zait ba gonbitoka
ari andre gaztea...
“Hau da, emaztea,
gauzak erraztea:
norbere lastrea
botaka hastea!
Nik ere ahoan dut
neure hestea”.

6 “Zer duzu, emaztea,
zurbil eta zurrun?”
“Kanpoa dena laino,
barrua lurrun”.
Zertarako alferrik
ametsetan ihardun,
gutatik ez da inor
geldituko alargun.
Burrun eta burrun
ezin joan urrun.
Eskerrak ez dugun
zorrik utzi inun
eta zerua ere
gertu daukagun.

7 Baina zergatik etsi
umeak bezela?
Bagoaz, jaun-andreok,
bagoazela.
Negarzaleek negar
egin dezatela,
besteok pentsa onik
irten gaitzkeela.
“Ez bahaiz ustela,
pilotu exkela,
eutsiok, bestela
nolako pastela!
Nork ordaindu behar dik
gure eskela?”

8 Bateko batxea ta
besteko irrista,
seguru goazenik
ezin sinista.
Harro hasi dugunok
zeruko konkista
larri bukatu behar
ora-pro-nobiska.
“Pilotu artista,
luza ezak bista,
hortxe daukak pista
argiak dizdizka...
Ez ahal duk handituko
eskelen lista!”

9 Aireportu bikaina
hortxe daukagu zai,
gu jaisteko irrikan,
izerditan blai.
“Pilotu kaiku hori,
habil behingoz ernai,
izango ahal haiz txukun
lurreratzeko gai!”
Bagoaz, ai, ai, ai!,
inor gutxi lasai,
baina oraingoan, bai,
lortu dugu, ja-jai!
Heldu garela heldu,
tralaralalai!

10 Algaraz estalita
aurreko estura,
airean jaitsi ginen
aireportura.
Komunean sartuta
hango ispilura:
"bigarren aldiz jaio
gaituk gaur mundura".
Ahal dudan modura
kontatu dut hura,
puntutik puntura
gure abentura.
Aitontzean joango
gara zerura.

Zarautzen, 1988ko udan
Bigarren, IV. Basarri sarian, 1988an

Parrandan

Doinua: Betrolarena.

Urtean behin egiten
dugunok parranda
ez dakigu bukatzen
basta esanda.
Atzo gauean ere
bertsotan izanda,
bapo ibili ginen,
azkenean... danba!
Dzanga eta dzanga
gogotik edanda
gure *Seat Panda*
eramaten lan da
eta zaila pasatzen
ertzainen langa.

2 “Kaixo, gabon” hasi zen
lehenengo ertzaina,
euskaldun jatorra ta
mutil liraina.
Saiatu nintzen txukun
erantzuten baina
trabatuta gelditzen
zitzaidan ordaina.
Hain baita txanpaina
edari bikaina,
kristauon mingaina
baldartzeko aina.
Neurea lotan neukan
azpi ta gaina.

3 Lehenengo ertzainaren
tramitea bete
eta erori nintzen
besteen menpe.
Bigarrena neska zen,
niretzako kalte,
galtzak ondo jantziak
zeuzkan solamente.
Gorputzez fuerte,
plantaz Bonaparte,
biboteak tente,
erdi teniente...
Txanpaina ez zitzaidan
irtengo merke.

4 “La dokumentazion”
hasi zen galdezka,
euskaraz egiteko,
nire protesta.
Aurrerantzean hala
aritu zen neska;
neuri, berriz, mingaina
gelditu trabeska.
Hango gure sestra
eta buila estra
ontzeko gai ez da
Euskadiko Orkestra.
Berriz gogoratzeko
niri ez eska.

5 Baina ez zen bukatu
hango safaria,
furgonetan zain neukan
beste ehiztaria.
Alkoholaren froga
txit salataria
egin behar nuela,
hura kakeria!
“Entzun eskaria,
Noe zaindaria:
egin miraria
zalapartaria;
nork ordaindu bestela
gaurko afaria?”

6 Kotxetik irten behar
eta ezin altxa,
irribarrez begira
nuen ertzaintsa.
Atera nintzenean,
lehenengo balantza;
bigarreanean, berriz,
txaluparen antza.
Bateko zalantza,
besteko arrantza...,
hura al zen martxa
furgonetarantza?
Ez nekien nolatan
bukatu dantza.

7 Furgonetara noizbait
heldu nintzen heldu,
baita azkar asko ere
zerbaiti heldu.
Neure begi galduak
barrura zuzendu,
zer ikusiko eta,
mekasuen Belzebu!:
“Hona bi aingeru,
izarren eredu
eta zoramendu
guztien zimendu”.
Asko edaten duenak
asko ikusten du.

8 Zer izango ote zen
aingeru parean?
Ertzain bakarra eta
hura alea!
Neska matraka bera,
ahots-suabea,
euskaraz iaioa ta
agintzen trebea.
Horien legea
da nori berea:
"Hau kuxidadea,
kalamidadea!"
Ez ninduen juzgatu
errugabea.

9 Ez zela bukatuko
hango letania!
Sorgina gertatu zen
gure lamia.
Baneukala arnasa
neurtzeko premia,
puzka egiten dela
alkoholemia.
Haren armonia,
made in Kenia,
nire agonía,
hantxe bertan ia...
Latza irten zitzaigun
zeremonia.

10 Noizbait bukatu nuen
alkohol-kontrola
ta kutsatuta omen
neukan odola.
Negarrez hasi nintzen,
esango dut nola:
arrantzaka eskatuz
“lagundu, potxola”.
Baina nork kontsola
halako ayatola,
zeintzuei axola
nire malko-uhola?
Ez zen asko gupitu
maripistola.

11 Guztia gertatu zen
Zarauzko partean
eta bart goizaldeko
ordu batean.
“Noiz arte?” ari nintzen
ni neure artean,
erantzuna aditu
nuen bat-batean:
“Zaude lehortean
patxada betean,
gauaren bakean
gurekin batean,
txanpainaren aparra
jaitsi artean”.

12 Aspaldian murgildu
ginen abenduan,
bart sartuak izango
gara neguan.
Han eduki ninduten
leku seguruan,
sekadero latz hartan
haur baten moduan,
denbora morduan,
pare bat orduan,
izarrak zeruan,
hotza inguruan,
goiza egin zen arte
nire buruan.

13 Etxera iristean
andreak protesta:
“hau erretiratzeko
ordua ez da”.
Ohera sartu eta
oraindik galdezka
nola bukatu nuen
hain berandu festa.
“Aizazu, Modesta,
gaur mesede estra
nahi nizuke eska,
ez hasi ezezka:
bertsotan egitea
bihar inkesta”.

Zarautzen, 1989ko udaberrian
Lehenengo, V. Basarri sartan, 1989an

Kontrabandoan

Doinua: Betroiarena.

1 Garbi esan dezadan
lehenengo bandoan
ibilia naizela
kontrabandoan.
Ez ordea bakarrik,
ezta ere mandoan,
bi lagunekin baizik
kotxe fandangoan.
Andorrarakoan
kantuz ginen joan,
umore bapoa,
zahatoa lepoan,
Jaujarako bidean
ginelakoan.

2 Argazki-makina ta
irradi-kasete,
jenero asko dago
Andorran merke.
Hantxe ibili ginen
diru eta txeke,
denda gehienetako
bezero-kliente:
hiru inuxente
saltzaileen menpe,
gu kaiku tunante,
haiek izorrante.
Azkenean kotxea
gainezka bete.

3 Leporaino beteta,
zer egin hurrena?
Maltzurkeriak eman
zigun ordena:
etxera etortzeko
Frantzian barrena,
Espainiako muga
zela okerrena.
“Dena den, aurrena
baretu barrena,
hain da nabarmena
hiruron herrena.
Lasai egin behar da
lanik txarrena”.

4 Maltzurkeriak zigun
bideratu plana,
etxetik pentsatua
generamana.
Aise pasa genuen
lehen aduana,
bigarrena urruti,
hura panorama!
“Anbotoko dama,
zatoz guregana,
ken iguzu zama,
lo gaiztoen ama,
lasai jantzi dezagun
gauetz pijama”.

5 Konturatu orduko
gau beltza iritsi,
eta ohean ezin
begiak itxi.
Pentsio kaxkar hartan
sabelak irrintzi;
arkakusoek, berriz,
su ta gar goraintzi.
Bost, sei, zazpi, zortzi,
orduak luzetsi,
zortzi, bederatzi,
gosaltzera jaitzi.
“*Bonjour, madame*” eta
“goiari eutsi”.

6 Lagun lotiak laster
nituen mahaikide,
arrastaka zituzten
hiru maindire.
Haien ustea arin
bihurtu zen nire:
muga igarotzeko
onena Luzaide.
Hirurok bidaide,
poz eta gogaide,
irten ginen aire,
kantuz nolana hi're:
aire-tun-txiki-tun da
aire-tun-laire!

7 Halaxe irten ginen
bertso eta txistu,
kantuz uxatzen baita
zenbait arrisku.
Bide erdian edo,
larri eta estu,
ezkutuan genuen
kotxea babestu.
Han erabat hustu,
gero txukun puztu,
dotore orraztu
zirristuz zirristu...,
mugazainak ez zezan
muturrik beztu.

8 Guztien estalgarri
kanping-denda ere
han zabaldu genuen
alderik alde.
Huraxe irtengo zen
gero gure alde,
mugazainak ez zezan
ezer txarrik galde.
“Hona hiru ale
pirineozale,
kaikuak logale,
erruki eskale”.
Planak ez ote zigun
egingo kale!

9 Mendiko botak jantzi
eta, altza porru!,
martxan garela berriz
irri ta orru.
Luzaidera heltzeko
nahikoak bi ordu,
Ferminak bolantean
dardara behar du.
“Zer duk, kakanarru,
mugazain mamorru?
Laster gaituk hor gu,
paotxa otordu.
Heu bakarrik al hago
mugaren kargu?”

10 “*Buenos días*” hasi zen
mugazain berdea,
begiratu iluna
musu errea.
Ez zela berriketa
bere haserrea
eta erakusteko
atzean gordea.
Sartu du sardea,
esku kobardea,
gero galtzarbea...
“Hau zerri urdea!”
Han izoztu zitzaigun
irribarrea.

Gogotik aritu zen
 kaboen modura,
 galoiak irabazten
 gure kontura.
 Gero esku-luzea
 igo ostatura,
 tenientea ekarri
 gu geunden lekura.
 "¡Vaya caradura!"
 Hura al zen hura
 Luzaideko muga
 pasatzeko itxura...
 Hantxe bukatzen zela
 gure abentura.

12 Ez zela bukatuko,
 bat, bi, hiru, lau ta,
 zibilen letania
 kaikuon aurka.
 Jesukristoren multa
 pagatuta, aupa!,
 Fermin, Joxe Manuel
 eta ni birauka.
 Hiru txori-flauta
 ari ginen zaunka
 zer-nolako mauka
 gertatu zen Jauja...
 Ai, orduko sasoia
 gaur bageneuka!

Zarautzen, 1989ko udan
 Hirugarren, II. Balendin Enbeita sartan, 1989an

Doinua: Betroiarena.

1 Behin batean Loiolan
soldadu joanda...
Bertso batzuk jartzeko
gai txarra al da?
Banderaren azpitik,
roja y gualda,
anima arrastaka
pasa nuen langa.
Gaztea izanda,
neuri ere, danba!,
zerbitzeko txanda
heldu zitzaidan da.
Bulartsuagoa da
zenbait oilanda.

2 Hogeita zazpi urte
beteak izanik,
merezi ote nuen
kinto izenik?
Ez al zekiten fraile
egona nintzenik?
Ez al zuten niretzat
kiriteletsonik?
Han ez banuen nik
aurkitzen gizonik
negarra entzunik
gupituko zenik,
nire planak ez zuen
etorkizunik.

3 “*Buenos días, reclutas*”
izan zen agurra.
“*Bienvenidos a filas!*”,
hura muturra!
Biharamunerako
hartzeko adurra,
treneko txartela ta
petate zimurra.
Kanpoan elurra,
zuri-zuri lurra;
golkoan beldurra,
koraje apurra:
ez nuen makurtuko
bizkarrezurra.

4 “*Quienes quieran alegar
suban al primero*”.
Azkar mugitu ginen
hamaika ero.
Batzuk hanka planoak,
bista txarra edo,
beste batzuk kilotan
hor hiru numero.
Dena bero-bero
aitortu ezkerro,
ez nuen espero
hainbat majadero,
herren, elbarri eta
titilitero.

5 Neuk ere hantxe nuen
pronto aitzakia,
mediku-agirian
neure flakia.
Galoidunak aztertu
zuen edukia,
gero miatu bere
liburu txikia.
“Kaiku odolkia,
non duk errukia?
Kiskali duk ia
heure bekokia.
Ez diat probatu nahi
traje kakia”.

6 Sententzia heldu zen
halako batean:
“*al hospital de Burgos*”,
bete-betea.
Batzuk betiko libre,
besteak katean;
ni, berriz, kili-kolo
zalantzan artean.
Nirekin batean
bazen elkartean
gehiago tartean
militarren pean...
Lagun egingo ginen
hilabetea.

7 Biharamuna ere
heldu baitzitzaignun,
tren-geltokian ginen
ehundaka lagun.
Batzuk ospitalera,
eskutsik, betilun;
gehienak zerbitzera
eta petatedun.
Trakatan ta burrun,
laster ginen zurrun
han Burgosen, urrun,
hamabi euskaldun.
“Ezer baino lehen taxuz
bazkal dezagun”.

8 Bapo bazkaldu eta
hirurak aldera
ailegatuko ginen
ospitalera.
Kabo txar bat irtenda
lehenengo galdera
ea non kristo utzi
genuen papera.
“Hau duk abelera,
kaiku-ibilera;
goazemak kalera,
mundu zabalera.
Portatuko al zaiguk
babo primera?”

9 Kaboari ukitu
genion sakela,
eta guk poltsikora
baimen-txartela.
“Guregatik libre haiz,
ospital ospela,
igoalekoa duk
pagoko hotela:
gosaltzen pastela,
zumua bestela;
bazkaltzen okela,
aurretik koktela;
afari beroa ta
ohe epela”.

10 Baina hotelean ere
bihotz-barrena beltz:
geroa kili-kolo,
etxea amets.
Egunak joan eta
deirik etortzen ez,
gutako helduena
gordinak esanez:
“aski duk hotelez
eta ospitalez,
berdin koartelez
ta Burgosko kalez;
ni baniak, hor konpon,
aupa Gonzalez!”

1 Ganbara pitzatuta,
itutez betea,
hark ez zuen urruti
errematea.
Halakoren batean
kabo suplentea
iritsi zela gure
espedientea.
“Non duk arrankea,
kaiku tunantea?
Jaungoiko maitea,
erruki zaitea,
egin dadila nire
borondatea”.

12 Heldu da ba eguna,
tarati-tarara!,
eta ospitalean
azaldu gara.
Hura zen larria ta
hura zen ikara!
Hango gaixo-andana
ta kaiku-ilara:
batek bistan tara,
beste batek *cara*;
hark gaizki ganbara
ta honek ijara...
Infernu gorri hartan
gu nork anpara?

13 Halakoren batean
sartzeko barrura,
aztertu behar zela
nire matxura.
“Belarri bat hor nonbait,
besteak itxura”.
Hango axanpa eta
hango sumindura!
Hala ere, duda
mediku txar hura.
“Mekasuen Buda,
hau da txixagura!”
Oraindik gogoan dut
haren figura.

14 Zenbat kaikukeria,
zenbat gauza bitxi!
Ez zidan nahi orduko
bakean utzi.
Belarri bat miatu,
bestea igurtzi,
galderak barra-barra,
kosk eta imurtzi.
Nik begiak itxi,
“animo, mainontzi!”,
txistua irentsi,
neureari eutsi:
¿cómo dice? asko ta
erantzun gutxi.

15 “*Puede irse*” entzunda,
ni hantxe kieto,
nahiz eta presa izan
alde egiteko.
“*Que puede ya
marcharse*”
medikuak seko
eta epalaren zain
lasai egoteko.
Ta zer jakiteko?
Soldadu izateko
nintzela kaleko,
inutil konpleto...
Entzun, entzuten nuen
gaur baino hobeto.

16 Balekoak barrura,
kalekoak aire:
“*inútiles no quere
hoy aquí naide*”.
Harantzakoan ginen
hamabi bidaide;
honantzakoan zazpi,
denok erdi fraile,
trenean gogaide,
“agur t’erdi, Zaire”,
kantuan partaide,
bertsoz nolanahi’re...
Aire-tun-txikitun da
aire-tun-laire.

Zarautzen, 1990eko udaberrian
Bigarren, VI. Basarri sarian, 1990ean

San Donato mendian

Doinua: Betroiarena.

1 Nafarroan badugu
hainbat mendi garai,
San Donato tarteko,
harro ta galai.
Beti geratu gabe
etxean zoko zai,
han izan nintzen iaz,
damutu ere bai.
Gorakoan alai,
ji-ji eta ja-jai;
gero jaistean, ai!,
izarrak ikusgai...
Izango ahal naiz bertsoz
kontatzeko gai!

2 Herriko autobusa,
autobus bikaina,
zerbitzuak egiten
daki bik aina.
Harixe zor diogu
hamaika azaina
eta igo izana
San Donato gaina.
Bai gailur apaina,
eder ta liraina;
ez, ordea, baina
Josetxo Argaña,
gure taldeko buru
ta kapitaina.

3 Egun latz hartan ere
Josetxo zen buru,
mapa, plano, brujula
eta liburu.
Hark eramán ginduen
bidean seguru,
ume eta guraso
berrogei inguru.
Belar fina zoru,
menda *vicks vaporu*;
gailurra helburu,
gure amets-goru.
Gora iritsi eta
zenbat zizpuru!

4 Bateko zizpurua,
besteko irria,
hura bai dela leku
zoragarria!
Baina ederrak ezin
kendu egarria,
aspaldi zen jendea
galdezka jarria:
“non da iturria?,
ta non ur garbia,
jenero urria
bezain bihurria?
Non da Nafarroako
ardo gorria?”.

5 Edari gutxi baina
janaria franko,
"bazkaltzen ere noizbait
hasi beharko".
Hasi baginen hasi,
ezin egin planto,
ezer ez zen gelditu
beste baterako.
Han guztiok bapo,
morroi eta kapo,
pronto martxarako,
agur, San Donato.
"Ez ote dut bidean
dena botako?"

6 Hasi, denok batera
hasi ginen jaisten,
baina azkar asko nintzen
tropela ixten.
Eskerrak han nituen
alboan bi sosten,
lagun errukiorrak
animoak pizten;
lotsa ere ezten,
bideak errazten;
ni, halere, azken,
Senperrak ikusten...
Berez ez denak ez du
inoiz ikasten.

7 Hanka bat herren eta
bestea erdizka,
nekeak dinbi eta
ezinak zizta.
Behean Unanua,
xarmanta herriska,
bitartean aldapa,
nolako ahuntz-pista.
Ni, berriz, artista,
irristaz irrista,
arima horixka,
ora-pro-nobiska:
erruki zakizkigu,
Santa Prantxiska!

8 Aldapa latz mortuak,
ez pago, ez urki,
ia-ia ematen
zuen Djibouti.
Nire musua lehor,
apar eta muki,
iturri xar bat ere
ezin inon aurki.
Herria urruti,
itzala barruti;
lagunak erruki:
“bertan gaituk aurki”.
“Gezurak asmatzeko
nahikoa nauk, hi”.

9 Alfer-alferrik ziren
lagunen gezurrak,
besterik behar zuten
nire hezurak.
Malda harritsu haiek
ez ziren samurak;
hango estropozuak,
hango atximurak!
Pausoak laburak,
bi hanka-muturak
ta indar apurak
galtzeko beldurak.
"Erortzean eutsiko
ote dit lurak!"

10 Anima arrastaka
jaitsi eta jaitsi,
Unanuara ginen
noizbait iritsi.
Tabernan sartu eta
zenbat trago bitxi:
hiru, lau, bost, sei, zazpi,
zortzi... hemeretzi!
Bi botak erantzi...;
gero nola jantzi?
Lagunak irrintzi,
nik begiak itxi:
bizi nintzenik ere
ezin sinetsi.

11 Tabernan hustu nuen
ez dakit zenbat pertz;
halere, galtzerdiak
kentzeko gai ez.
Zer azalduko eta
behatz lodiak beltz,
bi azkazalak lutoz,
gain, azpi eta ertz.
Lagun batzuk barrez,
laguntza kaxkarrez;
ni umore txarrez,
bihotza negarrez,
etxeko dutxa eta
ohea amets.

12 Autobusa hartuta
zazpietarako
etxean ginen denok,
gizen ta flako.
Dutxatik ez nintzela
gero aterako.
Hura zen gozamena
krema eta talko!
"Agur, San Donato,
santa sekulako,
ta Josetxo Franco,
puska baterako:
ez nauzue behatzik
gabe lagako".

Zarautzen, 1990eko udan
Alpamen berezia, III. Balendin Enbetta sarian, 1990ean

Teleferikoan

Doinua: Betroitarena.

1 Batean Italia,
bestean Frantzia,
eta tartean Mont Blanc,
zuriz jantzia.
Han ere arrastoa
badugu utzia.
Ia eman ziguten
azken igurtzia.
Ez dut ahantzia
esperientzia:
hango imurtzia
ta aire gutxia!
Entzuleak har beza
pazientzia.

2 Chamonix-ko herrian
gertatu zen dena:
teleferikoak du
erru laurdena.
Traste hartan sartu zen
alaba aurrena,
emaztea ondoren,
semea hurrena.
Ta ni laugarrena,
lauretan txarrena,
adorez herrena,
beldurti kirtena...
Oraindik ere dar-dar
daukat barrena.

3 Tramankulu hartako
leihotik begira
gauza izugarriak
ikusten dira:
egundoko aldapak
handik gain zurira,
tarte beldurgarriak
menditik mendira.
“Kable horiek, di-da!,
etengo balira,
braust!, amildegira
gure azken jira.
Zapelaitzek auzoan
dute gupida”.

4 Ateak itxi eta
martxan jarri gara.
Ez zen oso haserre
gure Ainara.
Bi haritik zintzilik
zihoan kikara,
barruan berrogei bat
turisten ikara.
Bateko zartada,
besteko dardara,
nik badaezpada
zeruko aldaba:
“erruki zakizkigu,
Santa Barbara”.

5 Begiak mailu eta
zerua ingude,
lardaskatu nituen
bost aitagure.
Bi japoniar, berriz,
atso ta agure,
han geneuzkan alboan
elkarren inude,
barruan hazkure,
barrunbeak pure
eta zainak suge
airean baleude...
Nik neure golkorako:
“galduak gaude”.

6 “Aita, aita, begira
han datorrenari!”
Haritz argia nuen
begi-gidari.
Inbidiaz jarraitu
nion adi-adi
goitik behera zihoan
tramankuluari.
“Aizak, Dardar-mari,
lasai joan hadi:
honen biki hori
ez baduk erori,
hau ez duk bihurtuko
hire hilobi”.

7 Mutu segitzen zuen
gidari gazteak;
zirrin-zarraka, berriz,
gure trasteak.
Nahiz eta lanak eman
hala sinesteak,
ez zidan onik egin
begiak ixteak;
hain ziren tristeak
barne-albisteak:
ahorantz hesteak,
hor nonbait besteak...
Planta hobea zeukan
nire emazteak.

8 Halakoren batean
jo genuen gaina;
ez, ordea, ikusi
Mont Blanc liraina.
Han hartu nuen lasai
arnasa estraina,
han egon ginen laurok
izozteko aina...
Paraje bikaina,
eder ta apaina
izango da baina
ez inor engaina:
hotzikaratan behar
ohi du ordaina.

9 Gorakoan bezala
beherakoan berdin:
teleferiko hartan,
ai, zenbat sorgin!
Amildegia ilun,
zeru-goia urdin,
hara begira nion
otoitzari ekin:
“Gain honetan baldin
banabil kaskarin,
lurperako, jolin!,
oso nago gordin.
Erruki zakizkigu,
aita San Fermin”.

10 Zer gertatuko eta
San Ferminen kale,
teleferikoak huts
alderik alde.
Hasieran primeran
suabe-suabe,
erdi-bidean larri,
azkenean grabe:
han indarrik gabe
gelditu goi ta behe,
urkatuen pare,
bi eternidade.
Kontatzeko moduan
gara, halere.

11
11
Noizbait abiatu da
supersonikoa,
baita amaitu ere
gure zirkoa.
Oraindik gogoan dut
azken zimikoa,
nola agurtu nuen
teleferikoa:
“Agur, lapikoa,
ontzi sadikoa,
azal gorrikoa,
barru urrikoa.
Bukatuko ahal huen
gurekikoa!”

Zarautzen, 1991ko udan
Lehenengo, VII. Basarri sarian, 1991n

Fistulari

Doinua: Betroiarena.

- 1 Nire gaztetan ia
hondatu ninduten.
Intentzioa behintzat
azaldu zuten.
Fistula setoso bat
baitzitzaidan irten,
ezagutu nituen
bost mediku kirten.
Ez dakit esaten
zer egin zidaten:
ipurdi-puxka ken,
josi edo eten...
Atzealdean ditut
gaur bi erreten.

- 2 Erreten bakarreko
jaio nintzen noski,
baina ez nuen nonbait
izango aski.
Ipurdiz gora nintzen
behin erori gaizki.
Geroztik erakutsi
izan diet bosti.
Makina bat azti
saiatu zen lazki,
ukendu garesti,
bisturi ta guzti...
Urte pare batean
zenbat sarraski!

3 Historia hasi zen
hondartza batean,
Hondarribian eta
uda-partean.
Futbolean genbiltzan
sutsu, jo-ta-kean,
txarrak defentsan eta
onak atakean.
Eta bat-batean,
baloia atean
sartzera joatean,
huts errematean...
Hemeretzi urteko
nintzen artean.

4 Ez zen samurra izan
ipurdiko hura!
Oraindik ere hemen
dut pitzadura.
Galarazi zidaten
zenbait abentura,
izorratu bi negu
eta hiru uda.
Batzutan hazkura,
bestetan mindura,
noiznahi itaxura
eta erredura...
Fistula gertatu zen
nire matxura.

5 Gure bizkarrezurra
bukatzen den hortan
isatsa omen dugu
gizonok lotan.
Esnatzen zaigunean
hasten da erronkan,
kanporako bidea
aurkitu asmotan.
Kontuz halakotan!,
ona da borrokan,
zorrotza askotan,
zitara frankotan...
Azkar egingo dizu
zuloa txopan.

6 Fistula-zulotxo
nola itxi gero?
Pozik esango nuke
jakin ezkeru.
Aluak sortzen ditu
hamaika endredo...
Hiru kirofanotik
pasea naiz gero!
Hasieran bero,
animoso edo,
azkenean ero,
sorginen bezero...
Sendatu nintzen eta
lasai, San Pedro!

7 Kirofano batetik
irten bezain laster
bihurtzen nintzen zenbait
aztiren maizter:
batzuk mediku eta
beste batzuk ganster...
Hala ere sendatu
nafar bati esker:
hasieran azter
behar hainbat bazter,
azkenean susper
eskuin eta ezker,
ez silikona eta
ez poliester.

8 Sendatu nintzen baina
ez naiz oso fio,
harrokeriak hain du
gutxi balio.
Fistulak bazituen
mila demonio
ta bakoitzak katuak
adina herio:
honek desafio,
hark amorrazio,
denek txikizio,
elkarren sozio...
Betiko esan ote
nien adio?

9 Ez al zarete ase,
bertso-eskaleak?
Hemen bukatzen dira
gaurko aleak.
Gorde zeuen golkoan
betiko galdeak:
kirofanoetako
kontu xebreak;
hango jarabeak
ta lo-arazleak,
geroko legeak
eta nahigabeak...
Gehiegi jakin nahi du
lotsagabeak.

Zarautzen, 1992ko neguan
Irabazle, VIII. Basarri sarian, 1992an

Birus berriari

Doitua: Betroiarena.

I Zenbat birus dabilen
gaur gure artean!
Ezin daiteke bizi
inor bakean.
Ni ere harrapatu
ninduten katean,
geroztik ibili naiz
ikara betean:
gaitza atakean,
noiznahi jotakean;
ni haren menpean,
loaren kaltean...
Ez dago esaterik
bertso batean.

2 IHESaren birusa
edo SIDArena
dugu hemen denetan
ospetsuena.
Baina bada beste bat
hobea ez dena,
nire ordenagailua
ilundu duena...
Datu-almazena
hondatu dit dena,
hor nonbait barrena,
lapur alaena!
Telecom pt2 da
haren izena.

3 Ai, Telecom pt2,
birus arraioa,
non hartu ote huen
hik bataioa?
Tramankuluren baten
biki tokaioa,
izurrite hutsa duk
hire garraioa...
Besteren saioa
hondatzen iaioa,
nire lan-leiho
utzi duk eihoa...
Gaiztoz sortua eta
gaizto jaioa.

4 Nire ordenagailu
sabel-erosoa
gorriak ikusita
dago gaixoa.
Bateko ipuina ta
besteko bertsoa,
ia beteta neukan
almazen osoa...
Heldu zen otsoa,
birus setosoa...
Ez da, ez, gozoa
haren eraso...
Akabo bi urteko
lan nekosoa!

5 Zenbat bertso ote dut
bi urtean sortu
eta sortu orduko
makinan sartu!
Baina egun batean
birusa agertu,
ta ordenagailua
ez babes, ez txertu...
Gaitzak zuen hartu,
jo eta egurtu,
erabat apurtu,
hauts gorri bihurtu...
Lehen lorategi zen,
gaur basamortu.

6 Pantaila ezabatu,
ondoren itzaldtu,
gero nire erraiak
seko kixkaldtu.
“Baina zergatik izan
horren bihozgaldu,
zergatik adorea
etsiari saldu?”
Dena nuen galdu,
esperantza salbu:
“gaur ere ez al du
eguna zabaldu?
Baietz bertso zaharrak
nonbait azaldu!”

7 Zokoak arakatu,
karpetak atera,
ta etxea jiratu
goitik behera.
Denetik azaldu zen,
nolako aukera!:
zirriborro, idatzi,
guztiak batera;
horrezaz gainera,
liburu, papera,
faktura, kartera,
pitxiak sobera...
Diskete bat ere bai,
urdina bera.

8 Disketea hartuta,
lagun bati: "kaixo,
ez ote duk izango
PCa gaixo".
Pantailan azaldu zen
hainbat ale gozo,
baina sortu ere bai
pare bat arazo...
Bada zenbait bertso
erasoz eraso
galdua inozo,
betiko akaso...
Haiek berreskuratzen
zail dago oso.

9 Ai, zenbat zor diedan
neure lagunari
eta hark emandako
TNTri!
Pozik eragin nion
behar zen teklari,
baita ere adio
esan birusari:
"Telecom pt2,
hoa, zikin hori!"
Geroztik, tarari!,
bizi naiz kantari...
Haren itzalik ere
ez da ageri.

Zaurautzen eta Madrilen, 1993ko udaberrian
Irabazle, VI. Manuel Lekuona sarian, 1993an

Eskiadore

Doinua: Betroiarena.

- 1 Nire bizitzan zehar,
umorez umore,
sarri ibilia naiz
enbajadore.
Iaz Aste Santuko
oporretan ere
elur zuritan nintzen
eski ta adore.
Hainbat monitore,
txukun ta dotore;
ni ikasle-ore,
ipurdia more...
Ia bihurtu nintzen
eskiadore.

- 2 Eskiatzeko moda
etorri zela-ta,
gure etxean bazen
nahikoa lata.
Semea lotsagabe
mendirira tiraka,
askozaz sorginago
alaba matraka.
Emazte ausarta,
atzetik xaxaka;
ni, berriz, marmarka:
"hauxe duk hau marka,
berriro ere morroi
haiz, patriarka!"

3 Bateko zirria ta
besteko lantua,
berehala heldu zen
Aste Santua.
Kotxea hartu eta,
“ai, txofer kaikua,
nola izan hindekek
hain txoropitua!
Hona momentua,
uzteko kontua;
non duk talentua,
non fundamentua?
Bete-betea zegok
kanposantua!”

4 Luz Ardiden-a heldu
eta haiek presak,
gaur edonon agintzen
baitu estresak.
Alokatu ditugu
mendiko piezak,
eski ziztrinak eta
bota aldrebesak.
Ez dira frantsesak
ulertzen errezak.
Haien esamesak
eta irri gezak!
“Lotsarik baldin baduk,
ondo gorde ezak.”

5 Mendira igo eta,
“ai, Mari Frantziska!”,
ia-ia lausotu
zitzaidan bista.
Paraje zuri hartan
zenbat elur-pista,
zenbat eskiadore
irristaz irrista!
Hantxe nuen, zizta!,
sumatu tximista:
ni ere artista
naizela sinistra.
“Ez ahal haiz ibiliko,
motel, erdizka!”

6 Tximistaren ondoren
heldu zen eztanda,
botak eta eskiak
jazteko txanda.
Larri zutitu eta
bi pauso emanda,
lehenengo galdera:
“non dago baranda?”
Laster nintzen, danba!,
lurrean etzanda,
han-hemenka langa
sortzen zitzaidan da...
Fernandez Ochoa naiz;
ondo bistan da.

7 Ibiltzen hasi nintzen
apurka-apurka,
Fernandez Ochoaren
planta hartuta.
Monitorea nuen
albotik marruka,
bateko “¡paralelo!”
ta besteko “¡junta!”
Ni, berriz, nork uka?,
artista arrunta,
umore txartuta,
hatsa erreguka...
Ez zen samurra izan
gure burruka.

8 Aldapa igo eta
oreka garesti,
nahi izatearekin
ez baita aski.
Martxan jarri ezker
alferrik da noski
han oihuka hastea
“iso!” edo “esti!”.
Hasieran ezti,
berehala gaizki:
ipurdia eski,
tximistaren bizki...
Atera zizkidaten
mila argazki.

9 Argazkiak ikusten
zenbat irri gozo,
besaulkian patxadan
eta eroso!
Oroitzapenek ere
isilka eraso
zertan aritu nintzen
barregarri oso,
frakasoz frakaso,
ikasiz akaso,
dena enbarazo,
traba ta arazo...
Txukunago ibiltzen da
zenbait pailazo.

10 Ai, zenbait estuasun,
zenbat ipurdiko!
Ez nintzela erabat
zutik jarriko.
Albokoak bai ondo,
irrist eta brinko;
ni, berriz, barregarri,
oreka urriko...
Hala nuen tinko
esan neurekiko:
"Ez haiz, ez, Pakito,
elurretan hilko"...
Eskiak han geratu
ziren betiko.

11
Moda berrietatik
Jainkoak goarda!
Adin batetik gora
jolasa txar da.
Burua soilten eta
zuritzen bizarra,
barru-barruan daukat
kezka bat bakarra:
Nolatan deskarga
hartutako karga,
nire zoritxarra
sortzen duen harra:
guraso modernoa
izan beharra?

Zarautzen, 1993ko udaberrian

Autobusean

Doinua: Betroiarena.

1 Hogeigarren mendeak
laster du azkena:
sei urtebete barru,
sasta!, eztena.
Txistu bizian doa
denboran barrena
aurrerapen-irrikak
sututako trenak.
Baina ez da dena
zinezko lorpena;
kasu nabarmena
gaur gertatu dena:
autobusean izan
dugun berbena.

2 Goizeko zazpitan
hasi zaigu festa.
Horretarako inoiz
goizegi ez da.
Autobus-geltokian
jendea gainezka,
baina autobusik ez,
eta gure kezka!
Mutil eta neska
“non ote?” galdezka,
helduok protesta
marmarra ta espa:
“ez duenari ezin
lotsarik eska”.

3 Halakoren batean,
tirriki-tarraka,
ezinean iritsi
zaigu karraka.
Gozoak igo gara
banaka-banaka,
batzuk begiak sutan,
besteak marmarka.
Txoferrak badauka
gidari aparta
izateko planta,
baina zerbait falta:
ez "egun on" esan du
eta ez "barka".

4 Zer esan behar zigun
gidari gazteak?
Haren istilu eta
buruhausteak!
Bart lau autobus pronto
zituen tristeak,
gaur lehenengo hirurek
nolako hauts-keak!
Batak jota hesteak,
besteak askeak;
zintzilik besteak
azpiko trasteak...
Hiru laurdenak ustel
nonbait usteak.

5 Txoferra sutan eta
besteok erreta,
izan dugu bidean
hozteko beta.
Erabat izoztuta
zegoen kuneta,
autobusa hor nonbait,
zirrituz beteta.
“Goizeroko Kepa,
non duk berriketa?
Poz itzak kopeta,
aurpegia eta,
Donostia hor bertan
diagu eta”.

6 Ez gaitu asko poztu
Donostiakoak.
Kontatuko al ditut
geltokikoak?
Ikusiak ditugu
berehaldikoak:
ezin zabaldu ate
automatikoak.
Ez dira nahikoak
izan ostikoak,
nahiz eta trinkoak
jo txofer pijoak...
“Numero asko dizkik
gaurko zirkoak!”

7 Hurrengo numeroan,
arazoz arazo,
denok bihurtu gara
erdi pailazo.
Semaforo gorria
ikusita, iso!,
autobusa gelditu,
betiko akaso.
Txoferrak eraso,
hasieran gozo,
berehala gaixo,
kezkatuta oso...
Zakur zahar ergelak
mila arkakuso!

8 Halakoren batean,
txoferrak etsi du:
martxan jarri ezina
aitortu digu.
Bera han gelditu da,
isilik jaitxi gu,
minutuak aurrera,
bat, bi eta hiru...
Lauzpabost testigu
hurbildu zaizkigu,
halako kastigu
latzaren gatibu...
Batek klinesak ere
eman dizkigu!

9 Baina ustekabea,
nolatan ez galde,
motorra egin dela
martxaren jabe.
Berriro igo gara
lehen bezain talde,
arkumeak izaten
ohituta baikaude.
Eseri naiz bare,
abailduen pare;
pozik hala ere,
gainera debalde:
bigarren goan ezer
ordaindu gabe!

10 Noizbait iritsi gara
geure geltokira
ta autobusa zaigu
gelditu, di-da!
Gero martxan jartzean
uzkerka hasi da.
Irribarrez geratu
natzaio begira:
gurpilak sikira
hantxe joan dira
jira eta bira
intziraz intzira...
Nahiago nuke denak
gezur balira.

I I Ihauteri aurreko
astearte-goiza
batetik luzea ta
bestetik hotza.
Nekez ahaztuko da
gutako bakoitza
zein petral ibili den
autobus zikoitza.
Ez du, ez, zorrotza
motorraren hotsa,
ezta ere arrotza
matrikula motza,
lau, bat, bat, hiru eta
uve bikoitza.

Zarautzen, 1994ko udaberrian

Ernamuinetan

Hirugarren ataleko bertsoetan daude, neurri batean behintzat, bosgarren atal honetakoen hasiki-nak ere. Hogei sail dira guztira, doinuaren arabera bilduak. Elkarren segidan ipini ditut doinu bereko bertsoak, eta aintzat hartu dut noiz jarriak diren ere.

Ernamuinetan jarri diot izenburu atalari. Izan ere, ernamuinetan bezala daude bertako bertso-sailak, doinu eta taxu bereko bertso gehiago noiz elkarrekin bildu zain, atal oso eta berezi bat moldatzeko, laugarren eta seigarren ataleko bertso-sailek bezala. Baina denak ere urruti samar daude oraindik helburu horretatik. Ernamuin besterik ez dira: atal baten ernamuin.

Esperantzarenak

Doinua: *Prantxisku, zer dakarrek.*

1 Ilunpearen baitan
bertsoa zait jaio
eta kantatzeari
ekin natzaio.
Esperantzaren bila
makina bat saio
egin dut atez ate
eta leihoz leiho.
Ezina garraio
ez gabiltza iaio,
baina, zer arraiol,
gau honi ere goiza
helduko zaio.

2 Goizaren esperantzak
bertsotan jarri nau,
gure izarrak oraindik
keinuka dirau.
Ezagutu ditugu
nork daki zenbat gau,
hamaika negu gorri
eta hainbat barau.
Etsaiak bai riau,
ez lege, ez arau,
guk berriz hamalau...
Zerbaiten beharrean
dugu herri hau.

3 Ai, zenbat sufrimendu
gutxi garelako,
gure herri txiki hau
txiki delako.
Dena arrotza zaigu,
barru eta kanpo,
iraute hutsarekin
egin dugu franko.
Handiak bai bapo,
gari eta arto;
baina, ene Jainko,
gu betiko galtzea
ez duzu nahiko!

4 Gu betiko galtzea
goazela edo
ari da makina bat
zuhur ta ero.
Hala ere lanean
dihardugu gero,
etsipenaren gaindi,
esperantza bero.
Argia egunero
ipar eta hego
pizten denez gero,
nola ez herriaren
goiza espero?

5 Arrazoiak milaka
ditu etsipenak,
ia bat besterik ez
itxaropenak.
“Etorkizuna badik
gure udazkenak”,
esaten ari zaizkit
ametsik onenak.
Baina bere demak
banan-banan denak
galdu dituenak
nekez sinets ditzake
bertso-poemak.

6 Udaren ataria
da udaberria,
negu ondoko sasio
bizigarria.
“Zer ari haiz kantari,
poeta elbarria?
Gauak irentsiko dik
goizeko aldarria.
Hor daukak herria,
zahar ta berria,
heure zain jarria.
Bertsoz mugitzen al duk
dema-harria”.

7 Etsipenaren mende
dugu hainbat bihotz,
gozotasunik gabe
laiotzez laiotz.
Arnasa estu eta
taupadak beti motz,
eguzkiaren printza
gertatzen zaigu hotz.
Iragana mingots,
geroa dena hortz,
gauak gauari hots...
Izar batek kutsatu
ninduen bertsoz.

8 Gauaren ilunetik
goizaren argira
oraindik egun batzuk
geratzen dira.
Bihotz barneko errotak,
jira eta bira,
gogoan du izarraren
urrezko distira,
eta Euskal Herrira
gozoki begira
bertsotan ari da.
Ai, norbaitentzat argi
eder balira!

Zarautz, 1985eko udazkenean

Hasiera batean

Doinua: *Prantzisku, zer dakarrek.*

Hasiera batean
etxe ta inguru
dena eder genuen
poz-iturburu.
Zerua adiskide
eta lurra zeru,
eguzkia arkitekto,
ura injeneru,
lehena eredu,
geroa helburu
uda eta negu.
Gizona, berriz, gauza
guztien buru.

2 Gizonak esan zuen
lehen egunean:
“jende gehiegi zeukat
aldamenean”.
Geldirik egon gabe
alfer-egonean,
gizon hiltzen hasi zen
taxuzko lanean.
Orduak joanean,
argia denean
itzali zenean,
izarrik ez zen piztu
gau ilunean.

3 Biharamunez goizak
gauari enbido,
eguzkia irten zen
baina geldiro.
Gizona ere jaiki
eta, zer egingo?,
abere hiltzeari
eraso bizi-
ro:
arma ta latigo,
kolpe edo tiro,
hantxe ez zen giro!
Zeruak negar egin
zuen geldiro.

4 Hirugarren egunez
gizon handizkiak
hil zituen arrainak
ta hegaztiak.
Hala bukatu ziren
txori-abestiak,
distira galtzen hasi
erreka guztiak,
berdin eguzkiak
lehen hain eztiak
zituen izpiak.
Gaua iragarri zuen
izar aztiak.

5 Laugarren egunean
itzalak nagusi,
lurraren bihotzera
iluna jausi.
Eguzkia betiko
joan zen ihesi,
zilarrezko ilargi,
izar eta guzi.
Gizonak garrasi
egin zuen kasi:
“Jainkoa, non haiz hi?
Horrela bizitzea
ez dik merezi”.

6 Bosgarren egunean
gizonak temoso
berean segi zuen
pausorik pauso.
Landaretzari zion
su ta gar eraso,
dena kiskali zuen,
mendi eta baso,
hiri, herri, auzo,
lehor ta itsaso,
ur gazi edo gozo...
Zerbait geldituko zen
zutik akaso.

Zerua bera ere
hondatu artean,
gizona ezin egon
nonbait bakean.
Seigarren go egunez
eguerdi-partean
dena txikitu zuen
azken atakean,
harekin batean
ia bat-batean
triskantza betean
lehen argia ere
desegitean.

Dena txikitu eta
azkenean planto,
zazpigarren egunez
gizonak "papo".
Ez ibai, ez itsaso,
ur guztiak malko,
zeru-lurrak hustuta
barru eta kanpo...
Nahikoa duk nahiko,
gure sasijainko,
zorionak, *chapeau!*
Siesta ere egin
dezakek bapo.

Zarautzen, 1987ko neguan

On Joxe Miel Barandiaran

Doinua: *Prantzisku, zer dakarrek, erre-
pika eta guzti, Antton Aranburuk
Juan Mari Lekuonaren O, antzinako
Euskal Herria!* kantatzen duen eran.

*On Joxe Miel Barandiaran
On Joxe Miel Barandiaran!*

Behin batez irten zinez
geroaren bila,
gazte sasoiko eta
apaiz bipila.
Zer aurkituko eta
hantxe harrespila,
antzinatik biraka
datorren gurpila,
arbaso jentila,
oihartzun isila,
taupada hurbila...,
lehenarekin lotzen
gaituen zila.

On Joxe Miel...

2 Ibili ta ibili
intxixu azkarra,
sutondoan gelditu
zaizu izarra.
Hara hainbat ipuinen
labe goiztiarra,
hamaika sorgin gaizto
erretako garra,
irria, negarra,
ezina, indarra
eta ostadarra,
oraina sutzen duen
argi zaharra.

On Joxe Miel...

3 Argia bidelagun,
jo duzu ardatza:
goizari deika ari
zaion arratsa.
Horra hainbat ametsen
zorion-baratza,
bakearen ardoa
darion mahatsa,
maitasun-solasa,
poz eta jolasa,
betiko arnasa...
geroaldi bihurtzen
gaituen hatsa.

*On Joxe Miel Barandiaran.
On Joxe Miel Barandiaran!*

Zarautzen, 1988ko abenduan,
Joxe Mielek ehun urte betetzean

Ai, Joxe Migel, azti-sorgina!

Lazkao Txiki:

Gau batez, artean bizi zinela, amets egin nuen zurekin: zu bertsoan ari zinen eta ni entzule ninduzun; eta bat-batean, bertso hunkigarria kantatu zenuen. Negarrez esnatu nintzen.

Amets hura oroimenean, honako bertso hauek jarri dizkitut, zure heriotza oraindik ere zauri bero.

Bihotzez, omenez eta esker onez.

Doinua: *Prantzisku, zer dakarrek.*

Joxe Migel, joan zara
gugandik urruti.
Umezurtz dago hainbat
irri-barruti.
Gure mundualdia
kamutsa izaki,
ezinaren ezinez
bizi gara beti.
Ai, Lazkao Txiki,
den-dena poliki
kontatzen baneki,
bertso hauek, noski,
izango lirateke
izarren bizki.

2 Izarrik ba ote zen
gau hartan zeruan?
Zu behintzat han zintudan
amets-goruan.
Bertsotan ari zinen
betiko moduan,
giza sentimenduen
xarma-eremuan.
Ni ere amuan
nintzen inguruan
entzule-graduan;
zein pozik orduan!
Zoriontsuagorik
ez zen munduan.

3 Ametsaren erdian
keinu eta irri
begiratu genion
biok elkarri.
Zeren premian nintzen
zuk nonbait igerri
ta bertso sakon hura
gozoro igorri...
Hark ninduen larri
negarrez itzarri,
hain zen hunkigarri,
hain erdiragarri!
“Horrelakorik ez duk
entzuten sarri”.

4 Erdi esnatu eta,
nire harridura:
zure zortzikoaren
gozo-lilura!
Dastatzen egon nintzen
mozkorren modura
haren sakontasuna,
haren egitura.
Hura zela hura
mami-hezurdura,
puntutik puntura
zuen tolesdura!
“Gure Lazkao Txikik
non ote muga?”

5 Berehala ninduen
loak gozo hartu
eta bere mundura
berriro sartu.
Baina amets-baratza
lur elkor bihurtu,
Joxe Migel, ez zinen
gehiago agertu.
Goizean itzartu,
bertsorik ez gertu;
gau beltzak lapurtu
zidala ohartu.
Nire begiak ziren
bi basamortu.

6 Basamortu gorrian,
hura goiz ubela!
Baina den-dena ezin
izan goibela.
Gogoan dut oraindik
gaur balitz bezela,
gau hartan gertatua
aztergai nuela,
noizbait, ai, ergela!,
ohartu nintzela
neuk sortua zela,
zeinek ba bestela?,
ametsetan kantatu
zenidan perla.

7 Zuk botatako neure
perla eder hari
zor diot izatea
gaur bertsolari.
Ametsaren mezua
hain zegoen argi,
honela esan nion
neure buruari:
"Aizak, Kaiku-mari,
behingoz mugi hadi,
ekiok lanari,
bertso kantuari...
Lotan hamaika dena,
esna hamabi".

8 Urteak joan eta,
susmo atsegina:
esna ba ote naizen
lotan adina.
Baina ez da samurra
izan ahalegina...
Nonbait neure buruaz
erditu ezina.
Ai, azti-sorgina,
Joxe Migel fina,
nire emagina
izan ez bazina...
Noizbait izango ahal naiz
zuretzat dina!

Zarautzen, 1993ko udan
Hirugarren, II. Lazkao Txiki sarian, 1993an

Hiru txerriak eta otsoa

Hordago argitaletxeak *Ikusi-makusi* sailean 9. zenbakiz ateratako "Hiru txerritxoak eta otsoa" ipuin eta irudien arabera.

Doinua: *Praixku Galtzarreta.*

1 Bertsoz esango dugu
poliki-poliki
zer gertatu zitzaion
otso gaizto bati.
Ondo kontuan izan
orain eta beti
nola salbatu ziren
hiru txerri txiki.

2 Han zebiltzan txerriak
elkarri esanez
nolako etxea zuten
bizitzeko amets.
Handiak egingo du
adreilu ederrez,
txikiak lastoz eta
besteak adarrez.

- 3 Txikiak egin zuen
lehen egunean,
bitartekoak, berriz,
hirugarrenean.
Biak etzanda eta
handia lanean...
Honek ere bukatu
zuen azkenean.
- 4 Lanak bukatu eta
hirurak batera
joan ziren txerriak
jolas egitera.
Baina ustekabean
otsoa atera...
Azkar asko sartu zen
nor bere etxera.
- 5 Ikusi zuenean
etxe lastozkoa,
ia barrez lehertu zen
otso morroskoa.
Haize eman zion eta,
huraxe hauspoa!,
airean bota zuen
belar harroxkoa.
- 6 Txerri txiki gaixoa,
korri eta korri,
lagunaren etxera
iritsi zen larri.
Bi txerriek bazuten
otsoaren berri...
Ikaraz begiratu
zieten elkarri.

- 7 Etxe barruan zeuden
txerriak beldurrez,
otso gaiztoa, berriz,
inguruan barrez.
Hurreratu zen eta
ostiko ederrez
airean bota zuen
putza bezain errez.
- 8 Bi txerriek korrika
alde egin zuten,
handiaren etxean
sartu ziren zuzen.
Otsoaren begiak
atzetik zituzten,
kankailuak bakean
ez zituen uzten.
- 9 Adreiluzko etxea
bai etxe bikaina,
taxuz egina eta
gainera apaina.
Otso pikaro hura
saiatu zen baina...
Zer txikituko eta
ia lepagaina!
- 10 Etxe ederrak zeukan
teilatu gorria,
ta bertan tximinia
ikaragarria.
Handik sartu zen gero
otso elbarria...
Behean eman zioten
ongi etorria.

11 Txerriek egin zuten
berebizikoa:
urez beteta jarri
sutan lapikoa.
Han erori zen, plasta!,
otso ijitoa...
Hango orrua eta
hango ostikoa!

12 Erabat kixkalduta
buztan eta guzi
han joan zen mendira
betiko ihesi.
Geroztik ez du inork
otsoa ikusi...
Arraioak ez zuen
besterik merezi.

Zarautzen, 1986ko neguan

Goseak hildako haurrari

(Gabon-kanta)

Doinua: *Lagundurikan danoi.*

Gosearen gauean
ezaren lausoak
besarkatu zituen
zure gurasoak.
Jaio zain zenituen
amaren besoak,
ezer eskaintzekorik
ez zuen gaixoak...
Egunak ez zaizkizu
gertatu gozoak.

2 Goseak zaude, haurra,
ez esne, ez arto,
sortu zinen herrian
sortu zinelako.
Heriotzaren mende
jaio ordurako,
garrasika zaitugu,
negar eta malko.
Non dago errukia,
non zara, ene Jainko?

5 “Errua ez da nirea,
ez badut bularrik;
zerbait emango dizut,
ez egin negarrik”.
Amaren ahaleginak
izan dira alferrik.
Hildako haurrak ez du
bertsoen beharrik.
Gosearen gauean
ez dago izarrik.

Andoainen, 1985eko Gabonetan

Joseba Goikoetxea ertzainaren hiletarako

Doinua: *Lagundurikan danoi.*

Agur eta ohore,
Joseba laguna,
abertzale leiala,
ertzain bihoztuna.
Zutik duzu herria,
zutik euskalduna,
azken arnasaraino
zerbitu duzuna,
lekukoa hartzera
etorri zaizuna.

2 Herriari eskaini
diozu guzia:
gaztetatik bizitza
ta orain bizia.
Zeruko aita, entzun
gure irrintzia:
bake-hazia bedi
ernetzen hasia
laster lurperatzera
goazen hazia.

Zarautzen, 1993ko azaroaren 27an

Loiola irratiari zilarrezko ezteietan

Doinua: Xabier Letek *Gizon arruntaren*
koplak kantatzeko erabiltzen duena.

- 1 Kopla eske jarria
daukat Azpeitia,
ea non ezkutatu
dudan trikitia,
omendu behar dela
Loiola txikia,
hogeita bost urteko
herri-irratia.
- 2 Re-si-si-si-do-re-re.
re-mi-do-do-re-si,
egindakoa koplaz
nola adierazi;
txalorik beroenak
baititu merezi,
panderoz hasi behar
irrintzi ta guzi.
- 3 Geroari irrintzi,
lehenari txalo,
loratuak ditugu
makina bat arlo;
alferrik izan dira
hainbat txorimalo,
zutik dago Loiola,
etzanda Tartalo.

- 4 Bateko trumoia ta
besteko tximista,
etsaiak ez zaizkizu
ibili erdizka;
uxatuak dituzu
ora-pro-nobis-ka,
baina oraindik ez da
bukatu konkista.
- 5 Beldurrez erne zinen
negu garratzean,
egunsentia urrun
zuen arratsean;
udaberri gozoak
horma urratzean,
loratua zintugun
euskal baratzean.
- 6 Ernemuina besterik
ez zinen neguan,
amets egin genuen
zure inguruan:
sendoa haziko da
haritzen moduan,
euskararik ez zaigu
faltako orduan.
- 7 Euskararen aldeko
apustu nekeza,
zenbaitetan gozoa,
hainbatetan geza;
zuhaitz lerden zaitugu,
neguko ametsa,
denok espero dugun
udaren promesa.

- 8 Euskal baratze hontan
ez zara bakarra,
baduzu ondorenik
zuhaitz goiztiarra;
horra sortu berriek
dakarten indarra,
denen beharrean da
euskara zaharra.
- 9 Arginabarra dugu
goizaren atari,
langileak ez dio
beldur egunari;
geroa izango da
gaurkoaren sari,
irrintzia dario
udaberriari.
- 10 Txaloka ez da aspertzen
pandero txikia,
baina jaso beharra
daukat trikitia;
hona agindutako
koplak, Azpeitia...
Zuekin Loiolako
Herri-irratia.

Zarautzen, 1986ko udazkenean

Elgoibarko ikastolari zilarrezko ezteietan

Doinua: Xabier Letek *Gizon arruntaren koplak* kantatzeko erabiltzen duena.

1 Elgoibarko herritik
dator irrintzia,
koplatzeko eguna
dela iritsia;
astintzen hasiko naiz
trikiti bitxia,
ea dantzen jartzen den
euskal probintzia.

2 Do-la-la-la-si-do-do,
do-re-si-si-do-la,
irakiten daukagu
zainetan odola,
zilarrezko ezteietan
baita ikastola,
hogeita bost urteko
poza dariola.

3 Hogeita bost urteko
lanaren frutuak
kantari jarri ditu
koplari mutuak;
gero izango dira
geroko kontuak:
nola geldiarazi
dantzari sutuak?

- 4 Urrunzuno ikastolak
jarri gaitu dantzan,
Elgoibarrek apustu
egin zuen plazan;
borroka gaizto hura
irabazi bazan,
ez gaitzela bizi
alfer esperantzan.
- 5 Euskaldunok bat izan
gineneko oroitza,
garrasi bihurtua
duzu nire otoitza:
euskarari lotuta
gutako bakoitza,
lehenago etorriko
litzaiguke goiza.
- 6 Euskaldunok bat izan
gineneko irria,
amets bihurtu duzu
nire egarria:
euskalduntzen ari da
gure Euskal Herria,
egun zaharra joanda,
badator berria.
- 7 Euskaldunok bat izan
gineneko izarra,
irrintzi egin duzu
nire deiadarra:
oraindik ere badu
euskarak indarra,
suspertzen ari zaigu
gure herri zaharra.

8 Euskaldunok bat izan
gineneko zaina,
geroari begira
zaitugun oraina;
euskararen borroka
luze doa baina
laster hartuko dugu
dagokigun gaina.

9 Elgoibartarrak bildu
zenituen plaza,
dantza bihurtu duzu
hainbaten balantza;
inoiz loratuko da
gure esperantza,
zilarra hartzen ari da
urrearen antza.

10 Urrunzuno ikastola,
lehenaren sari,
zilarrezko ezteietan
gaituzu dantzari;
arginabarra dugu
goizaren atari,
irrintzia dario
Euskal Herriari.

Zarautzen, 1987ko udaberrian

Ai, ene Jainko

22. salmoa

Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa.*

- 1 Ai, ene Jainko, zergatik nauzu
bakardade hontan utzi?
Deiadarka ere nere otoitzik
ezin zugana iritsi.
Gau eta egun ari natzaizu
deika oihu ta irrintzi,
beldur naiz oso ez ote zaren
gutaz betiko ahantzi.

- 2 Zu izan zinen gure arbasoen
esperantzaren oinarri;
ez zenituen sekula utzi
auzokoen lotsagarri.
Baina ni ez naiz har bat besterik,
denak ditut barre eta irri:
“Jainkoarengan zuen uste on,
nola ez zaio etorri?”

- 3 Zuretzat hartu ninduzun, Jauna,
amaren magal gozoan.
Zu izan zaitut Jainko bakarra
nere bizitza osoan.
Baina gaur ez dut zure berririk
gau ilunaren lausoan,
lagunak ditut urrun joanak
ta etsaiak erasoan.

4 Aldamenean ez dut ikusten
basapiztia besterik.
Ai, nere gorputz honetan banu
mindu gabeko hesterik!
Etsipenaren leizetik nauzu
galdezka minez beterik:
ez ote dago bihotzondoko
zauria behingoz ixterik?

5 Ez zaitezela nigandik urrun,
Jaun zintzo eta zuzena.
Ken iezadazu esku amoltsuz
bihotzondoko eztena.
Eta zugana itzuliko naiz
gose-egarri naizena,
denen aurrean goretsiko dut
hain handi duzun izena.

6 “Zorion bila zabiltzatenok,
zain daukazue Jainkoa,
kontuan izan azaldu duen
bihotz neurrigabekoa.
Haren eskuak xukatuko du
nahigabetuen malkoa,
gozoz beteko erruki eske
dagoenaren golkoa”.

7 Eta zugana itzuliko da
urrun dabilen gizona,
zure ondoan aurkituko du
galdutako zoriona.
Eta kantari hasiko zaizu
luzaro mutu egona:
“Sorkari orok gora dezala
gure Jainkoaren ona”.

Zarautzen, 1988ko neguan

Ohean jarriak

Doinua: *Aitzak, i, mutil maiñontzi.*

- 1 Esaeren erresuma,
zaharra bezain kutuna,
herri-jakintzak jorratu eta
eskaintzen diguna.
Handik dator oihartzuna,
gaixoaldian entzuna:
ondasunetan ondasunena
dela osasuna.

- 2 Ez agur eta ez kaixo,
gaitz txarrak zidan eraso,
lehen sasoiko izandakoa
orain nago gaixo.
Hamaika ondasun gozo
gogoko ditugu oso,
baina osasuna galtzen denean
etxea ere auzo.

- 3 Gaitzak indarrean dirau,
bere menpeko egin nau,
oraindik ere ohean nago,
atsedena arau;
ordu guztietan barau,
eguna bera ere gau,
eta galdera bakarra lagun:
noiz arte jipoi hau?

- 4 Sasoia bete-betea,
ondo nintzen bitartean,
ez nekien zer ondasun neukan
nik neure artean.
Osasunaren atean
gaitzak jo zuen urtean
ohartu nintzen zer galdu nuen
harekin batean.
- 5 Dohairik pozgarriena,
bikain eta ederrena,
erdi galduan ikusi eta
aintzat hartzen dena.
Ondasunetan aurrena
eta beharrezkoena:
zertarako du ontzi hautsiak
urrezko kirtena?
- 6 Ondasun askoren labe,
guzti-guztien zutabe:
zer da gizonik aberatsena
osasunik gabe?
Oinaze eta nahigabe,
ari da galde ta galde
noiz egingo den berriro ere
sasoiaren jabe.
- 7 Burua zuritu ahala
zimurtuz doa azala,
pausoa baldar, gorputza oker,
dinbili-danbala.
Hau bizimodu petrala!,
zertarako kapitala,
diruaz ezin indartu bada
osasun makala?

8 Bizitzaren arratsean
osasuna makaltzean,
beste ondasun guztiek ere
sua isatsean;
zaharraren bihotzean
esperantza otoitzean:
ez ote zaigu dena amaituko
mundua amaitzean!

Zarautzen, 1988ko udaberrian

Aitona gorra nuen

Doinua: Hamalau heriotzena.

1 Aitona gorra nuen,
halaxe dut aita,
ni ere gortuz noa
gaitzak hala nahita.
Nire mindura ezin
hitz arruntez aita;
bertsotan jarriko dut
doinuz eta sailka,
kantatutako pena
pena erdi baita.

2 Neure umetan zorrotza
nuen belarria;
gaur bat ia galdua,
bestea erdia.
Lehen dena entzuten nuen:
haize bihurria,
eulia hegan eta
urrun zintzarria...
Orain isiltasuna
dut hots-iturria.

3 Gaitzak belarriari
gaina hartu dio,
hamaika hots bihurtu
zaizkit murmurio.
Alai hazi nintzena
gaur nabil serio,
gorreriaren zama
dudala medio.
Beldur den gizonari
dardara dario.

4 Gorraren inguruan
dena isiltasun,
ba al dakizu, gaitza,
zer dakarkidazun?
Umetako larrosa
bihurtu zait asun,
gaztetako ametsen
eztia behazun.
Goizaren irrintziak
arratsa oihartzun.

5 Lagunaren ezpainei
darien hitz-hotsa
nigana iritsita
bihurtu izotza;
iturburuan epel,
amaieran hotza.
Hau isolamendua,
hau itzal mingotsa!
Bakardadeak ez du
urrun heriotza.

6 Betiko isiltasun
zaren heriotza,
belarrietara zait
heldu zure hotza.
Umetan egutera
nuen nik bihotza,
gaur itzalaren mende,
neguko laiotza:
ez daukat entzuterik
kukuaren hotsa.

7 Negu dut bihotzean,
ez epel, ez kuku,
itsasoa bera ere
ia-ia mutu.
Zientziak ezin du
hormatzarra sutu;
hormak ere ez, ordea,
bizi-poza urtu.
Jaio izana ez zait
oraindik damutu.

8 Ai, zenbat abentura
zoriona aitzaki!
Gaztearen odolak
su gabe diraki.
Nire bizi-pozaren
izarrak badaki
bere bila ibili
naizela ausarki.
Kanpoan uste eta
barruan izaki.

9 Isildu zaidanean
kanpoko alorra,
barnean aurkitu dut
urrezko altxorra.
Nire bizi-pozaren
izar iheskorra,
zu galtzeko bildurrak
zulatu nau, horra!,
hain zara eskuragaitza,
hain zara hauskorra.

10 Bihotzean sartua
daukat hotzikara:
gaitza, ez zaitez pasa
seme-alabetara.
Mundualdi hau minez
bizitzeko al da ba?
Lehen ere joa duzu
gurean aldaba.
Errugabeak dira
Haritz eta Ainara.

Zarautzen, 1988ko abuztu-irailean
Irabazle, I. Orixe sarian, 1988an

Umetan izan nuen (I)

Doinua: Hamalau heriotzena.

1 Umetan izan nuen
lagun bat aztia.
Behin agur esan nion
malkotan bustia.
Harekin hizketan dut
pasa goiz guztia.
Zein oroigarri eder,
polit ta ezta
gu biok elkarrekin
gauden argazkia!

2 Zuri-beltzean dago
argazki xaharra,
nire irribarrea
ta haren bixarra.
Gero etorriko zen
gure zoritxarra:
haren heriotz hura
ta nire negarra,
biok elkarrengandik
bereizi beharra.

3 Baserrira joaten
ginen bakoitzean
hantxe ikusten nuen
beti jolasean:
sarri sasi artean
besterik ezean,
inoiz soka etenda
alai baratzean...
Begiak urtzen zaizkit
hartaz oroitzean.

4 Pixkana-pixkanaka
egin ginen lagun.
Ai, jolastea zenbat
atsegin zitzaigun!
Elkarrekin genuen
pasa hainbat egun,
hura antxume nabar,
ni galtza-zuridun...
Amonak hitz gozoak
esaten zizkigun.

5 Esku batean soka,
bestean amona;
sokatik antxumea,
zein antxume ona!
Hala ibiltzen ginen
hara eta hona.
Hala osatuko zen
nire zoriona,
argarki xaharrari
ezti dariona.

6 Baina egun batean,
hotza goi eta behe,
soka aurkitu nuen
antxumerik gabe.
Larritu nintzen eta
amonari galde.
Tristeak nekez baina
erantzun halare.
Mina egin zitzaidan
bihotzaren jabe.

7 Goizean omen zuen
aurkitu hilotza:
gaixoa atarian,
kanpoan izotza.
Orduan jakin nuen
zer den heriotza:
dena zulatzen duen
ezpata zorrotza.
Oraindik ere ez zait
sendatu bihotza.

8 Lurpean sartu zuten
baserri atzean,
sasiak hartutako
zoko laiotzean.
Geroztik inguratzen
naizen bakoitzean,
lore jaio berria
zain dut baratzean.
Eguterarik bada
nire bihotzean.

9 Amona hil zitzaidan,
ai!, geroxeago,
gizon izaten hasi
baino lehenago.
Beste bat halakorik
ikusteko nago.
Zeruan izango da,
zerurik badago,
izar guztiak baino
askozaz gorago.

10 Umetan izan nuen
irri bat gozoa.
Haren bila daramat
bizitza osoa.
Aurkitu bitartean
hortxe dut jaso
argazki xaharrean
irribarre-soa,
eta aldamenean
antxume gaixoa.

Zarautz, 1991ko irail-urrian
Irabazle, IV. Orixe sarian, 1991n

Umetan izan nuen (II)

Doinua: Hamalau heriotzena.

Umetan izan nuen
hamaika jostailu:
pilota, automobil,
zerra eta mailu...
Ustekabean nintzen
bihurtu kankailu,
eta txikitakoa
juzgatu kaskailu...
Nola zapuztu nuen
hainbat edergailu?

2 Jostailuen artean
zenbat une gozo!
Bat izan omen nuen
gogokoa oso.
Botila txikia zen,
marroia akaso.
Olatu batek zidan
eraman airoso.
Nora joan ote zen
itsasoz itsaso?

3 Medikuak emana
omen zen botila,
niretzat sendagarri
hain nintzen zurbila.
Amak nahi baininduen
sasoiko mutila,
eguzkirik ezean
hondartzara bila...
Zer aurkituko eta,
zain lapur isila.

4 Hondartzan zenbat jende,
ur eta eguzki,
zenbat gozo-saltzaile,
zorro eta saski!
Argazkilari batek
pare bat argazki
egin omen zizkigun
gozo eta ezti...
Bakarra dut jaso,
botila ta guzti.

5 Eskuinean botila,
bestean anaia,
han urruti Ulia,
hurbilago kaia.
Gero etorriko zen
olatu etsaia
ta itzaltzen hasiko
kopeta alaia...
Helduko ote zaio
pizteko garaia!

6 Argazkiak atera
eta berehala
hondartzan omen ginen
nola edo hala.
Hurbildu da isilik
olatu zitala,
ikusi du botila
alboan dudala,
ustekabeen kendu
eta badoala.

7 Negarrez hasi eta
negar eta negar...
Bihotz-minduarentzat
dena da ezbehar.
Botila urrun eta
begiak urtzear,
amak ezin kontsola
egunean zehar...
Ez omen nuen beste
jostailurik behar.

8 Botila txiki hura
hain nuen begiko,
nola esan galdua
nuela betiko?
Neure setari eusten
omen nion tinko:
“ez al dit olatuak
berriz ekarriko?”
Noizbait iritsiko zen
aitona Benito.

9 Nolako pena ote
nuen arratsean,
botila galdutako
egun garratzean?
Zer esan ote zidan
aitonak heltzean?
Zenbat galdera sortzen
zaidan bihotzean,
argazkia ikusten
dudan bakoitzean!

10 Zaude zeure txokoan,
argazki xaharra,
botila kutunaren
oroipen bakarra.
Zaude zuri-beltzean,
irri goiztiarra,
betiko joanaren
oihartzun nabarra,
noizbait beteko diren
ametsen sugarra.

Luz de Ardiden-en hasi eta Zarautzen amaituak,
1992ko apirilaren 23an, aitona Benito hildako
hogeita hamabigarren urtemugan.

*Hirugarren saria, V. Manuel Lekuona bertso-paper-
-lehiaketan, 1992an*

Umetan izan nuen (III)

Doinua: Hamalau heriotzena.

1 Umetan izan nuen
zaldi bat gorria,
aitonak Tolosatik
udan ekarria.
Argazkian jaso
dut oroigarria,
alabaren logelan
zintzilik jarria.
Noiz apurtzen ote da
haurraren irria?

2 Zaldia txikia zen,
nire antzekoa.
Leuna zuen bizkarra,
luzea lepoa.
Harekin izan nintzen
zorionekoa,
sarritan hartu arren
nik kaskarrekoa.
Aitonak gozo zidan
xukatzen malkoa.

3 Zaldi gainean zenbat
jira eta bira,
etxeko terrazatik
sukalde erdira!
Aitona izaten nuen
alboan begira,
batean bultza eta
hurrengoan tira.
Ai, haurraren pozari
darion distira!

4 Baina egun batean
jolasa desegin:
zaldi jostailuari
gurpilak huts egin.
Aitonak egin arren
hamaika ahalegin
berriro ibiltzeko
gauza gerta zedin,
ezin izan genuen
inola berregin.

5 Alferrik egon nintzen
mirari peskizan.
Ai, zenbat horrelako
geroztik bizitzan!
Beste gurpil bat ere
nekatu bailitzan
lo geratu zitzaigun
hautsaren gerizan.
Jostailu hura ez zen
berriz zaldi izan.

6 Handik pixka batera,
jolasguraz nagi,
begira egon nintzaion
zaldi izanari:
kartoi-puska zerion
belarri-ertzari,
sentimendu galdua
begi itsuari...
Zer esan ote nion
aitona zenari?

7 Ez zen txikia izan
haren ondorena:
jolaslagun hautsiak
utzitako pena.
Gerora ohartu naiz,
“hortxe duk eztena!”,
biak une berean
galdu zituena,
zaldi izana eta
jostailu izena.

8 Egunak pasa ziren
azkartxo aukeran,
kartoizko tramankulu
hutsaren galeran.
Ke bihurtu zitzaigun
San Joan bezperan,
hodei artera ihes
hegan eta hegan,
hamaika amets ere
joan zaigun eran.

9 Baina oraindik orain,
arrats gorri batez,
zerua apaindu zen
irudi politez.
Zaldia ere hantxe
nuen begitartez:
keinuka ari zitzaidan
jostari-aldartez...
Irribarre egin nion
aspaldiko partez.

10 Ai, zer-nolako poza
hartaz oroitzean!
Geroztik ez naiz bizi
mundu arrotzean.
Zerura begiratzen
dudan bakoitzean,
bakea sumatzen dut
neure bihotzean.
Hantxe dabil zaldia
jostailu ortzean.

Zarautzen, 1994ko otsailean

Irak aldera begira

Doinua: *Denbora, leku, zeru ta lurrak.*

- 1 Bertso berriak jartzera noa
gertatu dena esaten:
nola aurtengo udaran ia
gerra piztu zen Iraken.
Ekaitza urrun harrotu eta
hementxe zela ematen...
Bakealdian mundua ez da
horren txikia izaten.
- 2 Iraken buru dago gizon bat,
denok dakigu ondo zein:
sendo, kankailu, biboteduna
ta izenez Sadam Husein.
Umeak handi bihurtzen ditu
eta handi-mandiak sein...
Egun gutxitan ikusi dugu
hura ez dela edozein.
- 3 Sadam Huseinek urte-mordoa
omen darama borrokan,
lehen Iranen, orain Kuwaiten,
beti sesio-erronkan.
Zentzun askorik ez dago salgai
armamentuen azokan,
edozein zorok ipin lezake
mundu osoa kolokan.

- 4 Herri guztiak hartuak ditu
ekaitz, tximist eta laino,
nola handiak hala txikiak
menpean izateraino;
grinak pizteko hobe baite
ezer itzaltzeko baino,
petrolioak dardaraz gauzka
ertz batetik besteraino.
- 5 Lur-azalean harea eta
barnean petrolio...
Beti izan da tentagarria
ezkutuko balioa.
Kuwait aldera begira dago
askoren amodioa,
barrez hasita negar-malkotan
urtzen den istorioa.
- 6 Grina itsuak mugitu ohi du
nork daki zenbat mugarri,
etxeak auzo bihurtu eta
auzoak etsai hilgarri.
Egunsentiko gaiztakeria
gauean borroka larri...
Beroaldian eraman dena
ezin hotzean ekarri.
- 7 Gutxi duenak zertxobait nahi du,
asko duenak gehiago...
Inor konforme ez den tokian
gozoarentzat jai dago.
Aurreko gerra izaten baita
hurrengoaren arrago,
beti ihesi dugu bakea,
gero eta urrunago.

8 Bake-ametsak urrunduz doaz
ihesi eta ihesi;
gerra-irrika beti barruan,
ez neurri eta ez hesi.
Bihotzondoko basapiztia
ez badezakegu hezi,
gutako inork ez du inola
gizon izenik merezi.

9 Ametsak amets, ezinak ezin,
hau betiko tirabira!
Izarrak urrun egoteari
zor dio bere distira.
Ai, zenbat egun eta gau larri
Irak aldera begira!
Ai, berri onen hegalak ere
hegal bizkorrak balira!

10 Uda beroa joan da eta
heldu zaigu udazkena.
Inork ez dio oraindik kendu
espoletari eztena.
Bertsolaria ixtera doa
plazako bertso-taberna.
Ai, gau gozoak leunduko balu
Irak aldeko galerna!

Zarautzen, 1990eko udazkenean
III. Orixe sariaren irabazle, 1990ean

Bosgarren mendeurrenean

Doinua: *Anaiak gara lapurditarak.*

Arrenal.

Anai-arrebok, herri ta harri,
egin negar eta antsi,
samin-egunak ditugu eta
dolu-soinekoak jantzi.
Itsasoz heldu zitzaigun harro,
arma eta oihal-ontzi.
Gure baratza hondatu zuen
eta frutua ebatsi.
Berehalaxe zien bidea
gehiagori erakutsi.
Iritsi ziren, iritsi
erronka eta irrintzi.
Geroztik hemen dabilta sutsu,
eraso eta erauntsi...
Zeruak poza galdu du eta
gauak eguna irentsi.

2 Etorri omen ziren herria
zulotik ateratzera,
gure artean zorionaren
berri ona zabaltzera.
Geroztik hemen gabiltza goibel
aurrera eta atzera,
eguzkiaren gozorik gabe
arratsetik arratsera,
gaur jauntxo honen morrontzan eta
bihar hura zerbitzera;
esku batetik bertzera,
abelgorrien antzera...
Ustekabean erori ginen
erabateko leizera,
eguntxintaren argi gorritik
gau ilunaren beltzera.

3 Eguedian etorri ziren,
zein eguerdi urruna!,
geroztik hemen dabilta nahas
lanbroa eta lurruna.
Ez zen batere samurra izan
guretzat biharamuna,
gure azkena idazteko prest
arrotzaren sasi-luma:
“argi berria indartuz doa,
menderatu du iluna”.
Zorigaiztoko eguna,
ahaztuko ez duguna,
egunsentirik gabeko gaua
betiko utzi ziguna,
gure lehena ukatu eta
geroa ito diguna!

4 Zorigaiztoko egun beltz hartan,
heldu zitzaigun arrotza,
esku batean gurutze hitsa
ta bestean heriotza.
Ekarri zigun bere legea,
ezarri bere morrontza,
bateko lana, besteko zerga,
harako arau arrotza,
etengabeko hondamendia,
oinazea eta bortxa.
Eguneroko aiotsa,
isila bezain mingotsa!
Anai-arrebak urruti eta
maitea, berriz, hilotza...
Nola kontsola ote daiteke
hitz-gabetuon bihotza?

5 Zorigaiztoko egun beltz hartan,
zein egun negargarria!,
heldu zitzaigun arrotza eta
galdu genuen irria.
Ordukoa da oraindik ere
daramagun uztarria,
askatasuna murriztu eta
kentzen digun lokarria,
gizon zuriak Jaungoikoaren
izenean ezarria.
Mindutako eztarria,
non duk oihu lazgarria?
Orduko dataz zizelkatua
zegok gure hilarria:
“hementxe datza aurrerapenak
irentsitako herria”.

6 Sinestu gero aspaldi hartan
zorientsuak ginela,
inguru hauek oparo eta
zoragarriak zirela.
Baina egun beltz negargarrian
etorri zen karabela...
Urre-egarriz bete-betea
omen zekarren sabela...
Ordu arteko gure goiz-poza
bihurtu zuen gaubela...
Ai, idazkari krudela,
sasiko hargin ergela!
Noren aginduz astindu dituk
mailua eta zizela?
Zeinek esan dik gure herria
aurrerapenez hil zela?

7 Hondatu zuten gure oihana,
txikitu gure baratza,
agortzeraino hustu ta hustu
gure betiko meatza.
Gaur sasiaren mendean dago
atzoko lur aberatsa,
gaitzak hartuta hain osasuntsu
izan genuen arraza.
Ai, zer-nolako hondamendia,
ai, zer-nolako triskantza!
Herri suntsituen hatsa
berpizten ez da erraza.
Anai-arrebok, oraindik ere
bizirik dugu arnasa,
baina nolatan jai-giroz jantzi
itxaropenaren plaza?

8 Ia erabat itzali zaigu
itxaropenaren garra.
Goizik gabeko gaua dugu gaur
atzoko ilunabarra.
Onartu gabe gizon zuriak
eskainitako zilarra,
izan dezagun geure samina
kanporatzeko indarra,
aurrerapena madarikatuz,
ukatuz halabeharra.
Bost mendetako negarra
isilik gorde beharra...
Horixe al da hitz-gabetuon
kontsolamendu bakarra?
Hiztunen batek jasoko ahal du
ezinduon deiadarra!

Zarautzen, 1992ko uztailean
Aipamen berezia, V. Balendin Enbeita sarian, 1992an

Ni ere Sevillan nintzen

Doinua: Leteren habanera.

libre Joan den uda beroan
ni ere Sevillan nintzen,
bertako kale-bazterrak
neure itzalez zerbitzen.
Olinpiaden ondoren,
oraindik patrikak gizen,
Andaluziaren deia
nuen golkoan aditzen.
Lagunen talde osoa
hara tiraka ari zen;
ez zitzaigun asko kosta
Expo ingurura biltzen.
Laster ginen talteago,
ez izan eta ez izen,
gaur inork gutxik baitaki
bere kontura ibiltzen.

2 Itsumustuan joana
propagandaren amura,
ni ere Sevillan nintzen
beste askoren modura.
Begiak zabal-zabalik
eskainitako mundura:
“bai gauza miresgarria
gizonaren abentura!”.
Handik kanpora irtenda
ikusi nuen mindura.
Hauts bihurtu zen kolpetik
ametssetako lilura.
Negarra irten zitzaidan
gupidaren agindura.
Zein tarte hutsa dagoen
sasi-pozetik damura!

3 Damutik damura nabil,
erdi fraile, erdi apaiz,
asper-aspertzen hasia
juez arrotzaren epaiz.
“Ni ere Sevillan nintzen”
entzungo didazue maiz,
baina ez dena sinestu,
ohartu zaituztet garaiz.
Nola amets egiteak
sendatzen duen hainbat gaitz,
nekea arindu eta
baretzen hamaika ekaitz;
nola goizero ez naizen
jaikitzen umore alaiz,
amets-bidean bertsoan
sarritan ibili ohi naiz.

4 “Exporen antzeko zer bait
ez dezakek gutxietsi.
Ez duk besterik izango,
ez bihar eta ez etzi”.
Zurumurruen hotsera
ikusi gabe sinetsi,
ni ere Sevillan nintzen,
joateke ezin etsi.
Kartujako esparruan
dena eder eta bitxi,
zenbat zoko miresgarri,
zenbat argi eta pitxi!
Gaueko neskatxak, berriz,
gozo, ezti eta txitxi,
ez zizkidaten ateak
berehalakoan itxi.

5 Egunez jirabiraka,
gauez bira eta jira...
Halakoetan nekeak
arinak izaten dira.
Urruntasunak golkoan
sortzen baitigu gupida,
etxe-zuloan beltz dena
etxetik kanpo zuri da.
Ni ere Sevillan nintzen
liluraturik begira:
“ai, gure txoko arreak
horrelakoak balira!”.
Hango ederraren xarma,
hango bazterren distira!
Gozoago izan ohi da
beti auzoko mizpira.

6 Han pasatako egunak
motzak gertatu zaizkigu.
Hango oroipen gozoak
gaur tropelka datozkigu.
Eguneroko morrontzan
zenbat min eta kastigu!
Argi bila dabilenak
zirrikitu bat aski du.
Lagun-taldean galduta,
noraezean gatibu,
ni ere Sevillan nintzen
zoramenaren testigu.
“Amets” bidai ajentziak,
ez gidari, ez izkribu,
joan-etorri guztiak
asko erraztu dizkigu.

7 “Amets” bidai ajentziak
baditu zenbait alderdi.
Hartaz baliatzen gara,
nola otso hala ardi.
Berria zahar eginez,
zaharra trukean berri,
dendariak ondo daki
gure gutizien berri.
Hamaika bazter ikusi,
denak txukun eta garbi,
irudi, musika, margo,
soinu, dantza eta argi.
Ni ere Sevillan nintzen,
auzoz auzo, herriz herri,
patxada eder askoan,
ez zapata, ez galtzerdi.

8 Trenbideen arrastoan,
Kosta, Talgo eta Ave,
ametssetako herritan
ibilia naiz herabe.
Ahaztuko nuelakoan
makina bat atsekabe,
udan jiratuak ditut
hainbat zoko goi eta behe,
andaluzekin andaluz,
arabeekin arabe,
mirabearekin jauntxo,
jauntxoarekin mirabe,
bihotz bakarreko baina
mila aurpegiren jabe...
Ni ere Sevillan nintzen
etxetik mugitu gabe.

Zarautzen, 1992ko udazkenean
Irabazle, Joxe Legarreta bertso-paper lehiaketan, 1993an

Banoa Santiagora

Doinua: Leteren habanera.

Adio, seme-alabak,
banoa Santiagora,
egun batzuetarako
Euskal Herritik kanpora.
Galiziako haizeak
erabat gaitu aztora.
Aurten hara joan gabe
ezin mugitu inora.
Badabil hamaika lagun
zoko gaiztotik gaiztora,
esku batean makila,
saihetsean kantinplora.
Nik ere egin dezadan
nolabaiteko aproba:
zintzo emandako hitza
zintzo bete beharko da.

2 Ondo aspertuta nago
lagunen betiko bromez.
Banoa Santiagora
ehun kiloko erromes.
Atzean utziko ditut
Naxera eta Briones,
aurrerago agurtuko
bi kinto-lagun leones.
Compostelara helduta
egundoko zorionez,
emazteari bi musu,
santuari hiru promes.
Aitona zenak amari
sarri esan ohi zionez,
indulgentziarik ez da
etxean bapo egonez.

3 Bateko indulgentziak,
besteko jubileoak;
ai, zenbait errosario
zurrumurruan ehoa!
"Banoa Santiagora",
erromesaren leloa,
"izarrek zaindu ohi dute
bidaiariaren loa".
Ibiliaz gaintitzen da
alferren errezeloa,
urratsez urrats suspertzen
nagian pauso geldoa.
Santuaren oinetan dut
utziko sari xaloa.
Ez ote dit ukatuko
merezitako txaloa!

4 Xacobeo horrek ditu
bazter guztiak astindu,
erreumak sendatu eta
aldapak nonbait berdindu.
Emaztea ere han dut.
Telefonoz hots egin du.
Banoa Santiagora,
halaxe diot agindu.
Badakienak badaki,
ez dakienak jakin du
pausoa nola markatu,
noiz moteldu, noiz arindu.
Ai, santuaren eskuak
santu egingo banindu!
Meiga arrotzek bederen
ez nazatela sorgindu.

5 Antzinako erromesak
Erroma zuen helburu,
arriskua desafio
eta fedea sorburu;
garkook, berriz, ametsa
nahikoa izaten dugu
etxetik aldegiteko,
eta ahal bada seguru.
Banoa Santiagora,
emaztea estakuru,
kontua suelto eta
hamaika itzulinguru.
Bihar bertan irtengo naiz,
ez makila, ez makulu,
lepo gosaldu ondoren,
kafe, kopa eta puru.

6 Hamar ordu lo eginda
eta sabela gainezka...
Flakian ez erortzeko
botika hoberik ez da.
Berehala hasiko zait
barrunbetako orkestra,
hesteek eta besteek
egingo duten protesta.
Baina zuzen agindua
nolatan bete trabeska?
Banoa Santiagora,
nigatik ez behintzat kezka.
Norbait galduta baletor
non naizen edo galdezka,
erantzun amaren bila
joan naizela iheska.

7 Aire gazi-gozoa du
erromesaren baladak,
maiteminduen dardara
bihotz-barneko taupadak.
Aire gaitutuko ditut
kaleak eta karkabak,
aldapak, bihurguneak
eta gainerako trabak.
Ez nau izutzen egunak,
are gutxiago gabak:
ezagun zaharrak ditut
lau izarreko aldabak.
Banoa Santiagora,
adio, seme-alabak,
ondo zaindu baserria
eta baratzeko babak.

8 Bakarrik dagoenari
den-dena zaio arrunta,
nola gaueko txanpaina,
hala goizeko bermuta.
Compostelan dugu ama,
hostal batean sartuta.
Handik deitu dit gaixoak,
joateko erreguka.
Telefonoz ari zela
sumatu dut aspertuta,
erdi nazkatzen hasia
eta umore txartuta.
Laguntza behar duenak
azkar-azkar behar du ta,
banoa Santiagora
kotxe gorria hartuta.

Zarautzen, 1993ko udan
Irabazle, VI. Orixe sarian, 1993an

Aitona galdu nuen urtean

Doinua: *Egun lanerat abiatu zait.*

- 1 Aitona galdu nuen urtean
zer gehiago nuen galdu
zauri zaharrak berritu gabe
ezin dezaket azaldu;
baina bihotzak behar adina
adore izango ahal du,
umetan hiltzen hasitakoa
ez dadin guztiz itzaldu!

- 2 Aitonarekin zenbat hizketa,
zenbat jolas eta ipuin,
bihotzak zenbat amets pozgarri,
ametsek zenbat ernamuin!
Gero gozoa mikaztu eta
maitea bihurtu higuin...
Izango al naiz galdutakoa
berriz eskuratzeko duin?

- 3 Zazpi kolore zituen nire
umetako ostadarrak,
bat besterik ez, hori urdinxka,
egungo ilunabarrak.
Non ote dira aitonarekin
pintatutako izarrak?
Non ote dira lore berriak
eta arbola zaharrak?

- 4 Aitona galdu nuen urtean
utzi nituen jolasak,
izar txikiak pintatze eta
loreekiko solasak.
Ordu arteko ume-moldetan
larritutako arnasak
atseginago zituen nonbait
helduen denborapasak.
- 5 Aitona izan nuen umetan
bizi-pozaren giltzarri...
Hura betiko loak hartzean
betilun nintzen itzarri,
bihotza ixten hasi zitzaion
ez dakit zenbat izarri,
atseginago nituen nonbait
gaueko hainbat zintzarri.
- 6 Zazpi uztaiko ostadarra zen
nire umetako hura,
eta zazpiak bakarra ziren,
berandu nintzen kontura.
Dena nahi nuen, dena batera,
etena eta lotura,
jostailuaren kanpoko xarma
eta barruko lilura.
- 7 Urtetan zehar ibilia naiz
ez izar eta ez ipuin,
gauaren hotzak zapuztua dit
nork daki zenbat ernamuin,
ostadar hura hauts bihurtu zen,
ez gailtzarri eta ez zuin...
Izango ahal naiz galdutakoa
berriz eskuratzeko duin!

8 Aitona galdu nuen urtean
zer gehiago nuen galdu
zauri zaharrak berritu arren
ezin izan dut azaldu;
orduan hiltzen hasitakoa
ez bada guztiz itzaldu,
oraindik naizen ume-hondarrak
etorkizunik ez al du?

Zarautzen, 1992ko udazkenean

Ai, ene Jainko!

AI, ENE JAINKO!

*Lotolako Iñigok
22. salmoaren harian
egindako otoitza,
Giampietro Carafa kardinala
1554.eko maiatzaren 5ean
Paulo IV. Aita Santu egin zutenean*

*Jose Ignazio Telletxea Idigorasi esker onez,
Ignazio Ellakuriaren oroimenez eta
Pedro Arruperen omenez*

Bertsorik kutunenak utzi ditut azkenerako: Loiolako Iñazioren ahotan jarritakoak. Gozatu ederra hartu nuen, izan ere, egiten aritu nintzen 1989ko udazken hartan. Poz-bide izan ditut geroztik, bai Loiola'91 saria irabazi eta Azpeitin aurkeztu zirenean, bai Euskal Telebistak eman dituen bakoitzean. Baina pozak ez dira hor amaitzen. Behin baino gehiagotan eskatu dizkidate bertso hauek eta behin baino gehiagotan aipatu. Ba ote sari handiagorik?

Bertsoak ez ziren, noski, hutsetik jaino. Lehendik jarriak nituen Ai, ene Jainko izeneko zazpi bertsoak, liburu honetako aurreko atalean dauden-daudenean. Eta horiexek erraztu, urratu eta markatu zioten bidea, hain zuzen, honako sail honi. Eta hortxe daude, sail osoaren bizkarrezur, batzuetan bakarrik eta besteetan bertso batean txertatuta, beti ere letra etzanez.

Baina beste euskarri bat ere izan zuen nire etorriak, bertso hauek moldatzen ari nintzela: Jose Ignazio Telletxea Idigorasen Ignacio de Loyola solo y a pie liburu zoragarria. Hiru aldiz irakurri nuen osorik, eta behin eta berriro dastatu zenbait pasarte. Seinale dute bertsoek. Nabarmen daude aztarnak. Iturendarraren zordun dira bertso hauek, norbaitenak izatekotan.

Bestalde, bertsoak jartzen ari nintzela, behin baino gehiagotan izan nuen burutazioa: bertsoek ematen zutela aukera, alegia, halako ikuskizun berezi bat antolatzeko, bertso kantatuak argiz eta musikaz lagunduta. Baina amets hutsa iruditzen zitzaidan. Ametsa egia bihurtu zen, ordea, Loiola'91 batzordekoei esker, Azpeitiko Zelaitxo zineman, Loiola'91 saria jaso nuen egunean: 1991ko apirilaren 30ean. Hantxe bertan ikusi nuen, ikusi eta sumatu, bertsoek ikusentzuleengan izandako eragina eta oihartzuna. Nekez har dezake sortzaile batek poz handiagorik. Bizpahirutan eman du geroztik Euskal Telebistak saio hura bera. Eta eman duen bakoitzean berriro zait egun hartako poza.

Pozgarriago zait, hala ere, bertsook egiten ari diren bide isila ikustea. Askok eskatu dizkidate. Eta zenbaitek bere ikuspegia eta sentimendua azaldu ere bai: barruraino sartzen diren horietakoak direla, gero eta barrurago. Bego hemen aitormena, eta egin dezadan neurea ere. Izenburu apal bat jarri nien, Ai, ene Jainko nagusiaren azpian: "noizbait neureak nahi nituzkeen bertsoak". Gero eta neureago sumatzen ditut.

Azkenik, egin dezadan ohartxo bat: Azpeitiko emanaldian kantatu bezala doaz hemen, nahiz eta ukituren bat edo beste emango niekeen. Baina beude dauden-daudenean, kantuz zabaldutakoan kideko. Doinuei dagokienez, berriz, hiru doinu ezberdin erabili nituen jartzean: Ama Birjina Erkudengoa, Anaiak gara lapurditarrak eta Prantzisku, zer dakarrek izenekoak. Baina beste batzuk ere erabili ziren Azpeitiko emanaldian, saioa egokiagoa gerta zedin.

“Yo he pensado en qué cosa me podría dar melancolía y no hallé cosa ninguna sino el Papa deshiciera la Compañía del todo. Y aun con esto, yo pienso que si un cuarto de hora me recogiese en oración, quedaría tan alegre como antes.”

*(Luis Gonçalves Camarak
Loiolako Iñigori jasotako hitzak)*

“De cara al cónclave, Ignacio manda a los suyos orar para que «siendo igual servicio de Dios, no saliese Papa quien mutase lo de la Compañía, por haber algunos papables de quien se temía la mutarían...» Y del cónclave, no obstante la oposición de España, salió Papa Carafa el 5 de mayo de 1554. La noticia sorprendió a Ignacio sentado junto a una ventana en compañía de Cámara. Por una vez Ignacio no pudo dominar su marea interior. Según su acompañante se le alteró notablemente el semblante y se le estremecieron los huesos del cuerpo. Levantándose de la silla, se retiró a su capilla a orar. Minutos después salía de ella transformado y sereno, aceptando soberanamente lo irremediable.”

(Jose Ignazio Telletxea Idigoras)

- 1 *Ai, ene Jainko, zergatik nauzu
bakardade hontan utzi?
Deiadarka ere nere otoitzik
ezin zugana iritsi.
Gau eta egun ari natzaizu
deika oihu ta irrintzi,
beldur naiz oso ez ote zaren
gutaz betiko ahantzi.*
- 2 *Zu izan zinen gure arbasoen
esperantzaren oinarri;
ez zenituen sekula utzi
auzokoen lotsagarri.
Baina ni ez naiz har bat besterik,
denak ditut barre ta irri:
"Jainkoarengan zuen uste on,
nola ez zaio etorri?"*
- 3 *Zenbait etsairen irri maltzurra
gaur bihurtua da kantu;
nere barruko otoitza, berriz,
negar garratz eta lantu.
Lagundiaren arerioa
jarri dute Aita Santu.
Zergatik nauzu bakarrik laga,
ez babes ta ez ostatu?*
- 4 *Zuretzat hartu ninduzun, Jauna,
amaren magal gozoan.
Zu izan zaitut Jainko bakarra
nere bizitza osoan.
Baina gaur ez dut zure berririk
gau ilunaren lausoan,
lagunak ditut urrun joanak
ta etsaiak erasoan.*

- 5 Amarik gabe hazitakoak
iragana beti beltza,
begiak izu eta fiakaitz,
isurtzear malko-pertza.
Orainaldiak zer eskainiko
eta magal gazi-geza;
geroak, berriz, inoiz eskura
ez dagoen hodeiertz.
- 6 Kea bezala desegiten zen
umezurtz honen ametsa,
ihes galdua bihurtzen nere
goizeroko noraeza.
Hala aurkitu nuen gaztetan
bizi-pozaren promesa,
zorigaiztoko umearoak
ukatutako babes.
- 7 Baina promesa beti urruti,
hau bakardade mingotsa!,
barne-muinetan isiltasuna,
inguruan irri-hotsa.
Bizi-poza dut ihes joana,
atarian heriotza.
Nola gozatu umetan ere
gozatu ez zen bihotza?
- 8 *Aldamenean ez dut ikusten
basapiztia besterik.
Ai, nere gorputz honetan banu
mindu gabeko hesterik!
Etsipenaren leizetik nauzu
galdezka minez beterik:
ez ote dago bihotzondoko
zauria behingoz ixterik?*

- 9 Mila bostehun eta
hogeita batean...
Hogeita hamar urteko
nintzen artean.
Iruñean* gertatu zen
askoren kaltean,
gu fortaleza zaintzen,
etsaiak atean.
Haiek atakean,
eraso betean,
ni babes merkean
besteren artean...
Hantxe lotu ninduen
Jaunak katean.
- 10 Hantxe zauritu ninduten, Jauna,
belaun eskuina txikitu,
berehalaxe halabeharrez
fortaleza errenditu.
Etsaiak nitaz gupitu eta
lagunen esku gelditu,
haiek etxera ekarri baina
hezurrak nonbait mugitu.
Handik aurrera zenbat oinaze,
sarraski eta ukitu.
Argiak hiru zirritu
nahikoak izaten ditu.
Nere azkena iritsi zela
ari zen zenbait mediku.
Egin gabea izango nuen
behar adina meritu.

* Kantatzean *Iruñian*

I Izarraizpeko inguru hura
arre, urdin eta musker,
belaun hautsia osabidean
oinaze latzaren maizter.
Nere baitan bi zati eginik
minez eskuin eta ezker,
izatearen hondora sartu
zitzaidan suari esker,
bizi-bizirik sentitu nuen
bihotzeko hainbat bazter.
Lehena azter ta azter,
zenbat higuin eta asper!
Urte berriak bere egunak
luzatzen hasi ta laster,
betiko jaiki nintzen leizetik
gorputz ta anima susper.

12 Zure eskuak osatu zuen
nere izate bikoitza,
zuk bildua dut, Jaun amoltsua,
bihotz-zatiki bakoitza.
Zutitu eta han utzi nuen
Izarraizpeko egoitza:
“Agur, Loiola; agur, senide;
agur, Iñigo zipoitza”.
Arantzazuko harkaitz artean,
alde banatan erroitza,
iraganaren oroitza
bihurtu zen gau-otoitza:
“Entzun ezazu, Ama maitea,
haur gaixoaren aiotsa!”
Oraindik ere ez zait itzali
bidali zenidan goiza.

13 Hantxe Oñatin agurtu nuen
anaia apaiza aurrena,
Navarretera iritsi eta
morroi leialak hurrena:
“Adio, Pedro, Andres ta Juan,
egizue behar dena,
utz nazazue jarrai dezadan
Jainkoaren aztarrena,
haren irrikaz daukat bihotza,
haren egarriz barrena”.
Alboan Ebro gardena,
urrun Montserrat lerdena,
etxeko mando baten gainean
Igualadan barrena
noizbait heldu zen mendi-altzora
erromes sutsu herrena.

14 Lau egun oso egin nituen
otoitzean Montserraten,
bekatu oro aitortu eta
zuri eskerrak ematen.
Nere lehenak ihesbidea
izan bazuen erreten,
aurrerantzean egun guztiek
zu, Jauna, izan zaitzaten,
ikasi nuen ur biziaren
iturburutik edaten.
Handikien jantziak ken,
zakuek estal nazaten.
Zaharrarekin lotzen ninduen
zilbor-heste latza eten
eta erabat berria nintzen
Amaren altzoric irten.

15 Montserrateko magala utzi
eta jo nuen Manresa.
Oraindik ere gogoan daukat
hango lagunen babes.
Baina ondoen nengoenean
gozoa bihurtu geza,
muinetaraino sartu zalantza,
ailegatu ondoeza:
“hau bekatari gaiztoa eta
hauxe gizon ezereza!”
Erreza eta erreza,
ezin urrundu gau beltza.
Hain gertu ez dut inoiz ikusi
amildegiaren ertza.
Ia erotu zitzaizun, Jauna,
Loiolako erromesa.

16 *Ez zaitzela nigandik urrun,
Jaun zintzo eta zuzena.
Ken iezadazu esku amoltsuz
bihotzondoko eztena.
Bekatuaren morrontza utzi
ta zoriontsu nintzena,
segurantzarik inon ez eta
galtzen hasia dut sena.
Zulo honetan iritsi zaio
erromesari azkena.
Entzun nere hasperena,
osina bezain ozena!
Eta zugana itzuliko naiz
bake-egarri naizena,
denen aurrean goretsiko dut
hain handi duzun izena.*

17 Zeinen handia izan zen zure
nereganako gupida!
Nola atera ninduzun, Jauna,
zorionaren argira!
Bide-ertzetik nindoan eta
hantxe gelditu begira
Cardoner ibai jostalariak
zeraman ur bihurrira.
Harexekin bat joan zitzaidan
bihotzondoko intzira.
Hura goizaren distira,
poz berriaren pilpira!
Han bukatu zen erromes honen
animako tirabira.
Geroztik zure gida besterik
ezin dezaket desira.

18 Jerusalem helburu
itsasoan zehar
Jauna beste gidarik
ez nuen behar.
Bartzelonan barrena,
anima su ta gar,
agurtu Erroma ta
Txipre bidenabar.
Ai, zenbat ezbehar,
larri eta negar,
batzutan galtzear,
bestetan hiltzear...
Noizbait iritsi ginen
bihotza dar-dar.

19 Hantxe ibili ginen
hogeit bat egunez.
Ez naiz inoiz ahaztuko
halako upez.
Jesusen sorterrian
Inigo erromes,
ia zoratu nintzen
haren oihartzunez.
Eta zorionez
betea egonez,
egin nuen promes,
beharbada amets:
bertantxe gelditzea
betiko planez.

20 Utzi beharra izan nuenez,
Jauna, zure sorterrria,
hara berriro ere erromes
biderik gabe jarria.
Bateko ekaitz gaiztoa eta
besteko negu gorria,
joana bezain arriskutsua
gertatu zen etorria,
halako batez aurkitu arte
Bartzelona pozgarria.
Han nuen Ines argia,
zein ama maitagarria!
Bi urte luzez gozatu zuen
nere bizitza berria,
ikasteari emana eta
geroaren oinarria.

21 Bartzelonako epela utzi
eta jo nuen Alcala,
gizon askoren jakinduriak
bera zuen magala.
Lau lagunekin zer osatuko
eta talde zerbitzala;
gutxi ikasi, asko lagundu,
multzo ginen berehala,
neurririk gabe izutzeraino
Elizako jaun fiskala.
Laster nintzen nola-hala
preso San Pablo bezala.
Salamancara urrundu baina
berriro ere itzala,
beti atzetik genuen eta
Inkisizio zitara.

22 Salamancako egonaldia
oso laburra izan zen,
barrenak gero eta gehiago
baitzidan, Jauna, eskatzen.
Asto koxkor bat lagun nuela
neu bakarrik irten nintzen,
Bartzelonara iritsi eta
“gelditu hemen” aditzen,
baina helmuga urruti nuen:
itzal handiko Parisen.
Hainbat gizon eta izen
ez dago erraza biltzen.
Han zazpi urte egin nituen
jakinduriaz hornitzen,
zure berria zabaldu eta
gazte jatorrak hezitzen.

23 Hura zen hura zazpikotea,
hura lagun-koadrila!
Ai, inoiz eten ez balitz, Jauna,
elkarren arteko zila!
Hau hutsunea utzi duzuna,
Fabro anaia sotila!
Zertara dator, Simon Rodrigues,
horrenbeste iskanbila?
Eskerrak zuei, ene Salmeron,
Lainez eta Bobadilla.
Ta Xabierko mutila,
nafar sasoiko bipila?
Egun batean urrun joana,
oraintxe bi urte hila.
Oso berandu baino lehenago
hirekin gerta nadila.

24 Hamaika urte ibilia haiz
bakarrik estu ta larri.
Nik baino askoz hobeto dakik
bakardadearen berri.
Gogoan al duk Parisko martxa,
zenbat amets eta irri?
Gogoan, zenbat une latz eta
zenbat hitz gozo elkarri?
Baina joanak joanak dituk,
ezin berriro etorri.
Bake sakona egarri,
bihotz-adorez elbarri.
Aldeko Aita Santua hilda,
Paulo laugarrena jarri.
Carafa horrek ez ziguk inoiz
gaitza besterik ekarri.

25 Hau egoera larria eta
hau zama eramangaitza!
Alde genuen giro bikaina
bihurtu zaigu ekaitza.
Egun batetik bestera galdu
ote daiteke zuhaitza,
hainbeste neke eta izerdiz
gozatutako emaitza?
Uso ezitia ezkutatu da,
hegan dator zapelaitza.
Gainean daukagu gaitza.
Norena ote garaitza?
Zu izan zaitut urtetan, Jauna,
esperantzaren harkaitza.
Oso-osorik nauzu zurea,
onartu nere eskaintza.

26 Zure eskuetan utzi genuen
Montmartren ere bizia,
gu zazpiokin egin zenezan
zenezakeen guzia.
Abuztuaren hamabosta zen,
oso egun berezia.
Fabro gurea meza-emaile,
eta talde biluzia
hantxe gelditu zitzaizun, Jauna,
hitz ausartaz itsatsia.
Hona orduko hazia,
gaur zuhaitz mardul hazia.
Hogei urtetan haize eroak
ez du itzali suzia,
hain izan baita indar handiko
zuk emandako grazia.

27 Lan eta nekez egin nituen
han, Parisen, zazpi urte,
hamairu oso baneramatzan
jaioterritik aparte.
Berriz itzuli beharra neukan
urdail hau zela bitarte:
“Izarraizpeko aire garbiek
on egingo baitizute”.
“Agur, lagunak, asko ikasi
ta Veneziara arte”.
Bidez bide, atez ate,
zamari bat lagun dorpe,
Tours, Bordele ta Baionan zehar,
“zer dun, Gipuzkoa maite?”
Donostiatik, Usurbil utziz
jo nuen Andatzarrate.

28 Iturriozko bentan
nekearen nekez
gelditu nintzen lotan
ostegun batez.
Biharamun goizean
hantxe nere kaltez
nuen Martin anaia
norbaiten bitartez
deika ahots betez
ta erdi atakez:
“etxeratu zaitez
aspaldiko partez!”
Ezetz erantzun nion
bi hitz fuertez.

29 Arratsaldez iritsi
nintzen Azpeitira,
Izarraizpeko magal
gozo eztira.
Zuzenean jo nuen
Ospital handira
(herriko behartsuak
hantxe bizi dira).
Hura zen pilpira
leihotik begira
Urola garbira,
inguru argira!
Ai, umetako gauzek
duten distira!

30 Ai, Egibarko Martin
Errasti arotza,
Maria inudea,
ama airosa.
Nola hazi zenuten
Loiola epotxa,
egutera bihurtuz
haur haren laiotza.
Horra mailu-hotsa
ta andre-ahotsa.
Hauxe nere poza!
Non gehiago goza?
Lehertu beharrean
daukat bihotza.

31 Ai, ene Magdalena,
koinata azkarra,
noizbait zuzenduko da
Martin kaxkarra.
Segi zeure bidetik,
argi goiztiarra,
ezin itzal daiteke
maitasun-izarra.
Hau da zoritxarra,
oinaze zaharra,
barneko negarra
pizten duen garra:
maite dena betiko
utzi beharra!

32 Zein ederra den nere umetan
hain neure nuen txokoa,
hiru hilabete trinko haietan
berriz gozatutakoa!
Han gelditu zen zure hitzaren
oihartzun betirakoa:
*“Zorion bila zabilzatenok,
zain daukazue Jainkoa;
kontuan izan azaldu duen
bihotz neurrigabekoa.
Utzi zeuen gorrotoa,
gezurra eta jokoa.
Haren eskuak xukatuko du
nahigabetuen malkoa,
gozoz beteko erruki eske
dagoenaren golkoa”.*

33 Azpeiti utzi, berdin Iruña*,
Toledo ta Valentzia,
handik itsasoz Italiara,
zein bidaia nahasia!
Boloniara nekez iritsi,
ondoren jo Venezia.
Han ezagutu nuen Carafa,
gizakaxkar berezia.
Hara bildu zen urtebetera
Parisko talde guzia,
bederatzira hazia,
latz eta gogor hezia.
Jerusalem zen gure hurrengo
asmo gozo nagusia;
Aita Santuak emango zigun
bertaratzeko grazia.

34 Nola eskertu zenbait mesede
Paulo hirugarrenari:
apaiztu ere gindezkeela.
Nolatan hainbeste sari?
Baina guztia ezin izaki
zorionaren atari:
gerrak ateak itxi zizkion
aspaldiko ametsari.
Eta Erroman geratu ginen
Elizaren zerbitzari:
maisua, erizain, hizlari,
apaiz, eskale, bidari...
Izena ere jarri genion
geure lagunarteari:
honatx Jesusen Lagundikoak,
zu baitzaitugu gidari.

* Kantatzean *Iruña*

35 Geroztik hemen nauzu, Erroman,
zure nahiaren gatibu,
Lagundiaren koxkortze eta
zabaltzearen testigu.
Hasierako hazi txikia
zuhaitz handi egin zaigu,
zazpikotea multzo bihurtu,
araudi eta izkribu:
Aita Santuak esandakoa
betetzeko prest beti gu.
Deiak, hots eta gaztigu,
erruz ugaldtu zaizkigu.
Baina gaurdaino lortutakoa
bihur daiteke kastigu,
orain Carafak zure izenean
izana kentzen badigu.

36 Askotan dugu dastatu, Jauna,
erasoaren mingotsa,
sarri sumatu ezpain-ertzean
behazun likats berdotza.
Probatu ere probatua dut
espetxearen laiotza,
baita gertuan ikusi ere
bost alditan heriotza...
Baina nola jo Aita Santutzat
hain gizaseme arrotza?
Basurdearen betortza
zein luze eta zorrotza!
Entzun ezazu babesik gabe
dagoen honen aiotsa:
ez dezadala sekula onar
bi nagusiren morrontza.

37 Zu zaitut, Jauna, argi bizia,
zu zaitut argi bakarra,
eguneroko lagun berria,
betiko lagun zaharra.
Hainbat gauetan gidari zintzo
izan zaitudan izarra,
zuri begira bereizi ditut
hegoa eta iparra,
non legokeen zoriona ta
non dagoen zoritxarra.
Beraz, zertako negarra,
galduaren deiadarra?
Zure bidea erakustera
badator halabeharra,
zerorrek duzu goiz bihurtuko
oraingo ilunabarra.

38 Zeure eskuetan daukazu, Jauna,
nere bizitza osoa:
iraganaren babeseta eta
geroaren eraso.
Zeurea duzu nere oraina,
zeurea nere lausoa:
etxea suak inguratuta,
irrimirrika auzoa.
Norengana jo laguntza eske,
nora zuzendu pausoa?
Ni naiz ur-tanta gaixoa,
zu betiko itsasoa.
Zugandik nator, zugana noa,
zabal ezazu besoa,
bete-bete dasta dezadan
maitasunaren gozoa.

39 Zein handia den, zeinen hondoa
zure maitasun betea!
Zeinen gozoa eta ezitia
darizun barne-bakea!
Zure altzoa izango ahal dut
behin-betiko aterpea,
hortxe uzteko neure ametsa,
hortxe erromes-nekea
eta urtetan pozez moldatu
dizudan lagunartea.
Ai, ene Jainko maitea,
zabal ezazu atea.
Arren, lagundu egin dezagun
zure azken borondatea,
eta erabat etengo dugu
lotzen gaituen katea.

40 *Eta zugana itzuliko da
urrun dabilen gizona,
zure ondoan aurkituko du
galdutako zoriona.
Eta kantari hasiko zaizu
luzaro mutu egona:
"Sorkari orok gora dezala
gure Jainkoaren ona".*

Aurkibidea

ESKUTITZA	7
LEHEN URRATSAK	11
Maitasunaren bidean	13
Ama bati	15
Agur, Xabier	17
Nafarroa	19
Soldadu ekarri naute	23
Maitasunez	25
Ene emazteari	27
Orreaga	28
AIAN JARRIAK	31
Manuel Lasarteri	33
Nuklearrez hila	36
Gartzelako lagunari	39
Joxe Ramon Ansa	42
Ongi etorriak, Everestetik zatozten mendizaleak	46
Xenpelar sariaren galdez	48
Mattin, izar berria	51
1981	54
1984	65
1984	67
Euskal Telebista	70

Txallenger-en atzetik	72
Ihauterietan	75
Itsasoko negarra	78
Bertso berriak, parranda-gau batez jarriak	82
Torizu eskua	85
Bertso berriak, txerrien defentsan jarriak	89
Bertso berriak, kendu zidaten goardasolari jarriak	91
Debaldeko festa	94
Euskal Herria 1984	96
TXUKUNAGO IBILTZEN DA KOSTAKO TRENA	99
Nire kotxea	103
Mundura jaio nintzen gorputz baten jabe	108
Plazako bertsolari	114
Korrikalari	121
Neuk asmatutako neskazahar bati	126
Zarauzko hondartzan jarriak	132
Marrakech-etik Casablanca-ra	138
Parrandan	144
Kontrabandoan	151
Soldadu	157
San Donato mendian	165
Teleferikoan	171
Fistulari	177
Birus berriari	182
Eskiadore	187
Autobusean	193
ERNAMUINETAN	199
Esperantzarenak	201
Hasiera batean	205
On Joxe Miel Barandiaran	209
Ai, Joxe Migel, azti-sorgina	211
Hiru txerriak eta otsoa	216
Goseak hildako haurrari	220

Joseba Goikoetxea ertzainaren hiletarako	222
Loiola Irratiari, zilarrezko ezteietan	223
Elgoibarko Ikastolari, zilarrezko ezteietan	226
Ai, ene Jainko!	229
Ohean jarriak	231
Aitona gorra nuen	234
Umetan izan nuen (I)	238
Umetan izan nuen (II)	242
Umetan izan nuen (III)	246
Irak aldera begira	250
Bosgarren mendeurrenean	253
Ni ere Sevillan nintzen	258
Banoa Santiagora	263
Aitona galdu nuen urtean	268
AI, ENE JAINKO	271



1051070
G-128/86



Pello Esnal

Bertsolariak eta idazle eskolatuak elkarri bizkarra emanda bizi ziren garaia joana da. Haiek unibertsitate eta antzokietan ikusten ditugu; hauetako batzuk bertso-gintzan ere gogotsu saiatzen dira.

Horietako bat dugu Pello Esnal. Bertsoaren lege eta izkutu guziak aztertu eta ikasi ondoren, bertso jartzeari ekin dio, bere eta Euskal Herriaren gertakizunak gai harturik, begi txorrotxez epaituz eta umore ederrez jantziz. Bai al da azken urteotan berak hainbeste sari irabazi duenik?

Gaur arte, beraz, herri-bertsolaritza bakarrik genuen. Orain ikasia ere badugu. Pello Esnalen bilduma honek hala erakusten du. Ustegabeko berrikuntza alegia, gure hizkuntzari zenbat mesede egin lezaiokeen esaterik ez dagoena.

Auspoa liburutegiak, berriz, poz haundia du bere burua bertso zaharren eta berrien kutxa bihurturik ikusteaz.

ISBN 84 89080 23 2

